# Goienkaria

2007ko abenduaren 14a > Egubakoitza > VII. urtea > 313. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Arrasateko Zentroan Euskal Herriko ginekologia zerbitzu onena zegoen"

**Alfredo Otalora**
Ginekologoa > 09


**G2a** **Pier Paul Berzaitz kantaria gaur Arrasaten** > 43-44

**LANA** **Prekarietatea salatzeko kanpaina abiarazu du ESK sindikatuak** > 6

**ARRASATE** **Kromoak trukatzeko eguna antolatu dute domekarako** > 19

**ANTZUOLA** **Ez da adostasunik egon zinegotzi eta alderdiendako diru kopuruetan** > 36


**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Manifestazioa deitu dute biharko Arrasaten, AHTri ezetz esateko

**OBRAK HASTEAR** AHT Gelditu! Elkarlana taldeak deitu du, Debagoienean lanak hastear daudela salatzeko

**37 KILOMETRO** Debagoienean kilometro kopuru hori zeharkatuko du; bost tarte esleituta daude dagoeneko

**IRITZIAK** Proiektuaren gaineko aldeko eta kontrako iritzia eman digute Debagoieneko hainbat bizilagunek > 02-05




**MANIFESTAZIOA** Bergarakoan Jazinto Arregik -Xabier Arregi auzipetuaren aita- eta Jose Luis Elkorok -auzipetua- eroan zuten pankarta. X.U.

## Erantzun zabala izan zuen atzo 18/98 auziaren aurkako lanuzteak

*Herri gisa erantzuteko garaia* lelopean, 18/98 sumarioko auzipetuek atzorako deitu zuten lanuzteak erantzun zabala izan zuen Debagoienean. Lanuztea 12:00etatik 13:00ak bitartean izan zen eta enpresa ugarik egin zuten, hala nola Fagor taldeko enpresa guztiek, Elayk, Candyk eta Euskadiko Kutxak, batzuk aipatzearren. Ikastetxeetan eta administrazioan ere jarraipen handia izan zuen lanuzteak. Lanuztearekin batera bilkura eta manifestazioak egin zituzten herri gehienetan. > 34

**AZPIEGITURAK** > GI-627

## Lanak Bergarako bariantean

Foru Aldundiak saihesbidearen lau kilometro egokituko ditu > 25

**NAGUSIAK** > ARETXABALETA

## Basotxo elkartearen urtemuga

Bihar ospatuko du Aretxabaletako erretiratuen elkarteak 25. urtemuga > 31

**KIROLA** > ATLETISMOA

## Santamas herri krosa domekan

Domekan jokatuko dute koadrilen arteko Santamas krosa, Arrasaten. 12:30ean hasiko da eta egunean bertan eman ahal izango da izena, ordubete lehenago, antolatzaileek udaletxeko arkupeetan jarriko duten mahaian. Antolatzaileek 90 korrikalari inguru espero dituzte. > 22

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 06
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**AZPIEGITURAK**> ABIADURA HANDIKO TRENA

# 'Euskal Y'-a: esleitu barik daude Arrasate-Antzuola eta Bergara-Elorrio zatiak

**SUSTAPEN MINISTERIOA** Arrasate-Bergara-Elorrio loturaren ardura Espainiako Sustapen Ministerioarena da; Arrasate-Elorrio bakarrik esleitu du

**EUSKO JAURLARITZA** Sustapen Ministerioaren akordio baten bidez Bergara-Antzuola eraikiko du Eusko Jaurlaritzak; proiektua egiten ari da

MIRIAN BITERI > BERGARA

Biharko, zapatua, Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazio nazionala deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak Arrasaten. Hori abiapuntu hartuta, *Euskal Y* proiektuaren gaineko informazioa jaso dugu datozen lerrootan.

Europar Batasunaren Garraiorako Sare Transeuroparra izeneko azpiegitura egitasmoaren barruan dago kokatuta. Euskal Trenbide Sare Berria izango da eta Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune nagusiak lotuko ditu. Distantzia erdi eta luzeetarako balioko du. Ibarrean ez du geldiunerik egingo. Bidaiariak eta merkantziak garraiatuko ditu. Lehenengoekin gehienez 230 kilometro orduko hartu ahal izango du eta merkantziekin, berriz, nabarmen jaitsiko da abiadura: 90 bat kilometro orduko abiadura hartuko du.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailaren arabera, *Euskal Y*-ak 4.178 milioi euro balioko du. Espainiako Sustapen Ministerioaren mende dagoen Trenbide Azpiegituren Administratzaileak 2.536 milioi euro jarriko ditu. Eusko Jaurlaritzak 1.642 milioi ipiniko ditu: "Kopuru hori aurreratuko dugu. Gero, Kupotik kenduko da", dio Garraio Sailak.

Ibilbideak 172 kilometro izango ditu eta zati handi bat tuneletan joango da, ibilbide osoaren %60,4, hain zuzen. 104 kilometro aurreikusita daude lur azpitik eta horiek 80 tuneletan banatuta egongo dira. Horietako batzuk Debagoiena igaroko dute; esaterako, 3.160 metro dituen bide bikoitzeko tunela pasako da Udalatxetik.







### Abiadura Handiko Trenaren proiektua zenbakitan, gurean

| ESKAINTZA EGIN DEN TRAMUA | LUZERA | NORK EGINGO DUEN | ADJUDIKATUTAKO DATA | ADJ. AURREKONTUA | EPEA |
|---|---|---|---|---|---|
| Legutiano-Eskoriatza (1. tramua) | 5 km | UTE Comsa-Cycasa C. | 06/12/26 | 65,03 milioi euro | 45 hilabete |
| Legutiano-Eskoriatza (2. tramua) | 2,4 km | UTE Fer. Agroman-Fon. | 06/12/26 | 65,68 milioi euro | 45 hilabete |
| Eskoriatza-Aramaio | 5,5 km | Infraestructuras-Viuda de Sainz | 07/03/30 | 80,90 milioi euro | 29 hilabete |
| Aramaio-Arrasate | 3,4 km | Sacyr-Amenabar-Proyectos S.A. | 07/03/30 | 57,85 milioi euro | 30 hilabete |
| Arrasate-Elorrio | 4,4 km | Obras Subterrane. S.A | 07/01/26 | 69,70 milioi euro | 33,5 hilabete |
| Arrasate-Bergara | 8,1 km | ---------- | --------- | --------------- | ---------- |
| Elorrio-Bergara | 3,8 km | ---------- | --------- | --------------- | ---------- |
| Bergara-Antzuola | 4,3 km | ---------- | --------- | --------------- | ---------- |

### Bidaia denbora

| IBILBIDEA | DENBORA |
|---|---|
| Gasteiz-Bilbo | 28 min |
| Gasteiz-Donostia | 34 min |
| Bilbo-Donostia | 38 min |

| ABIADURA | |
|---|---|
| Pertsonak | 230Km/ordu |
| Garraioak | 90 Km/ordu |

ITURRIA:
EUSKO JAURLARITZAKO GARRAIO SAILA

**17 KILOMETRO BIADUKTUETAN**

Biaduktuetan 17 kilometro eraiki beharko dira. Guztira, 71 eraikitzea aurreikusten du proiektuak. Horien artean, Aramaion egingo dena nabarmen daiteke. 1.400 metro luze eta 70 metro garai izango da hura. Gainazaletik, azkenik, 51 kilometro igaroko dira.

Trazatuaren gutxieneko zabalera 23 metro izango da. Hala, plataformak 15 metro izango ditu eta albo bietara doazen itxiturek beste lau metro hartuko dituzte. Horrez gain, alboetara zortzi metro arteko desjabetzea egingo da.

Lur okupazioen gaineko informazioa *www.ahtgelditu.org* webgunean jasota dago; alegia, AHT Gelditu! Elkarlanak sortutako webgunean. Datuak Espainiako Sustapen Ministerioaren *Ikerketa informatiboa*-ren araberakoak dira. Hala, trazadurak 671 hektarea eta hondakindegiek beste 518 hektarea hartuko dituzte.

Zer eskatuko diozu Olentzerori?
Alacanten etxebizitza bat eguzkiarekin urte osoan! GILTZA ESKURA IZANGO DUZU!

GUZTIZ JANTZIA!
95.400 €tik aurrera
+ BEZa
Domingo
GRUPO
www.grupodomingo.com
GIPUZKOAKO DELEGATUARI DEITZEKO:
676 44 88 13
guipuzcoa@grupodomingo.com
Tel.: 902 37 01 02
www.grupodomingo.com

Azken horren harira, 64 hondakindegi aurreikusten ditu. Inpaktu akustikoari dagokionez, 250 metrora 79-94 dezibeliokoa izango dela aipatzen da *Euskal Y*-aren proiektuan. Guztira, 47 udalerri kaltetuko ditu. Horietatik sei Debagoienekoak dira.

**IBARRA, ZATIRIK ZATI**

Ibarrean bidegurutze lana egingo du proiektuak, hiru norabideak elkartuko dira. Leintz Gatzagatik sartuko da. 600 metro egingo ditu, tunel barruan. Legutiano eta Eskoriatza arteko II. azpiataleko zati bat da hori. Eskoriatzatik bi zati pasako dira: batetik, Legutiano-Eskoriatza dago. 4,8 kilometro izango ditu. Albertia tunelak hartuko du zati handiena. Haren azken metroak Eskoriatzako lurretan egingo dira. Bigarren zatiak Eskoriatza eta Aramaio lotuko ditu, eta hainbat zubi eta tunel egingo dira horretarako.

Aramaiora iristean 1.401 metroko Induspeko tunelean sartuko da trena. Aramaio-Arrasate tartean, Trenen Aurreratze eta Aparkaleku Gunea eraikiko dute, 1.196 metrokoa. Handik beste tunel baten bidez Arrasaten sartuko da. Arrasaten bi hartuko ditu *Euskal Y*-ak: bat Donostiarantz joango da eta bestea Bilborantz. Azken horretarako, 3.160 metroko bide bikoitzeko tunelak egin beharko dituzte Udalatxen.

Bergaran ere bitan banatuko da trenbidea. Hala, Donostiatik datorren norabidea Antzuolatik eta handik Bergarara iritsiko da. Bilborako bidea hartuko du ondoren, Angiozarko bailaratik eta Elorriotik. Tramu horrek 3,8 kilometro izango ditu, tunel barruan. Bestea Gasteizera doa Arrasatetik. 8,1 kilometro luze izango da.

Bi erakundek egingo dute: Sustapen Ministerioak du Espainiako Estatuan trenbide azpiegiturak sortzeko eskumena, eta Eusko Jaurlaritzarekin akordioa sinatu du, azken horren esku zenbait zati uzteko. Hala, besteak beste, Araba eta Bizkai arteko zatia, Arrasate, Elorrio eta Bergara arteko lotura Sustapen Ministerioarenak dira.

Legutiano-Eskoriatza I eta II, Eskoriatza-Aramaio, Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrio zatiak esleitu ditu Sustapen Ministerioak. Baina lanak ez dira oraindik hasi zati horietan. Arrasate-Bergara eta Bergara-Elorrio esleitu barik daude.

**PROIEKTUAREN EGOERA**

Abuztuan alegazioak aurkezteko epea amaitu zen Eskoriatzan, Aramaion eta Arrasaten. Oraindik ez dute horien erantzuna jaso. Eskoriatzako Udalean proiektuaren gaineko informazio ugari jaso da azkenaldian, besterik ez. Aramaioko Udalean azaldu dute trenak pasa behar duen lurretan zundaketak egiteko baimena eskatu dutela.

Hain zuzen, bi puntutan baino ez du baimenik emango Udalak: Untzillako hondakindegia egin behar den tokian eta Lugartegi eta Bolinburu baserrien ondoan. Udalak horma bat egin gura du bi baserri horien artean, Lugartegi bota ez dezaten.

Arrasaten ere ez dago aparteko berririk. Proiektuaren prozesua bertan behera uzteko eskatu zion Udalak Sustapen Ministerioari uda aurretik. Azken horren erantzuna jaso du urrian. Eskatutakoa ezinezkoa dela dio.

Eusko Jaurlaritza atzeratuago dabil. Euskal Trenbide Sarea erakundea –Garraio Sailaren menpekoa– Bergara-Antzuola zatiaren gaineko proiektu basikoa osatzen ari da. Bi udalerri horietako udaletan, ez dute inongo berririk jaso *Euskal Y*-aren gainean.



**FOTOMUNTAIA** Irudian, *Euskal Y*-aren trena izango denaren fotomuntaia.

PROIEKTUAREN AURKAKO EKIMENAK




**ESKUALDEKO ORDEZKARIAK** Biharko manifestazio nazionalerako deialdia egin zuten joan den astelehenean, Arrasaten. M.B.

**MANIFESTAZIOA** > ARRASATEN MANIFESTAZIO NAZIONALA DEITUTA DAGO BIHARKO, ZAPATUA

# Mobilizazio ugari izango dira aste bukaeran

AHTren aurkako ekimen ugari antolatu dira gurean; AHT Gelditu! Elkarlanak biharko Arrasaten deitu duen manifestazioa dago horien artean

**M.B.**> BERGARA

Datozen egunotan AHTren aurkako zenbait ekimen egingo dira ibarrean. Hala, biharko, zapatua, manifestazio nazionala deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak Arrasaten. *AHT Gelditu! Inposaketarik ez!* lelopean irtengo da Herriko Plazatik, 17:00etan.

Asteon agerraldia egin du eskualdeko AHT Gelditu! Elkarlanak Arrasaten, mobilizazioan parte hartzeko gonbidapena egiteko. Helburua "Arrasateko kaleak betetzea eta gezurra, manipulazioa eta kriminalizazioa erabiltzen duten arduradun politikoei, AHT inposatzearen aurrean gure ezetza entzunaraztea da", dio.

Egitasmo horren gaineko informazio "zabal eta gardena" exijitu du beste behin ere. Alegia, "eztabaidarako ateak zabalduko dituena" eta "herriari hitz eta erabakitzeko bidea eta askatasuna emango diona".

Une "erabakigarrian" gaudela ohartarazi du, lanak "hastekotan" daude-eta. Proiektua "inposatze asmoarekin" batera, Espainiako Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak horren gaineko eztabaida "zeharo desitxuratzeari" ekin diotela salatu du.

**AUTOBUSA ERABILTZEKO DEIA**

Hala, "mobilizazioa eta eztabaida bultzatzea premiazkoa dela" aipatu du. Azkenik, bailarako herritarrei autobusetan etortzeko dei egin die AHT Gelditu! Elkarlanak.

Debagoieneko zenbait eragilek mobilizazioarekin bat egin dute eta ekimenak antolatu dituzte. Elgetan, esaterako, auto-karabana egingo dute bihar Arrasateraino. Herriko Plazan egin dute hitzordua, 16:15ean. Oñatin mendi ibilbidea egingo du gaztetxeak. Plazatik irtengo dira 13:30ean eta Arrasateko Herriko Plazan amaituko da.

Bergarako gaztetxean agerraldia egin dute martitzenean, manifestaziora atxikitzeko eta biharko martxaren berri emateko. Oinez joango dira Arrasatera. Plazan jarri dute hitzordua, 10:00etan.

Ibarreko gazte asanbladek ere ekimenak deitu dituzte. Gaur, egubakoitza, herrietako plazetan mobilizazioak egingo dira 19:00etan eta ondoren, 21:30ean, Arrasaten egingo dute bateratzea. Ondoren, gaztetxean hitzaldia izango da. Biharko manifestazioaren ostean, kontzertuak eta bertsolariak egongo dira Arrasateko gaztetxean.

AHTren Aurkako Asanbladak ere manifestaziora biltzeko dei egin du. Bestalde, 15 egunean neurriz kanpoko garapenaren aurka mugitzeko gonbita egin du.

*Kaixo, Olentzero:*

- *Amamarendako tentsioa hartzeko aparatua,*
- *aitaitarendako bastoia, amarentzako zapatak,*
- *aitarendako babes-gerrikoa edo faxa,*
- *anaiarendako belaunetakoa eta niretako...*

*Orto-Lagun*

Kontzezino kalea 2 ARRASATE Tel.: 943 79 89 34

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA
Mercedes-Benz Motorrarekin: 200 Xdi 141 ZP
22.960 €-tik aurrera



SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

# Abiadura Handiko Trenari BAI

**Ingurumenean eragina izango duela onartzen badute ere, onura ugari ekarriko dituela uste dute elkarrizketatuek**

**Alternatibarik ez dute ikusten; bidaiari eta merkantziak garraiatzeko gaitasuna azpimarratzen dute**



**Lourdes Idoiaga**
Oñatiko alkatea

## "Merkantzia eta bidaiari kopuru handia garraiatzeko balio du"

"Garraio publiko eta eraginkorraren alde nago ni. Bidaiariak eta merkantziak distantzia luzeetan denbora laburrean garraiatzea ahalbidetuko du horrek. Garraio mota hori ez dut ulertzen Donostiara edo Bilbora joateko. Bestalde, Europa osoan aurrerapauso handi moduan ikusten da, beste garraio batzuekin konpondu ezin den bidaiari eta merkantzia kopuru handia garraiatzeko balio du-eta. Onurak ekarriko dizkie debagoiendarrei, baita Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei ere. Bada, ibilbideari dagokionez, ez dugu geldiunerik izango eta enpresek geltokiak dauden tokietara joan beharko dute. Ez diot *Euskal Y*-ari alternatibarik ikusten. Gure herrialdeko dinamikari irtenbidea emango dio, itsaso autobideekin batera".



**Eduardo Zubiaurre**
ADEGIko presidentea

## "Ekonomiak beharrezkoa du lehiakor izateko"

"Ekonomiak eta enpresen jarduerak beharrezkoa dute lehiakor izateko, azpiegitura hobeak aurrera egin ahal izateko gero eta irekiagoa den ekonomian. Azpiegiturek ingurumenean eraginak sortzen dituzte, honek ere bai, baina *Euskal Y*-ak ingurumenerako onurak ere izango ditu: errepideek baino kalte txikiagoa eragingo du, lur gutxiago behar duelako eta ibilbidearen zati handiena tunel barruan doalako; trenak ez du atmosferara gas kaltegarririk botatzen eta errepidetatik auto asko kenduko du. Laburbilduz, trenbide sare berria da Europako garraio sarean kokatuko gaituena, eta bidaiari zein merkantziak distantzia ertain eta luzeetan eramateko eraginkorra izango dena, eta hori Debagoienarentzako ere ona da. Ez da horretarako beste alternatibarik ikusten".



**Andoni Gartzia**
Garaia Berrikuntza Guneko gerentea

## "Lehenbailehen egitea da dagoen alternatiba bakarra"

"Urte asko daramatzagu proiektu horrekin eta oso atzeratuta gaude. *Euskal Y*-a proiektu estrategikoa da Europarako eta baita guretzat ere. Onura asko ekarriko du Abiadura Handiko Trenak. Batetik, abantaila ekonomikoak daude. Esaterako, merkataritza indartu, lanpostuak sortu eta Barne Produktu Gordina igotzeko balioko du, besteak beste. Ingurumenean eragina izango duela onartu beharra dago. Bada, gaur egun gure errepideetan ibiltzen diren ibilgailuek baino kalte txikiagoa eragingo ditu trenak. Onura sozialak ere izango ditu; izan ere, garraio publikoa eta mugikortasun iraunkorra bultzatuko ditu. Horri ikusten diodan alternatiba bakarra lehenbailehen egitea da. Bestela, atzean geratuko gara".



**Mari Carmen Gallastegi**
EHUko katedraduna

## "Horren aurkako bortizkeriak aldeko jarrera indartzen du"

"Gaur egun Donostiatik Bilbora trenez joatea abentura hutsa da; errepidetik bidaia bera egitea, berriz, tortura. Auto eta kamioien kopuruek igoera ikusgarria eta jasangaitza izan dute. Horren harira, gure bidaiek eragiten duten benetako kostua ordaintzen hasiko garen eguna laster iritsiko delakoan nago. Kostu horiek ez dira soilik pribatuak. Gaur egungo garraio publikoen banaketa ez da egokia, ez eta gure lurralde antolakuntza ere. Euskal Autonomia Erkidegoko azpiegitura berri bat eraikitzeak eragina izango du ingurumenean. Bada, hala eta guztiz ere, Abiadura Handiko Trenak, orokorrean, kalteak baino onurak ekarriko dituela uste dut. Egitasmo horren aurkako bortizkeriak nire aldeko jarrera indartzen du".



# Abiadura Handiko Trenari EZ

**Elkarrizketatu guztiek diote AHT inposatutako proiektua dela**

**Laurek diote beharrezkoak ez diren kalteak eragingo dizkiola naturari, eta egingo den gastu ekonomikoa handia izango dela**



**Mila Elortza**
AHT Gelditu! Elkarlana-ko kidea

## "Ez da galdetu zein etorkizuneko Euskal Herria nahi dugun"

"Ez dago ez herritarrentzat ezta herriarentzako pentsatuta. Azkenean inposizio hutsa da, ez da inongo informaziorik eman, eta dagoen informazioa ikusita konturatzen zara ez dela Euskal Herriarentzat diseinatutako proiektu bat. Gainera, ingurumen aldetik izugarrizko kalteak ekarriko ditu, baina badaude beste kalte batzuk, proiektu honek hiri handiak bultzatzen ditu herri txikien txarrerako. Horren harira, kexa asko ari gara jartzen, herrietako denda txikiak ixten ari dira eta, hiltzen doaz, eta proiektu hau aurrera eramango balitz herri txikien amaiera izango litzateke. Hazkundeak ez du esan nahi aurrerapena, bizi kalitate hobea. Ez baita galdetu zein etorkizuneko Euskal Herria nahi dugun gure herriarentzat".



**Oxel Erostarbe**
Elgetako Alkatea

## "Aipatzekoak dira ondare natural eta historikoko kalteak"

"AHTrekin lehenik eta behin atzera bueltarik izango ez duen kalteak egingo dizkiogu Euskal Herriari, eta konkretuki gure bailarari. Azpimarratzekoak dira sortuko dituen kalteak, bai ondare naturalari dagokionez eta baita ondare historikoari dagokionez ere, eta, gainera, ez du lortuko teorian helburu nagusi izango lukeen garraio arazoak konpontzerik. Bestalde, diru pila bat gastatuko dute, eta gure gizartearen beharrei erantzuteko gaitasuna hipotekatuko dugu modu horretan. Kalte ekologikoak ikaragarriak izango dira, bai zabortegi eta bide sareei dagokienez. Nik alternatiba jasangarri bakarra ikusten dut: garraio beharrak erabat murriztu eta dagoeneko dauzkagun baliabideak aprobetxatu".



**Piter Encinas**
Ekologistak Martxan-eko kidea

## "Fantasia hutsa da, baserritarrentzat ere kaltea izango da"

"Batez ere kostu aldetik egin behar den gastua handia da. Garraio politika hobea egin daiteke AHTren orografia zein den kontuan hartuta. AHTk ez ditu pertsonak batzen, baizik eta hiriak elkarlotzen ditu, eta nire ustez printzipalena pertsonak batzea da. Gainera, oso zaila da Euskal Herriak dituen mendi guztiengatik eta egin beharko diren tunel guztiak kontuan hartuta esan duten abiadura lortzea. Nire ustez, fantasia hutsa da. Gainera, kalte ekologiko handiak ekarriko ditu, mendi eta baso asko apurtuko ditu. Baserritar askorentzat ere kalte handia izango da. Gure iritziz, badago alternatibarik, gizartearentzat benetan baliagarria izango den trena egitea. Guztiontzat, eta ez gutxi batzuentzat".



**Ino Galparsoro**
Arrasateko Alkatea

## "Europatik datozen interes erraldoiei erantzuteko balio du"

"Euskal Herrian pentsatutako proiektu bat ez delako esaten diogu ezetz AHTri. Kanpotik inposatu diguten zerbait izan delako. Bereziki horregatik, baina esan behar da Euskal Herriaren kohesiorako ez duela balio, Europatik datozen interes erraldoiei erantzuteko baizik. Ekarriko dizkion kalteak handiak izango dira, lehenik eta behin ingurumenari; bestetik, proiektu horrek herriak ez dituenez kontuan hartzen, ez dio inolako erantzunik ematen; eta hirugarrenik, proiektu horrek izango dituen kostuak kontuan izanik, beste proiektu batzuetarako ez da dirurik izango eta Debagoienak izango dituen beharrei erantzuteko dirurik ez da egongo. AHTk ez du alternatibarik behar, herriak lotzen dituen zerbait baizik".

HONDA
The Power of Dreams
Stockaren likidazioa 0 km
Izakinak bukatu arte



HONDA LEGEND 3.5 VTEC AT
61.000€
0 km. prezioa 51.900€




HONDA ACCORD 2.2 SPORT i-CTDi
28.520€
0 km. prezioa 24.700€



HONDA CIVIC HYBRID
automobil hibrido ekologikoena (motor elektriko-gasolinazkoa)
25.970€
0 km. prezioa 22.400€

5 urteko bermea eta pintura metalizatua barne

Azken automobilak stockean

Tecnocar Guipúzcoa, S.L.
Avda. de Álava, s/n. Tel.: 943 79 22 67*. ARRASATE - MONDRAGÓN. GUIPÚZCOA
*Contacte con nosotros para más información y solicitud de prueba.

**18/98 AUZIA** > PROTESTA EGUNA

# Erantzun zabala izan du 18/98 auziaren aurkako lanuzteak

Ordubeteko lanuztea eta hainbat protesta ekitaldi deitu zuten atzorako 18/98 kasuko auzipetuek; erantzun zabala izan zuten lanuzteak eta ekitaldiok Debagoienean




**BERGARAN** Manifestazio jendetsua egin zuten Bergaran; pankarta eramaten joan zen Jose Luis Elkoro auzipetua. XABIER URTZELAI

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

18/98 kasuko epaia kaleratzear dagoen honetan, auzipetuek deituta protesta eguna izan zen atzokoa, *Herri gisa erantzuteko garaia* lelopean. Debagoienean jarraipen handia izan zuen deialdiak eta enpresa askok egin zuen lanuztea. Hala nola Fagor taldeko enpresa guztiek, Euskadiko Kutxak, Ulma taldeko Packaging, Polimero, Forja eta Construccionek, Candyk, Coprecik, Geyser Gastech-ek, Goizperrek, Elayk eta Matz-Errekak. Irakaskuntzan ere lanuzteak egin zituzten; besteak beste, Antzuolako Herri Ikastetxean, Arizmendin, Kurtzebarrin, Aretxabaletako institutuan, Ipintzako ikasleek eta Miguel Altunakoek, Txantxiku ikastolan eta Zuazola-Larraña institutuan. Aretxabaleta, Bergara eta Antzuolako udal langileek ere lanuztea egin zuten. Eskoriatzan eta Arrasaten, langile bakoitzaren esku laga zuten erabakia. Goienako langileek ere egin zuten lanuztea.

Kale agerraldiak ere egin zituzten herriz herri. Bergaran, manifestazio jendetsua egin zuten eguerdian. Iluntzean, bestalde, Oñatin eta Arrasaten egin zituzten manifestazioak.

> ENPRESAK

### Fagor Arrasateren ekitaldiak 50. urteurrena ospatzeko

Fagor Arrasatek aurrera jarraitzen du 50. urteurreneko ospakizunekin. Alde batetik, bihar, zapatua, amaituko da *TACI Arrasatetik Arrasatera* erakusketa, Kultur Aten.

Bestalde, datorren asteko egubakoitzerako, abenduak 21, pilota partiduak antolatu ditu Fagor Arrasatek, Santamas Komisiñuekin eta Udalarekin elkarlanean. Uarkapen izango dira partiduak, 22:00etan. Honako bikoteek jardungo dute norgehiagoka: Saralegi eta Mendizabal II.a, Arretxe I.aren eta Izaren aurka; bigarren partiduan, Olaizola I.ak eta Otxandorenak Bengoetxea VI.a eta Begino izango dituzte aurrez aurre.

Gabon jaietan, urtarrilaren 2tik 5era, hain zuzen ere, umeendako jolasparkea jarriko dute kiroldegian, Txatxilipurdi elkartearekin elkarlanean.

Urtarrilaren 12an, bestalde, zapatuan, Mikel Urdangarin abeslari ezagunaren kontzertua izango da Amaia antzokian, 20:00etan. Udaleko Kultura eta Gazte bulegoarekin elkarlanean antolatu du Fagor Arrasatek kontzertu hori.

> IDIAZABAL GAZTA

### Gomiztegik omenaldia jaso du Gipuzkoako Diputazioaren eskutik

Gipuzkoako Foru Aldundiak omenaldia egin die, asteon, 2007. urtean zehar nazioarteko sariak irabazi dituzten artzain eta ekoizleei. Tartean, Gomiztegi Kooperatiba Elkarteari. Omenaldi ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Markel Olano ahaldun nagusiak eta Rafael Uribarrenek, Landa Ingurunearen Garapeneko diputatuak.

Gomiztegin 5.104 gazta egin dituzte 2007. urtean. Gainera, hainbat sari jaso dituzte aurten: besteak beste, Londoneko nazioarteko lehiaketan hirugarren saria jaso zuten eta Huescan eta Lleidan lehenengo saria.

**BASERRIAK** > KONTZIENTZIAZIOA

## Landa eremuari laguntzeko gidaliburua kalean da

Debemen eta Deba Garaiko Landa Garapenerako elkarteek egin dute

**A.I.**> EIBAR

Atzo eguerdian, eguena, Eibarko udaletxean aurkeztu zuten *Landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburua*. Debabarreneko Debemen eta Deba Garaiko Landa Garapenerako elkarteek eman dute argitara, bien arteko elkarlanaren ondorioz.

Gidaliburuak 28 orrialde ditu eta 50.000 ale argitaratu dituzte; horietatik 40.000 banatuko dituzte Debarroko herri eta baserri auzo guztietan. Landa eremuan bizi direnei laguntzeko eta baserriko produktuak bultzatzeko herritarrek zer egin dezaketen jasotzen da gidaliburuan; hainbat ekintza proposatzen zaizkie herritarrei, era atsegin eta praktikoan.

Arteman Komunikazioek ekoiztu dute gidaliburua eta Debarroko hainbat enpresaren laguntza izan dute landa garapenerako elkarteek gidaliburua argitaratzeko; besteak beste, Euskadiko Kutxa, LKS eta ERKOOP.

**PERTSONA EZAGUNEN BABESA**

Debagoieneko eta Debabarreneko zenbait pertsona ezagunek eman diote babesa proiektuari. Debagoieneko Markel Irizar txirrindulariak, ULGOReko sortzaile Alfontso Gorroñogoitiak eta Aretxabaleta eta Oñatiko alkateek. Baita Patxi Usobiaga eskalatzaileak eta Deba eta Eibarko alkateek ere.




**GIDA LIBURUA** Irudian, azala.

**LAN ESPARRUA** > PREKARIETATEA

## Prekarietatea salatzeko kanpaina aurkeztu du ESK-k

ESK sindikatuaren esanetan, bereziki emakumeek jasaten dute prekarietatea

**A. I.** > ARRASATE

ESK sindikatuak eguaztenean aurkeztu zuen prekarietatearen aurka abiarazi duen kanpaina. Orain dela urtebete hasi ziren lan horretan buru-belarri. Orain, prekarietatearen gaineko inkestak egingo dituzte lantegietan.

ESKren esanetan, langileek jasaten duten arazo larrienetakoa da prekarietatea eta sindikatuek ez dute behar adina lan egiten horri aurre egiteko.

**KUISKAR ETA ITURBIDE EGOITZA**

Prentsaurrekoan adierazi zutenez, emakumeek jasaten dute bereziki prekarietatea. Horren bi adibide jarri zituzten: Kuiskar enpresa eta Iturbide egoitza. Kasu bietan, langile gehienak emakumeak dira eta soldata txikiak dituzte, ESKren esanetan.

Kuiskar enpresak azpikontratazio lanak egiten ditu, sarrailagintzan; burdingintzako hitzarmenaren azpitik daude langileen soldatak. Iturbide egoitzaren kasuan, bestalde, Udalak enpresa bat azpikontratatzen du zerbitzua emateko. Enpresa horretako langileek lan berbera egiten duten udal langileek baino 700 bat euro gutxiago irabazten dute. Gainera, langile horien lan baldintzak, ordutegiak eta egutegiak ere okerragoak dira. Udaleko Gobernu batzordeak bere programan jaso zuen baldintzak berdintzea eta hori betetzea eskatu zioten ESK-koek Udalari.

Prezio bereziak erabilitako autoetan!
1.000 €-tik aurrera
0 Km arte!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak


Urtea berri eske
nola hasi zaigun
garenaren oihala
berritu dezagun
ekinaren artilez
esperantza irun
eta hari horrekin
bizipoza ehun
Ehune
Apainketa
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE




**Opariak eskatzeko epea: 2007ko azaroaren 12tik abenduaren 31ra.**

. Berreskurapenak eta prestazioak kendu egingo dira urtean egindako ekarpenetatik. Promozio honetan dagoen oparietakoren bat ahitzen baldin bada, Euskadiko Kutxak antzeko ezaugarriak dituen beste batengatik ordezkatuko duela hitzematen du.
Travel Club puntuak lortzeko, Visa Oro edo Clásica txartel baten edo Travel Club-era atxikitako Activa txartelaren titularra izan behar da, edo puntuak eskatu baino lehen kontratatu.

EKARPENAK GUZTIRA **2.500€**



**Jata Ur-garbigailua**
Uraren kalitatea eta zaporea hobetzen ditu eta funtsezkoak diren mineralak gorde.
… edo Travel Club puntuak **1.000**

EKARPENAK GUZTIRA **2.500€**



**Dinamo linterna**
Sintonizadorea du irratiarentzat eta entzungailuentzat sarrera. Ez du pilarik behar.
… edo Travel Club puntuak **1.000**

EKARPENAK GUZTIRA **3.500€**



**Zuntzezko betegarri Nordikoa**
% 100 kotoia eta barrualdean barren hutseko zuntz silikonatua.
… edo Travel Club puntuak **1.400**

EKARPENAK GUZTIRA **3.500€**



**Sukaldeko Festina erlojua**
Tenperatura eta hezetasunerako adierazgailua du. Altzairu mate dotorean eginda dago.
… edo Travel Club puntuak **1.400**

EKARPENAK GUZTIRA **5.000€**



**Sukaldeko balantza elektronikoa**
Doitasun handiko neurgailua du eta neurri handiko LCD pantailarekin dator.
… edo Travel Club puntuak **2.000**

EKARPENAK GUZTIRA **5.000€**



**Hiru toallako jokoa**
Xurgapen handiko joko dotorea, lihoz eta kotoiz egindakoa.
… edo Travel Club puntuak **2.000**

EKARPENAK GUZTIRA **8.000€**



**Haririk gabeko telefono hirukoitza**
10 zenbaki sartzeko memoria, bolumena egokitzen zaio, 8 melodia…
… edo Travel Club puntuak **3.200**

EKARPENAK GUZTIRA **8.000€**



**Burko Zerbikal Viscoelastikoa + zorroa**
Ergonomikoa eta egokitzen dena, eta kremailera duen babesteko zorroarekin.
… edo Travel Club puntuak **3.200**

EKARPENAK GUZTIRA **15.000€**



**Mp4 erreproduzitzailea**
Kalitate bikaineko soinua eta bozgorailua eta FM irratia barne.
… edo Travel Club puntuak **7.000**

EKARPENAK GUZTIRA **18.000€**



**Mp3 Philips mikrokatea**
Potentzia handiko mikrokatea, dotorea eta trinkoa, zurezko akaberarekin.
… edo Travel Club puntuak **8.200**

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Euskadiko Ginekologia eta Obstetrizia Elkarteak Alfredo Otalora ginekologoa izendatu du elkarteko presidente datozen lau urteetarako. Aurrerantzean, Espainiako Ginekologia eta Obstetrizia Elkarteko kide ere izango da Otalora. Gaur egun, Arrasateko Consultorio Ginecologico zentroan eta Donostiako Poliklinikan dihardu ginekologo lanean.

**Alfredo Otalora** > Ginekologoa

# "Arrasateko Zentroan zegoen Euskal Herriko ginekologia zerbitzurik onena"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

**Argentinarra da Otalora, familia euskaldunekoa; Aretxabaletakoak ziren haren arbasoak. 1976. urtean etorri zen Euskal Herrira, Argentinako diktaduratik ihesi. Ibarrean, Arrasaten dihardu lanean, baita Donostiako Poliklinikan ere.**



Alfredo Otalora Arrasateko kontsultan. JASONE ZABALA

**Euskadiko Ginekologia eta Obstetrizia Elkarteko presidente izendatu zaituzte.**

Elkarteak EAEko ginekologo guztiak ordezkatzen ditu, 500 inguru. Gainera, kargu hau dudanez gero, EAEko ginekologoen ordezkari izango naiz Espainiako Ginekologia Elkartean, baita nazioarteko zientzia biltzarretan ere. Bestalde, bekez, ginekologo gazteen sustapenaz, ikastaroez eta kongresuez ere arduratuko naiz; esaterako, datorren urtekoa Donostian izango da.

**Zein dira elkartearen lehentasun nagusiak?**

Barne antolamendurako baliabide teknologikoen eguneratzea, batetik. Webgune interaktiboa eratu behar dugu; bertan, ginekologoek zuzenean kasu klinikoak kontsultatu ahal izango dituzte eta pazienteek erantzun kualifikatuak jasotzeko aukera izango dute adituen eskutik. Bestalde, lankide guztien zerbitzura jartzea; izan ere, osasun arloko langileok medikuntzaren masifikazioa bizi dugu.

**Zein dira arazorik ohikoenak ginekologia kontsultetan?**

Pazienteen adinaren araberakoak dira arazoak: 25-30 urte artekoetan kontrazepzioa eta ginekologia infekzioak; 30 urtetik gorakoetan gero eta gehiago dira antzutasun arazoak (esterilitatea); 40 urtetik gorakoak ohiko azterketak egitera etortzen dira; eta lehen mamografiak egitera 35-40 urte dituztenak; 65 urtetik gorakoei, menopausiaren ostean, gaitz larrien diagnostiko goiztiarra egin izan diegu eta hezurren kalitatea neurtzera ere etortzen dira.

**Emakumeek behar besteko garrantzia ematen diote ginekologia azterketak egiteari?**

Beste erkidego batzuetako kasuak ere ezagutzen ditut eta EAEn beste toki batzuetan baino kontzientzia handiagoa dago gai horrekiko. Hala ere, lan handia egin behar da, badagoelako jendea informazio garbirik ez duena. Geroago eta erreparo txikiagoa izaten da ginekologoarengana joateko, baina adineko emakumeek oraindik zalantzak izaten dituzte. Bestalde, etorkinak bertakoak baino askoz gutxiago etortzen dira medikuon kontsultetara, gazteak direlako eta osasunez ongi daudelako. Baina datozenek eragiten digute kultura berri batekin aurrez aurre jartzera; hortaz, osasun arloan dihardugunok arreta ipini behar dugu horretan ere, tratu egokiarekin beste gauza batzuekin baino gauza gehiago lor baitaiteke.

**Gazteek nahikoa informazio dute ginekologia gaien gainean?**

Ez. Ondorioz, gazte askok izaten dituzte sexu harremanak babesik gabe, eta azkenaldiko Hies kutsatze asko arrisku harreman heterosexualetatik eratorritakoak dira. Guraso gutxik egiten dute berba seme-alabekin sexuari buruz; baina gure gizartean ez da pisu guztia gurasoen esku utzi behar, hezkuntza sistemak badu zeresana gai hauetan, hitzaldiak antolatuz edo informazioa zabalduz, besteak beste. Ezin da onartu egun ditugun metodoekin 20 urteko neskek abortuak izatea nahigabeko haurdunaldiengatik.

KONTSULTAK

**"Geroago eta erreparo txikiagoa dago ginekologoarengana joateko"**

GAZTEAK

**"Onartezina da 20 urteko neskek abortatzea nahigabeko haurdunaldiengatik"**

LANGILEAK

**"Erizainak eta espezialistak falta dira, eta atzerritik ekarri beharko dira"**

**Papiloma-birusaren kontrako txertoari buruz zein iritzi duzu?**

Sekulakoa dela iruditzen zait eta uste dut 9 eta 26 urte bitarteko emakume guztiek hartu behar luketela. Oztopo bakarra da garestia dela, 300 eurotik gora balio du. Eusko Jaurlaritzak ordainduko du 11 eta 14 urte arteko emakumeen txertoa.

**Euskal Herria zein mailatan dago ginekologia ikerketa eta berrikuntzei dagokionez?**

Oraindik lan handia dago egiteko alor horietan, biomedikuntza ikerketan batik bat, baina ez goaz bide txarretik. Euskal Herrian ginekologia lehen mailan dago, baina ahaleginak egin behar dira hobetzeko. Biomedikuntza enpresak eta zentroak ari dira sortzen, Miramongo teknologia parkekoa edo Zamudiokoa adibidez. Horietan lanean dihardute zelula amekin, baita neurofisiologia arloan ere; eta maila oso ona da.

**Debagoieneko ospitalearen maila ere ona da ginekologian, ezta?**

Orain dela 30 urte Arrasateko Zentroan zegoen Euskal Herriko ginekologia zerbitzurik onena. Izan ere, emaginek, erizainek, erizain laguntzaileek ginekologoekin batera lantalde bikaina osatzen genuen. Orduan Arrasaten egiten ziren erditzeen %70-80 epiduralarekin, Donostiako Erresidentzian edo Gurutzetako Ospitalean ez bezala. Gainera, fetuaren bihotz taupadak entzunez erditzeen %90 egiten ziren 1980. urte inguruan, eta kopuru horretara iritsi ziren Euskal Herriko gainontzeko ospitale handietan 1990ean. Hortaz, Arrasate tokoginekologia alorrean buru zen EAEn; eta egun ere ginekologia zerbitzua oso ona da.

**Zein da zuen lanbidearen egoera gaur egun?**

Osasun arloan erizainak, emaginak eta mediku espezialistak falta dira. Gure kasuan, ginekologoak falta dira, eta atzerritik ekarri beharko ditugu. Murtziara, esaterako, 50 sendagile ekarri dituzte Mexikotik. Aurreikuspen falta izan da administrazioaren aldetik. Jakin badakite zenbat sendagilek diharduten lanean, zenbat ikasle hasi diren Medikuntza ikasten, zenbatek zein espezialitate aukeratzen duten... baina ez dute aurreikuspen egokirik egin. Horrek eragin du osasun zerbitzuen masifikazioa eta kalitate falta. Esaterako, emaginak ginekologia kontsultetan egoten dira, erdi-urren dauden emakumeen ondoan behar luketenean.

**Profesionalki zein da eman nahi duzun hurrengo pausoa?**

Presidente kargua dudan arren, hori pauso bat gehiago baino ez da. Gurako nuke erretiroa hartzen dudanean gogora nazaten sendagile on eta laguntzeko ahalegina egin zuen langile fin moduan. Bien bitartean, lanean jarraitzea da nire asmoa. Egunean-egunean gero eta gehiago ikasten dut emakumeengandik, eta haiei esker aberasten jarraitu nahi nuke pausorik pauso.



zabalik

**Mikel Lezamiz**

# Kosovo independentea

Heltzen ari da Kosovoko Gobernu Autonomoak bere independentzia aldarrikatzeko eta etorkizuna askatasun osoan erabakitzeko eguna Serbia Estatutik aparte.

Duela hilabete batzuk independentzia ala ez erabakitzeko erreferenduma egin zuten Kosovoko Autonomi Elkartean eta gehiengo handiarekin onartu zen.

Kosovon Euskadin baino jende gutxiago dago, ia bi milioi pertsona dira eta gu ia hiru milioi gara eta tamainaz gurearen erdia da: 10.000 kilometro karratu.

Badaude beste desberdintasun handi batzuk ere: Kosovoren kontrol militarra eta segurtasuna OTANeko militarren eskuan dago Nazio Batuen (ONUren) agindupean eta Europako Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek bere independentzia nahi dute gasa bertatik pasa egin ahal izateko eta Errusiaren indarra gutxitzeko ekialdean. Bestalde, Estatu Serbiarra eta Errusia independentziaren aurka daude Grezia, Txipre eta Estatu Espainiarrarekin batera.

> **"Kosovoren askatasuna aldarrikatzeak Euskal Herriari onura ekar liezaioke"**
>
> **"Espainolek onartuko lukete euskaldunek autodeterminazioa bozkatzea?"**

Kosovoren independentziaren aferan zuri-beltzak daude interes geopolitiko eta ekonomikoak daudelako, eta egunotan negoziatzen ari dira bere etorkizuna New Yorken serbiarrak eta kosovotarrak Errusia, Europa eta Estatu Batuen gidaritzapean. Arrisku handia dago istilu handiak izateko eta gerraren susmoak ere ezin dira uxatu.

Kosovoren askatasuna internazionalki onartzeak Euskal Herriari onura ekar liezaioke, guk ere aukera berdinak eduki genitzakeelako autodeterminazio eskubidea onartzeko Europaren barruan.

Baina galdera gurera etorrita hau litzateke: espainolek eta frantsesek onartuko ote lukete euskaldunek edota katalanek beren eskubide demokratikoak gauzatzea autodeterminatzeko botazioa egunen batean eginez?

herritarrak galdezka

## ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ORDUTEGIA

**Arrasateko irakurle batek galdetu digu herriko kirol instalazioek Gabonetan orain arteko ordutegi bera izango ote duten ala ez.**

Bada, Udaleko Kirol Zerbitzuan galdetuta esan digute Gabonetan beste ordutegi bat izango dutela kirol instalazioek.

Musakolako instalazioei dagokienez, honako ordutegia izango dute Gabonetako egun esanguratsuenetan: abenduaren 24an eta 31n, 08:30-14:00; urtarrilaren 5ean, 08:30-19:30; eta abenduaren 22an, 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

Instalazioen alokairuari dagokionez, kantxa eta pilotalekuak ezingo dira alokatu abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 7ra bitartean, biak barne.

Bestalde, Musakolako bulegoaren kasuan, abenduaren 24an eta 31n itxita egongo da. Abenduaren 26an, 27an eta 28an, berriz, 10:00-14:00 ordutegia izango du.

Azkenik, Iturripe kiroldegiari dagokionez, itxita egongo da abenduaren 22an hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean.

## BEROGAILUA GABONETAKO UMEENDAKO PARKEAN, BERGARAN

**Bergarako irakurle batek esan digunez, seme-alaba txikiak ditu eta Gabonetan Labegaraietan jartzen duten jolasparkean berogailurik egongo den jakin nahi du.**

Bada, erantzunaren bila Udaleko Kultura Sailera jo dugu eta han azaldu digutenez aurten berogailua egongo da abenduaren 26tik 28ra bitartean –biak barne– kiroldegian jarriko duten jolasparkean. Kultura Sailetik azaldu dutenez, enpresa bat kontratatu dute zerbitzu hori emateko eta aire beroa botako duten berogailuak jarriko ditu kiroldegian. Iaz hotz egiten zuela-eta hainbat kexu jaso zituzten Kultura Sailean. Horri erantzuteko asmoz jarriko dituzte berogailuok.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## BASERRI INGURUNEAN SORTUTAKO PLASTIKOA

**Plastiko hori batzeko hurrengo eguna noiz den jakin nahi du Aretxabaletako irakurle batek.**

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak ematen duen zerbitzua da eta batik bat siloa estaltzeko, belar bolak egiteko eta berotegietan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza batzen dute. Zerbitzu horretan galdetuta, plastikoa batzeko hurrengo eguna hilaren 18a dela esan dute. Plastikoa ohiko batze-puntuetan lagatzea komeni dela ere azaldu dute, eta arratsaldez. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu 943 76 25 47 zenbakira.

marrazkiz

**Alex Ugalde**




blog

# Durangoko azokaren alde ilunak

**Joxe Arantzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Amaitu da Durangoko Azokaren 42. aldia. Badakigu zenbat jende ibili den aurten azokan? Ez. Badakigu zenbat liburu eta disko saldu diren? Ez. Badakigu zer liburu eta disko saldu diren gehien? Ez. Horren ordez, kea dugu ugari: "zorionez, urte ona izan da aurtengoa, iaz baino jende gehiago ibili baita azokan". Hori, eta sailkapentxoak: "Erein pozik dago halako liburuarekin, polito saldu baita; Elkarren, berriz, hau eta bestea nabarmendu dituzte…". Eta horrela, urtero, ad infinitum.

Egun hauetan sei liburu erosi ditut Durangon. Behin ere ez didate eman erreziborik erositakoaren truk, liburu dendetan ematen didaten moduan. Durangon diru beltza da nagusi, dena eskudiruan ordaintzen baita, ez dago erreziborik.

Sailkapentxoen gainetik, berriz, beste egia bat ezkutatzen da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan: libururik salduenak, gehienetan, gaztelaniazkoak izaten dira.

# Gure herrian

**Onintza Enbeita**
www.matraka.info/blogak/onintza

Handia delakoan txikia da gure herria. Notiziak arin zabaltzen dira. Azkarregi batzutan. Batez ere, gertatua isilean gorde gura duenarentzat. Denon belarrietara heldu da berria. Ez da atsegina. Neskok haserretu egin gara, amak arduratu, aitak

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Gabonen atarian gaude, eta semealabei zein jolas erostea da gurasoen arduretako bat. Gabonetan, umeak jostailuz hornitzen ditugu eta askotan ahaztu egiten dugu jostailurik egokiena irudimena dela. Halaxe azaldu digu Maite san Vicentek. Horregatik, arropekin bezala, jostailuak erosi aurretik, ikusi, frogatu eta jostailuaren bidez umearengan susta dezakeguna aztertzeko denbora hartzea gomendatzen du.

Maite San Vicente *

# Jolasa, jostailua baino gehiago

Jostailu erakusketa da Euskal Herri guztian eta Gabonen garaian Txatxilipurdi Elkartetik antolatzen dugun egitasmoa. Asko dira egitasmo honen bidez jorratu nahi ditugun helburuak: batetik, jostailu egokia aukeratzeko lagungarriak izan daitezkeen hainbat gomendio ematea; bestetik, momentu honetan merkatuan dauden euskarazko produktuen zabalkundea egitea eta, nola ez, jostailuen gainetik, jolasaren garrantziaz ohartaraztea. Izan ere, jolasa funtsezko jarduera da denontzat eta are gehiago haurrentzat. Jolasa atseginez egiten dugun denborapasa baino askoz gehiago da, jolasaren bidez hainbat ezagutza, trebetasun eta balore garatu eta geureganatzen baititugu. Honenbestez, jostailuak jolasteko aukera ematen diguten tresnak dira eta horregatik oso garrantzitsua da jostailuen aukeraketa egoki bat egitea.

Egun joera kontsumistak nagusitzen diren jendartean bizi gara eta kontsumismo hau are nabarmenagoa da Gabonetan. Haur bakoitzak, batez beste, 10 opari jasotzen ditu Gabon garaian eta honenbestez, jostailuen salmentaren %80 garai honetan izaten da. Beraz, goian aipaturiko helburuak aintzat harturik, Euskal Herri guztian, udaletxe, elkarte, hezigune desberdin eta lantalde bikain batekin batera eginiko elkarlanari esker, herri eta gune desberdinetan hainbat tailer, hitzaldi eta jostailu erakusketa antolatu ditugu.

Asko dira jostailu egoki bat aukeratzeko orduan kontutan hartu beharreko faktoreak, baina haurraren adinak eta ezaugarri




MIKEL ARROIABE

nahiz interesguneak garrantzi berezia daukate. Honenbestez, haurraren nahiak eta beharrak asetzen dituen jostailu egokia aukeratzen lagundu eta jostailu honi erabilera egoki bat emateko helduaren funtzioa ezinbestekoa da. Izan ere, egun ikaragarria da jostailuen merkatua eta honek dakarkigun eskaintza zabalaren barruan, haurrarengan arlo eta gaitasun desberdinak garatzen dituzten jostailuak ugariak dira. Horregatik, maiz horren ezezaguna dugun jostailuen merkatura gerturatu eta jostailu hauek ikuspuntu kritiko batetik aztertzea beharrezkoa da benetan haurraren interesak ondo bideratu eta hezi nahi dugun baloreetan hezteko.

**"Helduaren funtzioa ezinbestekoa da haurrari jostailu egokia aukeratzen laguntzeko eta jostailuari erabilera egokia emateko"**

**"Ez dago jostailu on edo txarrik; jostailuaren egokitasuna da emandako erabileraren araberakoa"**

Garbi daukagu, egungo merkatu zabal honetan, kasu berezi batzuk izan ezik, ez dagoela jostailu on edo txarrik, jostailuen egokitasuna ematen diogun erabileraren araberakoa baita. Hala eta guztiz ere, ugariak dira sexismoa eta indarkeria bultzatu eta erabilera egokirik ezin atera diezaiekegun jostailuak ere. Honen harira esan jostailuek ez dutela sexurik; beraz, zergatik egin neska eta mutilentzako jostailuen arteko bereizketa? Ze balore helarazten ari gara haurrari plastikozko pistola bat oparitzen diogunean? Hau eta beste milaka galdera dira jostailu baten aurrean bakarka nahiz haurrarekin batera erantzun beharrekoak.

Presa nagusi den garai hauetan, haurrarekin igarotzeko denborarik ez eta hutsune hori golpean erositako jostailu sortaz beteko dugula pentsatuz, haurrak jostailuz hornitzen ditugu eta maiz ahaztu egiten dugu jostailurik onena irudimena eta norbera direla. Horregatik, arropak bezala jostailuak ere erosi aurretik ikusi, frogatu eta nola ez jostailu horren bidez haurrarengan sustatzen ari garena aztertzeko gomendioa luzatzen diegu guztiei. Izan ere, ez dago mundu guztian haurrak eta helduak batera era xume eta kontzientean sortutako jostailu edo asmatutako jolasa baino gauza eder eta hezigarriagorik. Beraz, jolasak atseginez hezteko aukera ematen digula jakinik, zergatik ez dugu jolastuko?

*Maite San Vicente, Txatxilipurdiko Haurren Saileko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gabonetan solidarioago bihurtzen gara?

| | |
|---|---|
| BAI | %66,6 |
| EZ | %33,3 |

**> BAI**
Ez dakit solidarioago bihurtzen garen. Nik, esaterako, bidezko merkataritzako produktuak erosten ditut, halako azokak gehitu egiten dira-eta Gabonetan.
**Maria**

**> NI EZ**
Ni ez naiz solidarioago Gabonetan. Urtean zehar ere ez dut askorik egiten hirugarren munduarengatik eta Gabonetan ere ez. Hala eta guztiz ere, uste dut Gabonetan piztu egiten dela kontzientzia eta jendea solidarioago bihurtzen dela. Komunikabideek badute zeresana horretan, holako eta halako kausaren aldeko saio luze horietakoak egiten, esaterako.
**Xabier**

**> DENETARIK**
Denetarik egongo dela imajinatzen dut. Batzuk urte osoan barrena saiatuko dira besteen alde ahal dutena egiten eta, beste batzuek, berriz, sekula santan ez dute ezer egingo. Esan bezala, denetarik dago.
**Marisol**

**DATORREN ASTEKOA: Nahikoa igo dute aurreerretiratuen pentsioa?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

amorratu eta mutilek ez dakite nola azaldu ez dela hori inor gizon egiten duena.

Errua hiruk bakarrik dute, eta izorratu, batez ere pertsona baten bizitza izorratu dute. Edo inozentzia, edo alaitasuna, edo halakoetan izorratzen dena. Hamabi urte baino ez ditu. Emakume izateagatik ze arriskutan bizi garen injustuki, azkarregi, merezi gabe... ulertu behar izan du. Ulertu? Ez. Ez dago egin diotena ulertzerik. Hiru gizon zirela esan du poliziak, eta bera bakarra, eta hamabi urte baino ez ditu. Injustizia? Erokeria? Matxismoa? Patriarkatua? Tortura. Indarrez sufriaraztea tortura baita. Berdin du komisarian, kalean edo zezen plazan. Tortura.

Orain amak beldur dira gure herrian. Ez dituzte euren alabak bakarrik utzi nahi, eta bada ama bat, bere txikiari zergatik hori egin dioten galdetzen diona bere buruari. Eta bada ume bat bortxatu dutena. Ziurrenez ez du kendu diotena inoiz berreskuratuko, eta ez dakit halakoetan kentzen dena zer den: bihotza, umetasuna, poza, bizitza zati bat... eta pentsatzen dut badirela emakume asko haren lekuan egoteko inolako gogorik eta asmorik izan ez arren, ume bati hori gertatu baino beraiei pasatzea hobe litzatekeela pentsatu dutenak.

Amorrua irentsi eta kalera harro joaten gara oraindik gure herriko emakumeok. Baina beldur gara. Berdin dio poliziak errumaniarrak izan direla esateak. Bertan ere badira halakoak. Denok gaude arriskuan, eta inpotentzia sentitzen dugu kalean bakarrik goazenean; hankatartean eskegita ezer ez izateak biktima potentzial bihurtzen gaituelako. Hamabi urteko neskatila batek ezer ulertu gabe jasan du guztia. Egindakoa egindа dago, eta inork ez daki benetan, ziur, umeari nola lagundu. (...)

koplak

Eñaut Uriarte

## G puntuaren helmuga

Iraila erdixan hasi giñuan
Gipuzkoako txapelketa
konturatu barik gainian dago
bere helmuga edo meta.

Hirurogeita hemeretzi giñan
zenbaki haundi xamarra
bertsolaritzak badauka oraindik
Gipuzkoa aldian indarra.

Esan daiteke hau izan dala
txapeleketarik onena
hau da nire ustez entzule finak
zinez merezi dabena.

Mendiluze, Martin, Maia, Irazu
Gaztelumendi, Agirre
ia be berriz Zubeldiarekin
danok egitten dogun barre.

Asko erre gaittu saio batzutan
puntuaziñuen temak
beraz ba Ilunben onena bedi
txapela jantzen dabenak.

Ez neuke nahi nik han egoterik
deabruakin paktua
domeka hontan topauko al dau
txapeldunak G puntua?

# 18/98koen atxiloketak

**Inazio Azkarragaurizar**
(Bergarako Udaleko enpresa komitea)
Bergara

Pasa den zapatuan, 18/98ko beste prozesatuekin batera, Bergarako Udaleko langilea den Xabier Arregi Imaz atxilotu zuten.

18/98 auzia bidegabekeria ikaragarria iruditzen zaigu. Auzi honek aldez aurretik Gobernutik idatziriko gidoi bati jarraitu dio.

Epaituek ez dute inongo aukerarik izan salaketei aurre egiteko eta beren burua defendatu ahal izateko. Garbi dago epaiketa osoa parodia hutsa izan dela.

Gainera, sententzia plazaratu aurretik prozesatu gehienak atxilotzeak oso argi adierazten du Gobernuari ez zaiola axola gutxienezko itxura gordetzea. 18/98 auziak, Alderdien Legeak eta antzeko erabakiek ideien kriminalizazioa eta askatasun demokratikoen galera eta gatazka gainditzeko oztopo gehiago ezartzen dituzte.

Zentzugabekeria honen aurrean eta momentu latz hauetan, Xabierri eta operazio honetan atxilotutako guztiei, Udal langileen babesa eta elkartasuna helarazi nahi dizkiegu.

Halaber, gure lankide eta atxilotu guztien behin betiko etxeratzea eskatzen dugu. Gure gogoa eta desioa gatazka egoera hau denon artean lehenbailehen gainditzea da. Horretarako, burututako atxiloketen aurka, 18/98 lantaldeak bultza ditzakeen ekimenekin bat egiten dugu.

# Azoka bat baino askoz gehixau

**Alberto Telleria** > Elgeta

Asteburuurako plana; juergatxua; aspaldi ikusi bako jentia agurtzia; poteua; norbaittekin bazkariren bat; kontzertuak entzutia; Ruper; Urdangarin; Ken 7; bideoklipak; DVDak zuzeneko emanaldixekin; gustuen inguruan akneak eta alopeziak markatzen daben muga normal eta naturala; Goienkalen, Artekalen eta Barrenkalen zihar arpegi ezagunen billa ibiltzia; liburuak; egille eta eroslien elkargunia; Eizagirre; Serrano; Sagastizabal; Jaio; siñadura batzia; irakurzaletasuna; militantzia; girotxua; Iparraldeko "aparteko" literaturia aparte sustatu eta ezagutzera emon biharra; nostalgia; gora Gu eta Gutarrak; marketiña; sinbolua; jendetzia, zenbaittendako arrabixagarri, eta beste zenbaittendako onuragarri; merkatua; zenbait enpresen megadendia; diru-sarreren ustiapen-kontua urtian azkenian gehitzeko modu garrantzitsua; salduenen zerrenda sinisgatxak; zelan ez, prentsaurreko baikorrak jentiak emondako erantzunaren inguruan (erantzuna ez dakit jente kopuruaren ingurukua dan ala bertan jente horrek lagatako diruaren ingurukua); kulturaren helburu komertziala *vs* herri kultura… Durango, beti Durango.

# Inpotentzia

**Galder Axpe**
Arrasate

Lau euskaldun, lau adiskide, lau odol-anaia, lau parranda zale, lau bizizale, guztiok bizi gogoz eta mila ilusioz. Lau egun eta gautan, ilusioak desilusio bihurtu zitzaizkigun; inpotentzia eta barneko sentimendu txarrenak piztu zizkiguten. Lau lagunok, Puerto Rico (AEB) bisitatzeko asmoarekin, azaroaren 28an abiatu ginen. Bertan senide baten ezkontza geneukan, gureak bisitatu eta ondo pasatzeko asmoarekin joan ginen; dena pikutara.

San Juan de Puerto Rico kapitalean hegazkinetik jaitsiaz batera, polizia-kontrol zorrotz batek hegazkinetik jaisten genbiltzan guztiok gelditu gintuen, antza, itxaroten geneuzkan. Edozein atzerritarrek egin beharreko immigrazio protokoloa airean pasatu genuen zortzi edo hamar poliziaz inguraturik. Ondoren, immigrazio bulegoetara pasatu gintuzten, harriturik oraindik, ez genekien zer zetorkigun gainera. Immigrazio bulegoetan denbora pasa ahala, beste polizi klase bat azaltzen hasi zen. Dozena bat agente kalekoz jantziak. Batzuk FBIkoak ziren, gero identifikatu zitzaizkigun bezala. Galdeketak hasi ziren, bakarka, noski, bakoitzari bi agente tokatu zitzaizkigun eta orduan konturatu ginen zer gertatzen ari zen.

Beraien esanetan aurrekariak geneuzkan eta lista bereziren bat ere aipatu zuten –beraiena diot nik–. Galdeketak luzatu ahala ezkontza batera gindoazen lau lehengusu besterik ez ginela konturatu ziren; hau da, ez ginela beraiek uste edo nahi zutena. Gure ilusio guztiak pikutara bidali zizkigutela konturatu ziren. Epaia eman ziguten: "Ez zarete AEBetan sartuko, AEBetan aurrekariak dituen inor ez baita sartzen".

Hau dena beraien legeren baten arabera. A ze paradoxa! Hemen eta munduko beste herrialdeetan aske ibiltzeko inongo debekurik ez izan arren, AEBetan ezin gaitezke sartu.

Epaiaren azalpena ostegun goizalderako eman ziguten, nolabait epaiketa moral edo etiko bat izan genuen polizi batzuen menpe. Asteazken gaua, hurrengo goizaldera arte, zelda berezi zabal batean pasa genuen eta aireportuan bertan, fitxa poliziala, katxeoak, argazkiak, hatz markak eta galdeketak jasan genituen. Epaiak hurrengo hegazkinean bueltatuak izan behar ginela zioen –gurea suertea gurea!–, hurrengo hegazkina zapatu arratsaldean geneukan, eta orain?

Zapatura arte immigrazio zentro batean pasa behar genuela esan ziguten, horrek suposatzen zuenarekin: eskuburdinak jarri, eta aireportutik polizi furgoi baten ordubeteko bidaia egin ostean, immigrazio zentro horretan aurkitu ginen. Berriz katxeoak, fitxa, hatz markak, argazkiak etab. Gure sorpresa handiena heltzear zegoen: traje laranja. Guantanamo zetorkigun burura, hamasei litera zituen zelda batean, traje laranja eta guzti, gu eta beraien herrialdera bueltatu behar zituzten dozena bat dominikarrekin. Argia gau eta egun, hotza (bai Puerto Ricon hotza!), aire egokitua topera, zapatu goizaldera arte manta bat gainean genuela ibili behar izan genuen, beste 48 ordu gehiago kalbario berezi hartan. Ostiral goizean gurekin zeuden dominikar guztiak bidali zituzten eta bakarrik geratu ginen.

Txarrenetik onena, momentu oro, laurok batera egon garela da, baita *segurata* xelebre haiek *ondo* tratatu gintuztela. Baina guk gureak gogoratzen genituen, haiek ezjakintasunarekin okerrago pasatzen ariko ziren, bai hemengo bai Puerto Ricoko senideak, hau paradoxa, sei mila kilometro egin genituen beraiek bisitatzeko eta bisitatuak gu izan ginen.

Ostiral goizaldean hogei minutuko bisita eta eguerdi partean hamabost minutuko beste bat izan genituen –a ze antzerkia gu laranjaz jantzita!–. Bertako senideek ahal zuten guztia egin zuten, enbaxadara deitu, abokatuak bilatu, baina alferrik, ezin izan zuten ezer gehiagorik egin, ezin ginen AEBetan sartu eta kito! Eskertzekoak dira gure senideen lana eta gugan jarri duten fede guztia. Besarkada handi bat guztiei. Orduak pasa eta pasa, zapatua heldu zen, hemendik aurrera hobetu zitzaizkigun gauzak, bueltan gentozen, etxera. Arratsaldeko zazpietan hegazkinean sartu gintuzten, oraingo honetan esku-burdinarik barik, gure kalbarioaren amaiera. Lau egun hotzez, urduritasunez, gosez eta ezjakintasunaren beldurrez pasatu ondoren azkenean etxera.

Hala eta guztiz ere, guk txoriak txori, loreak lore eta mendiak mendi maitatzen jarraituko ditugu.

# Herriak du hitza

**Iñigo Iñurrategi eta Jose Etxeberria**
(Aralarreko zinegotziak)
Debagoiena

Egun, demokrazia ahoz aho dabilen hitza da. Edozertarako balio du, jatorrian asmatu zen horretarako izan ezik. Herria eta boterea; herriak, gizarte antolatu gisa, erabakitzeko ahalmena; kontzeptu hori guztiz galbideratuta dago. Ordezkaritzan oinarritzen den sistema honetan, lau urtean behin aukeratutako ordezkariek, gizarteari kontsultatu gabe, edozein erabaki hartzeko eskubidea daukate. Ez dira ordezkari delegatuak, mandatariak baizik, eta jokamolde horren barruan denak balio du. Testuinguru honetan, AHT proiektuaren aurka gaudenok, gure mandatarien ahotik harrokeriaz beteta dauden esaldiak entzun behar ditugu. Adibidez, euskal gizartearen %80 Euskal Y proiektuaren alde dagoela, hori baita, parlamentuan proiektu honen aldeko eta kontrako alderdien artean dagoen koerlazioa. Bide beretik Bildarraitz jaunak, Eudeleko presidenteak, esandakoak: "Proiektua defendatzen duten udalerriek ia milioi bat biztanle suposatzen dute; aitzitik aurka daudenak 80.000–100.000 bitarteko populazioa ordezkatzen dute".

Badirudi AHTren alde dauden alderdiei bozka eman zieten hiritar guztiak, hein berean proiektu horren alde daudela. Ahaztu gabe bozka eman ez zutenak, azken hauteskundeetan kopuru nabarmena izan zirela.

Baina harrigarriena, Bildarraitz jaunak egiten duen ordezkaritza demokratikoaren interpretazioa da. Alegia, gehiengoz edo gutxiengoz gobernatzen duten aintzat hartu gabe, proiektuaren aldeko udal-gobernua duten udalak, AHT babesten duten herri eta hiriak direla. Gainontzeko alderdiak aintzat hartu gabe, jakinik, nahiz eta gobernatu ez, batzutan gehiengoa dutela. Benetan larritzekoa gure mandatari batzuek demokraziaz egiten duten interpretazio partikularra.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko hiritarrei, urteetan instituzioetatik porlan eta errepideen aldeko politikak pairatu dituztenei, bere eguneroko bidaiak egiteko zaharkituta dauden trenbide azpiegiturak erabiltzera, edo errepideetan barrena ibilgailu partikularra erabiltzera kondenatuak izan diren herritarrei mezu bat bidali nahi diegu: Bai, trenaren alde gaude, eskualdeak, gure orografia errespetatuz, lotzen duen trenaren alde. Herriak batuko dituen trenari, garraioak eta pertsonak uztartuko dituen trenari, errepideari benetako alternatiba behar lukeen trenari esaten diogu Bai. Ez, Abiadura Handiko Trenaren kontra gaude, gutxiengo batentzako egindako tren elitista bat delako, hiriak baino lotuko ez dituena, eta garraio arazoak daudenean utzi edo larriagotuko dituenari. Datorren larunbatean, Arrasaten, gure mandatari politikoak mezu hau ozen entzun behar dute.

# Herren gaude

**Luis Mari Alberdi**
(Osintxuko herri batzarra)
Bergara

18/98 Sumarioak Euskal Herri osoa astindu du. Atxilotuen senitartekoak eta lagunak zer esanik ez. Gu ere modu berezian ukitu gaitu; izan ere, atxilotuetako bat, Txapi, gure auzo-laguna da. Eta ez edonolakoa, gainera!

Orain dela urte eta erdi etorri zen gure artean bizi izatera, eta iritsi bezain laster buru-belarri murgildu zen herriaren aldeko eginbeharretan. Bere ideia eta ekarpenak ezinbestekoak izan dira lantaldean, langile fina eta nekaezina, lan bat burutu orduko beste batekin jo eta ke. Polizia atzetik zeukala jakin zuenean ere, bere esku zeuden hainbat gai kolokan ez utzi nahi, eta bere askatasuneko azken ordu batzuk lantaldeko kideei gaiak zertan zeuden azaltzen eman zituen. Horrelakoa da Txapi.

Orain, bidegabekeria hau medio, Txapi eraman digute. Guretzako langile eta lankide paregabea, eta lantaldea, nola ez, herren geratu da. Baina lanean jarraituko dugu, berak ez luke gutxiago esperoko.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**




# ZAINDU ZAITEZ BIHARKO.

## (DIRUA DAGOENEKO BERMATUTA DAUKAZU).

Sasoi betean sar zaitez biharko egunean, zure dirua bezain sasoitsu. **Kutxa Aurreikuspen Plan Bermatu**ekin, nekerik gabe aurreztuko duzu, eta errentagarritasun itxurosoa, hainbat abantaila fiskal eta, batez ere, diru-kezkarik gabeko etorkizuna gozatuko dituzu.

bermatuak

Kutxa Aurreikuspen Plan

Etorkizuna ziur.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Kutxa Aurreikuspen-Planak, Kutxa eta Kutxa Bi BGAEri atxikita daude.


ARETXABALETA
ERDI-ERDIAN
Cerrajera Valle de Leniz
bizitegia
ORTUIBAR S.L.
Ibargarai 18, behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 11 18
ORTUZAL S.L.
Errekabarren 20, behea
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 40 00
copyright © 2007 www.arquimedia.net

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



**> BERGARA**
GI-627 errepidea hobetzen 1,8 milioi euro inbertituko du Diputazioak **> 25**



**> ARETXABALETA**
Hiruatxek Ekuatore Gineako proiektua azalduko du eguaztenean **> 32**



**> ESKORIATZA**
*Eskoriatza irudita*n liburua: mende bateko historia argazkitan **> 34**



**LEINTZ GATZAGA**
Olentzero eta zuhaitza jarriko dituzte elizpean, domekan **> 39**

**BERGARA** > LAGUNARTEKO OSPAKIZUNEN SASOIA IBARREAN

# Aspanovasen eskutik haur festa bihar Bergaran, minbiziari aurre eginez

**INTEGRAZIOA**
Hau minbizidunen eta minbizirik ez dutenen arteko harremanak bultzatzea da asmoa

**TXIKIENDAKO FESTA**
Haur festa Udal Pilotalekuan ospatuko da: 16:30etik 19:30era

**GIPUZKOA OSOTIK**
Probintzia osoko ume eta gurasoak batuko dira Bergaran



**JAIA** Haurrei zuzendutako ekitaldiak izango dira zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan. Minbiziari modu naturalean aurre egitea da helburuetako bat. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak, Aspanovasek, haur festa iragarri du biharko, zapatua, Bergaran. Nekane Lekuona Aspanovaseko gizarte laguntzailearen hitzetan, "haur minbizidunen eta ez minbizidunen arteko harremanak bultzatzea da helburua. Aldi berean, gure elkarteko haurrei zein Bergarako gaztetxoei une entretenigarriez gozatzeko aukera eman nahi diegu zapatuko jardunaldian".

**FESTA UDAL PILOTALEKUAN**
Haur festa, esan bezala, Bergarako Udal Pilotalekuan ospatuko da: 16:30etik 19:30era hainbat ekitaldi egingo dituzte: haurrendako tailerrak izango dira Jardun euskara elkartearen eskutik, 17:30ean Eriz magoak emanaldia egingo du, jarraian jolasean eta kantuan arituko dira partaideak eta, azkenik, 19:00etan Aspanovas elkarteak antolatutako IX. Gabonetako postal lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute. Festari bukaera emateko merienda eskainiko da eta Gabonetako hainbat abesti eskainiko dituzte neska-mutikoek.

Gipuzkoa osoko ume eta gurasoak batuko dira zapatuan Udal Pilotalekuan. Gaur egun 87 familia daude Aspanovas elkartean, tartean Debagoieneko zazpi. Nekane Lekuonak azpimarratzen duen moduan, "minbiziaz modu naturalean berba egin nahi dugu eta poliki-poliki gai honekiko sentsibilizazioa piztea da gure asmoa. Horretarako Gipuzkoako bailara ezberdinetan ekintza ezberdinak antolatzen jarraituko dugu. Dramatismo apur bat kendu nahi diogu haurren minbiziaren gaiari, azken baten, medikuntza mailan emandako aurrerapenei esker minbizia jasaten duten haurren %75 sendatu egiten da gaur. Itxaropentsu egoteko moduko datua da. Zapatuko moduko jaiak oso baliagarriak dira guztiontzat".

**ATEAK ZABALIK ASPANOVASEK**
Haur minbizidunen integrazioa bultzatzearekin batera, elkarte bera ibarrean ezagutzera eman nahi dute biharko jaiarekin. Aspanovasek arreta integrala eskaintzen die horrelako kasuren bat jasan behar izaten duten familiei. Halako arazoren bat duten ia ehuneko ehun elkarteko kide dira. Gurasoek beraiek sortutako elkartea da eta, besteak beste, laguntza psikologikoa eta terapia taldeak eskaintzen ditu.

Elkartearekin boluntario talde bat ari da elkarlanean. Aspanovasekin hartu-emana izateko interesa dutenek haien webgunera jo dezakete: *www.aspanovasgipuzkoa.org*.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 14 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Zapatua, 15 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 16 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 17 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 18 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 19 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 20 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 14 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Zapatua, 15 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 16 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 17 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 18 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 19 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 20 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 14 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 15 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 16 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 17 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 18 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 19 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 20 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 14 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 15 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 16 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



### Zapatua, 15

Zapatua eguzkitsua izango da barnealdean, tenperatura minimo oso hotzekin eta maximo nahiko freskoekin; goizean hainbat lekutako bazterrak izotzarekin agertuko dira.



### Domeka, 16

Tenperatura hotzekin jarraituko dugu domekan, haizea zertxobait epelagoa izango delarik eguerdi partetik aurrera batez ere.

## EUSKAL HERRIAN

Kantauri isurialdeko zenbait lekutan tarteka itsasotik etorritako behe-hodeiak agertuko dira, zerua goibelduz. Horrek minimoak aurreko egunetan baino epelago mantenduko ditu. Tenperatura maximoak, bai barnealdean bai iparraldean, gradu pare bat jaitsiko dira.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena, 5 — **4 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 8 — **14 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **76,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 5 | 16 ºC | 4 ºC | 0,1 l/m² |
| Eguena, 6 | 16 ºC | 6 ºC | - l/m² |
| Egubakoitza, 7 | 12 ºC | 5 ºC | 14,8 l/m² |
| Zapatua, 8 | 14 ºC | 7 ºC | 10,1 l/m² |
| Domeka, 9 | 12 ºC | 8 ºC | 23,6 l/m² |
| Astelehena, 10 | 11 ºC | 8 ºC | 27,9 l/m² |
| Martitzena, 11 | 9 ºC | 6 ºC | 0,3 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA ABENDUAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **1** | **9** | **17** | **24** |

# oharrak eta deialdiak

OÑATI

**> Argentinarako Elkartasun Taldeak ez du materialik jasoko**

Urtarrilera bitarteko etenaldia egitea erabaki du taldeak, Bidebarrietako lokalean material asko pilatu zaie-eta. Hortaz, datozen asteotan ez dute material gehiagorik batuko. Bestalde, lokal aurrean duten edukiontzi zuria ere itxi egingo dute. Taldeak jakinarazi duenez, etenaldi hori aprobetxatuko dute urtarrilean Argentinara bidaliko duten kontainerra prestatzeko.

ARRASATE

**> Harreman elkarteak azoka zabaldu du, aurten, Iturriotzen**

Abenduaren 24ra arte egongo da zabalik eta batutako dirua bidezko merkataritzarako erabiliko dute. Kokapen berria du aurten azokak, Iturriotz kaleko 3. zenbakian, hain justu ere. Denda egunero egongo da zabalik: lanegunetan, 18.00-20:00 ordutegian eta jaiegunetan, 12:00-14:00 ordutegian.

BERGARA

**> Taila eskolak Batzar Orokorra deitu du hilaren 18rako**

Taila eskolak urteko batzarra egingo du hilaren 18an, martitzena. Lehenengo deialdia 18:30ean da, eta bigarrena, berriz, 19:00etan.

OÑATI

**> Benito Lertxundiren emanaldirako sarrerak salgai daude**

Orioko abeslariak hilaren 22an egingo duen emanaldirako sarrerak salgai jarri dituztela eman du aditzera Udaleko Kultura Zerbitzuak. Sarrerok kultura etxean daude salgai, 10 eurotan (leihatilan 12 euro). Kultura etxeko ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00 eta 16:30-20:30.

OÑATI

**> Zubikoako aparkalekuitxietarako eskariak 27ra arte egin daitezke**

Kiroldegia handitzeko lanen barruan, lur azpian eraikitako garajeetatik 13 itxiak dira. Herri jabetzako lurretan jasotako eraikinak direnez, ezin dira saldu; hortaz, Udalak 50 urterako esleitzea erabaki du. Horretarako, herrian erroldatuta egon behar du azken urtebetean eta turismo baten jabe izan behar du.

ARRASATE

**> Zahar Berrik antolatu duen afarirako izenematea zabalik dago**

Udal Euskaltegiarekin eta AEKrekin batera antolatu du, abenduaren 14rako, Uarkapen. Izenematea edo informazio gehiago 943 77 12 28 zenbakian.

ARRASATE

**> Ezkontza zibilerako izenematea BAZen egingo da aurrerantzean**

Ezkontza eguna kontuan hartuta, gehienez 12 hilabeteko aurrerapenarekin egin ahal izango dira eskaerak. Horretarako, aurkeztu beharko dira ezkontideen eta lekukoen nortasun agiriak. Bestalde, BAZetik gogorarazi dute ezkontza espedientea Erregistro Zibilean, Bake Epaitegian, tramitatu behar dela.

DEBAGOIENA

**> Baserri ingurunean sortutako plastikoa martitzenean, hilaren 18an, batuko dute**

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak ematen duen zerbitzua da eta batik bat siloa estaltzeko, belar bolak egiteko eta berotegietan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza batuko dute. Arratsaldez laga behar da plastikoa, ohiko batze-puntuetan. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero deitu 943 76 25 47 zenbakira.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

BERGARA

**> 1983ko kintoek bazkaria egingo dute**

Abenduaren 22an egingo dute, Tartufon. Izena emateko azken eguna da abenduaren 14a, Euskadiko Kutxan (3035 0009 1400 90081141) edo 630 40 62 89 zenbakira deituta.

BERGARA

**> Jardun euskara elkarteak koordinatzailea behar du**

Berriketan proiekturako eta haurren euskara errefortzuetarako koordinatzailea behar ditu. Zortzi orduko jarduna da. Beharrezkoak dira euskaraz jakitea eta harremanetarako erraztasuna izatea. Interesatuek bidali curriculuma Jardun elkartera (Errotalde jauregia, z/g, 20570 Bergara), hilaren 23a baino lehen. Argibide gehiago: 943 76 36 61.

DEBAGOIENA

**> Txikilandiarako begiraleak behar ditu Txatxilipurdi elkarteak**

Urtarrilaren 2tik 5era ospatuko da Txikilandia Arrasaten, eta harako dei egin du Txatxilipurdi elkarteak. Interesatuek izena eman dezakete Txatxilipurdin. 18 urtetik gora izanez gero, bidali edo eraman curriculuma eta argazkia elkartera (Pablo Uranga 4). Informazio gehiago 943 79 54 46 zenbakian.

**kale inkesta**

# Santo Tomas eguna ospatzeko ohiturarik badaukazu?



**Eduardo San Juan**
Erretiratua
Bergara

Beste urte batzuetan Arrasate eta baita Donostian izandakoa naiz. Aurten Arrasateko Santamasetara bakarrik joango naiz, Donostiako Santomasak aste barruan direlako eta ezin dudalako joan.



**Mila Berriotxoa**
Langilea
Bergara

Ez ditut ospatzen. Orain dela 15 urte inguru ospatzen nituen. Aurten, baina, goizean aterako naiz, eta tabernaren baten pintxo eta ardo batzuk hartuz ospatuko dut Santo Tomas eguna.



**Julen Alberdi**
Langilea
Bergara

Ez dut ospatzen. Aspaldi eskolan genbiltzanean bai, baina joan zaigu garai hori, nahiz eta Arrasaten egona naizen. Etxean norbaitek txistorra goxoa prestatzen baldin badu jango dut, noski.



**Covadonga Diez**
Langilea
Bergara

Ez daukat egun hori ospatzeko ohiturarik. Gainera egun horretan lana egin behar dut. Hala eta guztiz ere, zapatu gauean Santamasak ospatzeko lagunekin joango gara afaltzera.



**Begoña Lasagabaster**
Langilea
Arrasate

Arrasatekoa naiz eta noski ospatzen dudala. Goizean goiz ateratzen naiz eta umeekin azoka ikusten dut, asko gustatzen baitzait. Gainera, talo eta txistorra batzuk ere jaten ditugu, oso goxoak dira.

**txistuak**



GOIENKARIA

# San Lorentzo kalean espaloia falta da

Bergarako San Lorentzo kaleko auzokide batek espaloi falta salatu nahi du. Etxe zahar bat bota dute, eta ez dute espaloirik ipini bertatik pasatzen diren oinezkoentzat, eta arriskua nahiko handia da, autoak alde bietara pasatzen baitira eta askotan abiadura handian. Horregatik bertako lanek iraun bitartean pasabidea ipintzea eskatzen du auzotar honek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**asteko datua**

# 5.104

Diputazioak, urte honetan nazioarteko sariak jaso dituzten hainbat gaztagile omendu ditu. Horien artean, Oñatiko Gomiztegi Kooperatiba Elkartea. Elkarte honetan, 2.007. urtean 5.104 gazta egin dituzte.

**usteak uste**

**Iker Barandiaran**

# Argudio faltan, azpijokotan

Askotan pentsatu dut Euskal Herrian eta Espainian hainbat erakunde eta bestelakoek ETAren existentziari probetxu handia ateratzen diotela. Hau da, problema hori baliatzen dutela beste gauza asko ezkutatzeko eta salagarriak diren beste asko egiten jarraitzeko.

Eta testuinguru antzekoan kokatzen dut AHTren proiektuaren kontra dauden hainbat talderi egiten diharduten kriminalizazio saiakera. Jaurlaritzak jakin badaki tren horren gaineko informazio urria zabaldu ahala, gero eta jende gehiago izango duela kontra. Dagoeneko alderdi, sindikatu eta herritar asko dabiltza ahotsa altxatzen, eta hori zelanbait geldiarazi gura dute.

Nonbaitetik filtratu edo asmatu dute (zeinek daki!) ETAk AHTren kontra egiteko asmoa duela. Ez dakit hala izango den edo ez, baina horrek ez luke proiektuaren aldeko jarrerarik piztu beharko. Eta are gutxiago, proiektuen onurak *saltzeko* argudio ezean badaude, ez da bidezkoa aurkariak ahultzeko halako joko zikinetan ibiltzea. Esan eta esan dabiltza herri gehiengoa AHTren alde dagoela. Egin dezatela galdeketa. Ez du hori eskatzen ba Ibarretxek?

**5 galdera...**

# Juan Moreno

Taxi-gidaria
Bergara

**1. Taxientzako telefono bakarra abenduaren 3an jarri zen martxan Gipuzkoan. Zer iruditzen zaizu eta zertan datza?**

Ondo iruditzen zait sistema berri hau. Oraindik ere berria da, eta ez dakigu nolako erantzuna izango duen. 943 40 05 00 telefono zenbakiarekin lortu nahi dena, erabiltzaileari zerbitzu hobeagoa eskaintzea da. Askotan herrian taxirik ez baldin badago denbora asko itxaron behar da eta. Sistema berri honekin berriz, telefono honetara deitu eta inguruko herrietako taxiak egiten dute zerbitzua.

**2. Jendea dagoieneko hasi da zerbitzu berri hau erabiltzen?**

Oraindik ere dei gutxi jaso ditugu telefono berri honetara. Denbora gutxi pasa da martxan jarri dutenetik, gainera publizitatea egin behar zaio eta oraindik ere denbora behar du.

**3. Zerbitzua, egunean 24 ordu eta urtean 365 egunekoa izango da. Zeintzuk dira egoera honen alde onak eta txarrak?**

Alde on bezala esan dezakegu ez dizula inork behartzen 24 orduak zerbitzu honi begira egotera. Alde txar bezala, esan, oraindik ere ez dakigula oso ondo nola funtzionatzen duen zerbitzu honek bere osotasunean, eta ezta jendearen erantzuna nolakoa izango den ere.

**4. Gaur egun 379 taxigidari daude lizentzia dute Gipuzkoako 44 udalerrietan, hauetatik 167 sartuko dira sistema honen barruan. Eta beste guztiak?**

Beldurra diogu berria den guztiari. Bakoitzak bere negozioa dauka honezkero, bere bezeroekin. Lankideek ikusten badute gauza ondo doala sartuko dira sistema berri honetan.

**5. Erabiltzaileak 20 zentimo ordainduko ditu eskatutako zerbitzu bakoitzeko. Zergatik?**

Ez da horrela. Hasieran hau esan zen, baina guk zerbitzuak balio duena ordainduko dugu.



**KONTSUMOA** > UDALAREN EKIMENA

# Arduratsu kontsumitzeko deia egin du Udalak

## Datorren asterako egin dute hitzordua, eguaztenean eta eguenean, Seber Altube plazan, 17:00etan hasi eta 20:00ak bitartean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gabon garaian gauden honetan, kontsumo gehiegikeria gertatzen da gehienon artean. Bada, errealitate horren gaineko hausnarketa bultzatu gura du Arrasateko Udalak: "Herritarrok kontsumoaren eraginari buruzko hausnarketa eragitea da helburua. Baliabide naturalen kontsumoa, plastiko eta paperen kontsumoa, alferrikako opariak, gehiegizko afariak, energiaren kontsumoa" eta halakoen gainekoa. Labur esanda, kontsumo arduratsua bultzatu gura du Udalak.

Eta kontzientziazio hori bultzatzeko, hainbat ekintza antolatzea onartu du oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrak. Ekintza horiek egingo dituzte datorren astean, eguaztenean eta eguenean, hain justu, arratsalde partean, bostetan hasi eta zortziak bitartean. Hitzordu hori egin dute Seber Altube plazan.

**'BIRZIKLATUTAKO' ZUHAITZA**

Honako jarduerak egingo dituzte: Gabonetako zuhaitz berezi bat ipiniko dute; izan ere, egurrezko enbor bat jantziko dute birziklatutako elementuekin, etxetik ekarritako materialarekin. Ekimen horretan parte hartzen dutenen artean eta materiala eramaten dutenen artean erosketak egiteko oihalezko poltsak banatuko dituzte. Halaber, etxeetako zuhaitzak apaintzeko aholkuekin orritxo bat ere banatuko dute.

Horrekin batera, merkataritza alternatiboaren gaineko informazioa banatuko dute eta baita produktu ekologikoak eta bertako produktuak ekoizten dituztenen gainekoa ere; Harreman eta Emaus elkarteek parte hartuko dute, besteak beste.

Bestalde, Ekologistak Martxan elkarteak kontsumoari buruzko erakusketa ipiniko du. Eta horrekin guztiarekin batera, bestelakoen artean, energia aurrezteko aholkuak eta Gabonetako erosketa eta kontsumoari buruzko aholkuak emango dituzte.

**EGITARAUA**

**> TAILERRA: ZUHAITZA**
Birziklatutako materialekin egurrezko enborra apainduko dute. Materiala etxetik eraman behar dute herritarek.

**> MERKATARITZA ALTERNATIBOA**
Bidezko merkataritza (Harreman), produktuen ekologikoak, bertakoak eta Emaus elkartearenak.

**> ERAKUSKETA**
Ekologistak Martxan elkarteak antolatuta.

**> INFORMAZIO ERABILGARRIA**
Produktuen konponketak, berrerabilpena, energia aurrezteko aholkuak...

**> IRADOKIZUNAK**
Herritarren aholkuak batuko dituzte, besteak beste.



**ESKOLAN** Erguingo ikastetxean sinatu zuten hitzarmena. ARRITXU BARRUSO

**INGURUMENA**> AGENDA 21

# Ikastetxe guztiak sartu dira Agenda 21 proiektuan

## Arrasate Herri Eskolako ordezkariek astelehenean sinatu zuten hitzarmena

**U.M.** > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Hezkuntza Sailak, Arrasateko Udalak eta Arrasate Herri Eskolako zentroko zuzendariak sinatu zuten Agenda 21 hitzarmena.

**KONTSUMOA AZTERTZEN**

Arrasaten, 2003-2004 ikasturtean hasi ziren Agenda 21 proiektua lantzen, Arizmendi ikastolarekin eta Mesedeetako Andre Mari ikastetxearekin. Gero, hurrengo ikasturtean Arrasateko Institutuak bat egin zuen ekimen horrekin. Asteleheneko hitzarmen horrekin, aurrerantzean Arrasateko ikastetxe guztiek parte hartuko dute proiektuan.

Aurtengo ikasturtean kontsumoaren gaia lantzen dabiltza Arrasateko ikastetxe guztietan.

# Mahai-joko txapelketako sari banaketa

Astelehenean banatu zituzten Abaroa erretiratuen elkartean jokatutako mahai-jokoetako sariak. Mus, tute eta briska txapelketak jokatu zituzten. Musean, Amando Redondok eta Luis Blancok irabazi zuten; tutean, Felipe Conejok eta Juan Francisco Tristanek (argazkian). Eta briskan, Eufrasia Villarrek eta Agustina Gartziak. Bestalde, atzo, eguena, Santa Lutzia ospatu zuten.



MONDRABERRI

> POLITIKA

### Presoen aldeko azokan iaz baino aukera handiagoa

Bigarren eskuko jantzien azoka egingo dute asteburuan, Portaloira Topaguneak antolatuta. 11:00etatik 20:00ak bitartean denetarik izango da, Seber Altuben: "Iaz baino merkeago, gainera, prezioak merkatu egin ditugu-eta", adierazi dute Topagunetik. Horrekin batera, azpimarratu dute aurten adin tarte guztiendako jantziak batu dituztela: "Iaz gehienak ziren gazteendako eta emakumeendako eta aurten, berriz, pertsona nagusiendako jantzi asko dago, adibidez". Bestalde, presoen eskubideak aldarrikatuko dituzte.

> BIRZIKLAPENA

### Txatxilipurdik 80 jostailu inguru batu ditu azokarako

Bigarren eskuko jostailuak trukatzeko azoka egingo dute bihar eta etzi (zapatuan eta domekan) Okendoko ludotekan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Txatxilipurdi elkarteak 80 jostailu inguru eskuratu ditu azokarako: "Patinak, bizikletak, era guztietako jolasak, puzzleak... Denetarik dago".

Horrez gainera, Txatxilipurdi elkartetik gaineratu dute adin tarteari dagokionez 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako jostailuak izango direla azokan.

PUB HAIZEA

arrasate

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta
arrasate
beinke

EXPRES
Ogitartekoak
Errazioak
Pintxoak
Maalako Errabala 8
Arrasate
Tel.: 943 79 85 14

**GAZTETXOAK** > INGURUMEN SAILAREN ESKUTIK

# Kromo trukatze eguna ipini du Udalak, kromo truke dinamika sortzeko

Helburua da hasiera batean Arrasateko Udalak bultzatzea trukatze dinamika hori hainbat domekatan; lehen hitzordua da oraingo domekan

**UBANE MADERA**> <ARRASATE

Ekimen berezia abiarazi gura du Udalak: kromo trukatzea. Helburua hauxe da: gaztetxoen artean kromoak trukatzeko ohitura edo dinamika suspertzea.

**HAINBAT LEKUTAKO OHITURA**

Rafa Ugartek, Ingurumen Saileko udal teknikari-buruak, emandako azalpenen arabera, neska-mutikoen artean modan dagoen aisialdiko aktibitatea da hori, kromoen bildumak egitea. Hainbat motatakoak egiten dituztela esan du teknikariak: futbol liga, *Pressing Catch*, Disneyko printzesak, *High School Music 2* eta *The Simpsons* marrazki bizidunak, besteak beste. "Kromo mordoa izaten dituzte errepikatuta eta askok ez dute zeinekin trukatu, edo gelakideen artean-eta bakarrik trukatzen dituzte".

Gaineratu du Arrasaten ez bezala beste zenbait lekutan astean behin-edo elkartzen direla zaletasun hori dutenak, elkarren artean kromoak trukatzeko. "Gasteizen, adibidez, domeka eguerdian egiten dute Andre Mari Zuriaren plaza inguruan".

Bada, Udalak halako zerbait lortu gura du Arrasaten: gaztetxoen artean kromoak trukatzeko dinamika sortzea. Oraingoz, proposamena da abenduaren 16an egitea lehen truke eguna, 12:00etatik 13:00ak bitartean, Biteri plazan. Lehenengo deialdia izango da hori, baina Udalaren asmoa da dinamika sortzea. Hain justu ere, domeketan elkartzea proposatzen du Udalak, eguerdi parte horretan, eta ekimena bideratzeko Txatxilipurdi elkarteko begiraleek lagunduko dute hasieran, ohitura tinkotu arte.



GOIENKARIA

## Esker ona adierazi guran

Herritar batek esker ona adierazi gura dio Tiburon kioskoari, "osabaren ohitura jarraituz, Poyato eta Maiztegi ahizpek 250 bat familiari prentsa inolako kostu barik goizero etxera eramaten" dietelako; tartean berari, Roman Lopezi. "38 urte baino gehiago daramat doako zerbitzu hori eskuratzen, eta horregatik eskertu gura izan diet zerbitzua". Argazkian Rosa Mari Maiztegi ageri da, oparia jasotzen. Eta Tiburon kioskoaren zerbitzuaz gain, Lopezek gogora ekarri du, baita ere, beste jende asko dabilela musu-truk lanean: "Futbol entrenatzaileak, dantza taldeko monitoreak eta beste asko".

**AISIALDIA** > ERRALDOI TXIKIEN ERAKUSTALDIA

## Bihar, zapatua, Erraldoi Txikien Konpartsak entsegu berezia egingo du, Biteri plazan

Eguerdian da hitzordua; konpartsak entsegua egiteaz gainera, bi liburu ipiniko dituzte salgai, konpartsari buruzkoak

**U.M.** > ARRASATE

Erraldoi Txikien Konpartsako 20tik gora neska-mutikoak 12:00etan elkartuko dira Biteri plazan eta 14:00ak ingurutakođer jardungo dute, entseatzen: "Umeak eta gainera, konpartsan berriak direnez, baltsak-eta entseatuko dituzte", kontatu du Iñaki Arsuaga konpartsako kideak.

Hark kontatu du entsegu hori egiteaz gainera, bi liburu salgai ipiniko dituztela: "Konpartsaren gainekoak dira biak. Bata ume txikiendako, marrazteko liburua da eta bestea, irakurtzen dakiten umeendako. Hiru eurotan saldukoditugu, plazan bertan".

Eta horrekin batera, zera ere gaineratu du Arsuegik: "Eta guztia girotzeko, hamarretako moduan-edo, txistorra eta sagardoa banatuko ditugu".



**IAZ** Konpartsa txikia iaz sortu zen; argazkian, lehen kalejira. KONPARTSA

**ELKARTASUNA** > ZUBEROAKO IKASTOLEI LAGUNTZEKO

## Asteburuan eskura daitezke Zuberoako otarreak

Arrasate eta inguruan 340 otarre saldu dituzte; antolatzaileak oso pozik daude emaitzarekin

**U.M.** > ARRASATE

Zuberoako ikastolei laguntzeko dirua batzeko ekimena bideratu zuten joan den hilean Arrasaten, Gabonetarako otarren salmentaren bitartez.

Bada, otarreak erosteko epea bukatuta, ekimenaren bultzatzaileek jakinarazi dute oso pozik daudela lortutako erantzunarekin, 340 otarre saldu dituzte-eta Arrasate eta inguruan.

Orain, jakinarazi dute otarreak eskuratzeko Bedoña auzoko Iturralde baserritik pasa behar dela, bihar arratsaldean edo domekan, egun osoan.

Horrez gain, eskerrak eman gura dizkiete lagundu duten guztiei, bereziki EMUN, Euskadiko Kutxa eta Ulma Packaging fabrikako langileei. Eta baita ikastoletako ikasleen guraso eta irakasleei ere.

> IKASTAROAK

### Pinuaren gaixotasuna berbagai izango dute abenduaren 19an Garagartzako auzo-etxean

Mendikoi Fraisorok eta Udalak pinuaren gaixotasunaren gaineko hitzaldia antolatu dute: txankro erretxinadun gaixotasunaren gainekoa. Helburua da, besteak beste, horren sintomak atzematen ikastea. Baserritar, baso jabe, haztegietako arduradun eta, oro har, interesa duten guztiendako da hitzaldia. Hitzordua abenduaren 19an da, 18:00etan, Garagartzako auzo-etxean.

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



MENETA taberna

- Eguneroko menua
- Bokatak eta plater konbinatuak aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan sukaldea itxita

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

F. Rey eta M. Etxeberria > Itzultzaileak

# "Lehiaketa erakargarria da, Nobel saria jasotako lan bat itzultzea erronka handia da"

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE

**Astelehenean aurkeztu zuten, Kulturaten, AEDk eta Elkar argitaletxeak antolatutako XX. Jokin Zaitegi bekaren uzta: hain zuzen ere, Monika Etxeberriak eta Fernando Reyk euskaratutako Orham Pamuken *Lur (Elurra)*.**

**Zergatik hartu zenuten parte?**
Monika: Lehiaketa erakargarria da, Nobel saria jasotako idazle baten lana itzultzea ez delako nolanahiko erronka.
Fernando: Monika zirika hasi zitzaidan. Nik hasieran ez nuen asmorik, baina ez nion ezezko borobilik eman.

**Inoiz horrelakoetan saiatuta?**
M.: Biontzako, beste norbaitekin batera itzulpen lan bat egiten dugun lehenengo aldia da. Hala egitea erabaki genuen zer liburu mardula zen ikusita.
F.: Lehiaketaz ari bazara, bai. Literatura Unibertsala bildumaren lehiaketara aurkeztu izan gara. Literatura itzultzeko gogoa baduzu, lehiaketetan parte hartzea da atea.

**Gustura egin duzue lan?**
M.: Oro har, bai. Une txarrak eta krisiak izan ditugu, normala da, oso luzea delako, baina dagoeneko ahaztuak ditugu.
F.: Epe estua izatea bi ahoko ezpata da. Nahiago izango genuen patxada handiagoan egin, baina, bestetik, epe-mugarik ez badago, ez da inoiz bukatzen.

**Ze prozesu eraman duzue?**
F.: Hasteko, irakurri, lana banatu, zalantzak eta erabaki beharrekoak elkarrekin komentatu genituen. Egindakoa elkarri pasatu eta zuzenketak egin-da, lagun bati dena irakurtzeko eta zuzentzeko eman genion. Ondoren guk berriz zuzendu eta, azkenik, Xabier Mendigurenek egin zituen azken zuzenketak.


Fernando Rey eta Monika Etxeberria itzultzaileak. JON BEREZIBAR

**Gustatu zaizue liburua?**
M. eta F.: Bai, oso betea da.

**Ogibidez itzultzaileak zarete.**
M.: Nafarroako aldizkari ofizialean aritzen gara biak, eta, salbuespen batzuk kenduta, testu administratiboak itzultzen. Askotan esaten dugu itzulpen literarioa testu lehor horietatik ihes egiteko modua dela guretzat.

**Egin dituzuen beste lan batzuk?**
M.: Sartreren *Goragalea* eta Danilo Kisen *Hildakoen entziklopedia*.
F.:Azken urteetan Antonio Tabucchiren eta Gianni Celatiren lan batzuk. Lehenago beste batzuk: Natalia Ginzburg, Yasar Kemal, Bohumil Rhabal...

**DANTZA** > XI. BINAKAKO DANTZA SOLTE TXAPELKETA

# XI. binakako dantza solte txapelketa etzi

Santamas Komisiñuek antolatutako binakako solte txapelketa izango da domekan, 18:30ean, Herriko Plazan

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE

Datorren aste bukaeran Santamas jaia ospatuko da eta giroa berotzeko asmoarekin Komisiñuek antolatutako ekitaldien artean, etzi, domeka, 16 urte beherakoentzako XI. binakako dantza solte txapelketa izango da. Lau urteko etenaldiaren ostean, domekan jokatuko den XI. edizioan Gipuzkoako 13 dantzari bikotek hartuko dute.

Parte hartuko duten bikoteen artean, Bergarako Amaia Bolinagak eta Aritz Arrillagak osatutakoa dago; horrez gain, gehienak azpetiarrak diren arren, Lezo, Pasaia, Zaldibia, Lazkao eta Oriotik ere badatoz.

**BINA DANTZA**

Zozketak agindutako ordenan hasiko dira bikoteak 18:30ean dantzan. Herriko txistularien doinuekin, bikote bakoitzak bina dantza egingo ditu: arin-arin eta fandango bana. Ordubete pasako emanaldiaren ostean, epaimahaikideek irabazleen izenak emango dituzte.

Epaimahaikide lanetan lau kide izango dira: herriko dantza taldeko bi kide eta Euskal Dantzarien Biltzarreko beste bi.

**SARIAK**

Puntu gehien lortzen dituzten lau bikoteek jasoko dute saria: lehenengoa eskuratzen duenak txapela, zapia, bi plaka eta diru saria jasoko du; bigarren, hirugarren eta laugarren saridunek, berriz, bi garaikur eta diru saria eskuratuko dituzte.

Sariak banatutakoan, lehenengo sariaren irabazleak beste bi dantza egingo ditu. Txapelketa Santamas Komisiñuek antolatu du, Udalaren babesarekin.

> LITERATURA

### Bibliotekak antolatutako poesia irakurketa gaur

Poesia generoa guztiei hurbiltzeko asmoarekin antolatu dute bibliotekako arduradunek poesia irakurketa. Gaur izango da, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan, eta udaberrian argitaratutako poesia gidaren osagarria da. Hara joaten direnek aipatutako gomendio gida eskuratzeko aukera izango dute.

Angel Erro, Gerardo Markuleta, Eli Tolaretxipi eta Karmelo C. Iribarren poetek izango dute errezitatzeko ardura. Euskarazko eta gaztelerazko poesiak irakurriko dituzte, txandaka. Bakoitzak hamabost minutuko irakurketa egingo du eta Rikardo Arregi idazleak gidatuko du doako saioa.

> MUSIKA

### 3.60 aretoak 3. urteurrena ospatuko du asteburuan

Arrasateko musika aretoak hiru urte bete dituela ospatzeko, hardrock eta rock-and-roll bi kontzertu izango dira aste bukaeran.

Gaur, egubakoitza, besteak beste, Kaliforniako Vic Du Monte's Persona Non Grata taldearen emanaldia izango da. 2005. urtean sortutako laukotean musikari ezagunak daude: Vic Du Monte, ahotsa eta gitarra; Alfredo Hernandez, bateria (Queen of the Stone Age...); Chris Cockrell, baxu-jolea (Kyuss....); eta Sargon Dooman, gitarra. Kaleratzear duten hirugarren diskoa aurkeztuko dute. Aipatutako taldearekin batera, Positiva taldea ere izango da.

Bihar, berriz, taula gainean hiru rock-and-roll talde izango dira: Madrilgo Sex Museum, Arrasateko 5 Twister eta Bilboko Zenttrik. Eskarmentu handia duten madrildarrek kaleratu berri duten diskoa aurkeztuko dute.

Kontzertua amaitutakoan, DJ Fernando Pardo (Sex Museum) eta DJ Mansillarock izango dira.

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE




**2008ko bidaietarako**

**%10eko deskontua**

erreserba **urtarrilaren 14a** baino lehen eginez gero.

2008ko Urtarrila-Otsailan
Brasil, Punta Canna,
Kanariar Irlak,
Tunez, Egipto edota
Ribera Mayara joan nahi
baduzu, erreserba abenduaren 22a baino lehen
eginez gero

**2x1**





**Gabonetan, eskiatzera!**
***Eskaintza bereziak:***

**ANDORRA:**
5 gau + 5 forfait
(pentsio erdia):
**249 €tik aurrera.**

**PIRINIO FRANTSESA:**
7 gau + 6 forfait
(4entzako apartamentuan):
**269 €tik aurrera.**

**AUTOKARABANA ESKAINTZA BEREZIA**
* Eguneko eta pertsonako 20 €-tik aurrera.

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- Berria



* prezio hori 6 pertsonek hartutako
McLouis 2.11 autokarabanetan

Arrasate Bidaiak
marsans viajes
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

ARRASATE BIDAIAK
Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es



**HASTEKO GERTU** Aurrean ibiltzeko asmoz irten ziren korrikalariak, Seber Altuben, lasterketa hasteko gertu 2005eko ekitaldian. GOIENKARIA

**ATLETISMOA** > SANTAMASETAKO KROSA

# Fernando Zufiria: "Behobian egon zirenak krosean ikusi gura ditut"

Domekan 12:30ean hasiko dute koadrilen arteko krosa, eta egunean bertan eman ahal da izena

Arrasateko atletismo taldeko ordezkari Fernando Zufiriak herritarrak animatu gura ditu

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Domekan 12:30ean hasiko dute koadrilen arteko krosa, eta korrikalariek ordubete lehenago eman ahal izango dute izena, antolatzaileak udaletxeko arkupeetan egongo dira-eta izenak hartzen. Lehenago, 11:00etan hasita, gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte Herriko Plazan; hamar minutuan behin, kategoria ezberdinetako neska-mutikoak ibiliko dira korrikan, eta adinaren arabera distantzia ezberdineko lasterketak egingo dituzte.

**90 KORRIKALARI BAINO GEHIAGO**
Hori da antolatzaile lanetan ibiliko diren Arrasateko Atletismo Taldekoen erronka, lasterketan 90 lagunek baino gehiagok parte hartzea: "Inoiz ez gara kopuru horretara iritsi", adierazi du Zufiriak: "Eta egia esan behar badut, amorrua ematen dit ikusteak hemendik Behobia-Donostia lasterketara zenbat lagun joaten diren, eta gero, hemen egiten diren lasterketa herrikoietan ze jende gutxi animatzen den. Bistan da ez dugula frantsesekin zerikusirik; han amamak ere animatzen dira horrelako probetan parte hartzera".

Arrasateko taldeko entrenatzaileak ez du arrazoirik falta, nork bere erritmoan korrika apur bat egiten duenak lasai asko egin ditzake-eta krosak dituen sei kilometroak.

**BILDOTSA IRABAZLEENDAKO**
Joan den urtean *Azkenpote* taldearendako izan zen lasterketako sari nagusia: bildotsa. Aurrean ibiliko direnen gainean esan behar da Aritz Kortabarriak 20:48 minutuan geratu zuela erlojua; hortxe, gainerakoendako erronka.

Askok, baina, erlojuari begiratu gabe egingo dute korrika, eta hori ere behar du krosak.

DATUA

**30**
URTE

Santamasetako koadrilen arteko krosak 30 urte egingo ditu domekan. Horrekin batera, Enrike Kabiketa oroitzeko bosgarren memoriala izango da.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-Equs | 5-4 |
| Lasagabaster-Iturriotz Taberna | 8-3 |
| THC-Ekaitz Taberna | 3-8 |
| HLB 108-Kalapatxak | 1-16 |
| Abokajarro-Bar Kokots | 5-4 |
| Iriztu Taberna-Total Disaster | 7-3 |
| AT Celaya-Betrayer | 6-10 |
| Cicatrus-Dribling | 4-16 |
| Saukelu Abian-Dublin Irish Pub | 9-7 |
| McAwen Dauen-Iluntz | 7-3 |
| Cicatrus-Bar Kokots | 2-1 |

**PARTIDUAK**

| Abenduak 15, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **08:50** Abokajarro-Betrayer | **Kalapatxak** |
| **10:00** Kalapatxak-Lasagabaster | **Betrayer** |
| **11:00** McAwen Dauen-Saukelu | **Lasagab.** |
| **12:00** AT Celaya-Dublin Irish Pub | **Saukelu** |
| **13:00** Cipris-Iturriotz Tab. | **Ekaitz Taberna** |
| **14:00** Equs-Ekaitz Taberna | **Iturriotz Tab.** |
| **16:00** Iriztu Tab.-Dribling | **Bar Kokots** |
| **17:00** THC-Bar Kokots | **Total Disaster** |
| **18:00** HLB 108-Total Disaster | **THC** |
| **19:00** Cicatrus-Iluntz | **HLB 108** |

| Abenduak 16, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Cipris-Iriztu Tab. | **Antolatzaileak** |
| **12:00** Dribling-Saukelu Abian | **Antolatzaile.** |
| **13:00** Equs-THC | **Antolatzaileak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 15 | 5 |
| 2. | Cipris | 12 | 5 |
| 3. | Ekaitz Taberna | 12 | 5 |
| 4. | Iriztu taberna | 11 | 5 |
| 5. | Betrayer | 10 | 5 |
| 6. | Dublin Irish Pub | 10 | 5 |
| 7. | Dribling | 9 | 5 |
| 8. | Lasagabaster | 9 | 5 |
| 9. | Saukelu Abian | 9 | 5 |
| 10. | THC | 9 | 5 |
| 11. | Kalapatxak | 7 | 5 |
| 12. | Abokajarro | 6 | 5 |
| 13. | HLB 108 | 6 | 5 |
| 14. | Iluntz | 5 | 5 |
| 15. | Iturriotz | 4 | 5 |
| 16. | AT Celaya | 3 | 5 |
| 17. | Equs | 3 | 5 |
| 18. | Cicatrus | 3 | 5 |
| 19. | Bar Kokots | 3 | 5 |
| 20. | Total Disaster | 0 | 5 |

### Domekan, kopako partiduak

Zapatuan inoiz baino partidu gehiago jokatuko dituzte, hamar guztira. Eta, domekako norgehiagokak kopa txapelketakoak izango dira, hiru partidu guztira.

**PILOTA** > GAZTEENDAKO TOPAKETA

# Gabonetan pilotan jokatzeko aukera eskainiko du klubak

Arrasateko taldeak pilota topaketak antolatu ditu Gabonetarako, harrobia lantzeko asmoz

**X.U.** > ARRASATE
6 eta 7 urteko gaztetxoek –2000. eta 2001. urteetan jaiotakoak– ez dute Gabonetan aspertzeko aitzakiarik izango, Arrasateko Pilota Taldeak eurei zuzendutako topaketak antolatu ditu-eta abenduaren 26rako, 27rako eta 28rako.

**HARROBIA LANDU**
Arrasateko taldean lanean dabiltzanek erabaki dute Arrasateko gaztetxoak pilotalekura gerturatzeko ekimen bereziak egitea, eta Gabonetako topaketa da horietako bat. Izan ere, zuzendaritzakoek esandakoaren arabera, gaztetxoek beste kirol batzuk aukeratzen dituzte pilota baino lehen, eta kirol hori ezagutaraztea da topaketaren helburua.

Hala, aipatutako egunetan Arrasateko gaztetxoek irekita izango dituzte Uarkapeko ateak, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Ez da inon izena eman behar, pilotalekura gerturatu baino ez, pilotan jokatzeko gogoz.



**ARRASATEKO TALDEA** Arrasateko pilotariak denboraldi hasieran egindako erretratuan. GOIENKARIA







## KONTSUMO ARDURATSU – KANPAINA

*Gabonak dira KONTSUMO jasanezina bereziki praktikatzeko data: opariak, gehiegizko jatorduak, energia kontsumoa, eta orokorrean, baliabide naturalak xahutzera bultzatzen gaituena.*

*Antolatu ditugun jarduera hauekin erakutsi nahi dugu badagoela modu alternatiboan kontsumitzeko aukera*

## Kontu HANDIZ kontsumitu

**Non?** Sebero Altube Plazan.

**Noiz?** Abenduaren 19tik 20 arte. 17:00etatik 20:00etara.

### Jarduerak:

- **Birziklatzearen zuhaitza ( Tailerra)**
  Tailerra hondakinak birziklatuz apaingarriak egitean datza.
  - Zuhaitzean zintzilikatzeko apaingarri desberdinak egiteko aukera egongo da.
  - Parte hartu nahi dutenek etxeko hondakin batzuk eramatea komenigarria da: plastikozko poltsak, erabilitako opari-papera, aldizkariak, propaganda, komuneko paperaren kartoia, arrautza-ontziak, jogurten ontziak, CD zaharrak…
- **Merkataritza alternatiboa**
  Elkarte eta enpresa batzuk gonbidatuta daude bere produktuak edo informazioa erakustokian jartzeko.
- **Erakusketa**
  Ekologistak Martxanen “Consume hasta morir” izendatutako kanpainen kartelak ikusgai izango dira.
- **Informazio baliagarria eta produktuen erakusketa**
- **Iradokizun-gutunontzia**
  Gutunontzi honetan kontsumo arduratsuago egiteko ideiak sartu ahalko ditu eta zozketa batean sartuko da. Irabazleak bidezko merkataritza produktu-sail bat irabaziko du.
- **Oparia**
  Tailer honetan parte hartzeak saria du. Bolak egiteko plastikozko poltsak ekarriko dituztenei, opari bat emango zaie: hamar plastikozko poltsen truke oihalezko poltsa bat.

**OSOKO BILKURA** > 18/98 SUMARIOA

# Euskal Herriaren eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

Aurretik, EAJren mozio alternatiboa atzera bota zuten EAEk, Aralarrek eta PSE-EEk

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Asteleheneko ezohiko bilkuran, EAEk aurkeztutako Euskal Herriaren eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak. Lehenbizi, alderdi guztiek deialdia presazkoa zela baieztatu zuten eta jarraian Agurne Barrusok hamar minutuko etenalditxoa eskatu zuen, EAJk azken orduan aurkeztutako mozio alternatiboa aztertu ahal izateko.

Ondorengo bozketan, EAEk, Aralarrek eta PSE-EEk atzera bota zuten EAJren testua. Mari Karmen Barrenetxeak (PSE-EE) botere judizialaren autonomian konfiantza dutela adierazi zuen ezezkoa esplikatzeko. EAEren izenean Agurne Barruso alkateak desadostasuna azaldu zuen EAJren mozioarekin: "Lehenbiziko puntuan 18/98 epaiketaren izaera politikoa gogor salatzen bada ere, ondo garatu ez den giza eskubideen urraketa balitz bezala aurkezten da gero. Garbi daukagu independentziaren aukera baztertzea dagoela jatorrian. Oinarri guztiz politikoa duen gaia da". Auzi horretan EAJ erreduntzat jo zuen alkateak: "Madrilgo kongresuan bide bat eman dio PSOEri gu guztiok kolpatzeko. EAJren laguntza barik hau ez litzateke posible izango". Hain zuzen, mozioaren zazpi puntuen aurretik aipatzen den argudioetako bat hori da. Iñigo Iñurrategik (Aralar), berriz, zehaztu zuen bat egiten zutela mozioko puntuekin, baina ez aurreko testuarekin. Eta hauxe gaineratu zuen: "Momentua da garbi esateko aukera independentistaren kontrako estrategia dela sumarioa".

EAEren eta Aralarren aldeko botoekin onartutako mozioak hauxe dio lehen puntuan: "Udal hau irmoki dago 18/98 epaiaren eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako erasoaren kontra (...). Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezartzeko asmoz". Eta aurrerago: "Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea". Era berean, 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon-emakume guztiekin bat egiten du Udalak.

**JOSE LUIS ELKORORI AGURRA**

Jende artean zegoen Jose Luis Elkoro agurtu zuen alkateak osoko bilkuran: "Ez daukagu ezer ospatzeko, baina pozik gaude gure artean zaudelako. Xabier Arregiren familiari ere gure elkartasuna adierazi nahi diogu". Elkorok eskerrak eman zituen: "Ohorea da udalbatzak mozioa aurrera ateratzea eta harrera hau egitea. Gogoan ditut espetxeetan utzitako hainbeste euskaldun, eta bereziki bergararrak. Dagoeneko hirugarren aldia da espetxetik ateratzen naizena, Euskal Herriaren aldeko borroka zilegi bat eramatearren".

**ELKARTASUNA**

## Fisc GKE, plazara zapatuan

**E.M.** > BERGARA

Fisc gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritzako postua jarriko du bihar, zapatua, San Martin plazan. Egoera latzenetan dauden herrietan lan egiteaz gain, gure testuinguruan sentsibilizazioa lantzeaz arduratzen dira Fundacion Solidaridad Compañia de Mariako kideak.

**KONGOKO PROIEKTUA**

Kongon, Kinshasako Selembao auzoan, Heziketa Plataformaren eraikuntzarekin dihardute orain. Aipatutako eraikina 2006an eraikitzen hasi ziren eta 2008rako amaituta egotea aurreikusten da. Zapatuan 10:00etatik 14:00etara zabalduko dute denda plazan. Kinshasako proiekturako espresuki sortutako artisau produktuak eta elikadura eta artisau produktuak salduko dituzte.


KEVIN CONDE

## Kevin Conde, Jaurlaritzak saritua

Kevin Conde bergararrari eman diote Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu duen argazki lehiaketako sarietako bat: argazki originalenarena. Goian ikus dezakezue. Aranzadi ikastolan dihardu Kevin Condek eta ikastolako DBH 4. mailako beste sei ikasle aurkeztu dira. Euskal Autonomia Erkidegoko 12-16 urte bitartekoendako zen lehiaketa. Gaia: liburu bat duen edota liburu bat irakurtzen dihardauen pertsona. 499 argazki aurkeztu dira. Durangoko Azokan banatu zituzten sariak; Conderi, argazki kamera digitala.

> ODOL ATERALDIA

### Bergarako Odol Emaileen Elkarteak urteko azken odol ateratzea egingo du eguaztenean

Herriko odol emaileek urteko azken odol ateratzea egingo dute datorren eguaztenean, abenduaren 19an, Seminarioko lokalean, 18:30ean. Elkarteak dei egiten die emaileei parte hartzeko eta, bide batez, zorionak ematen dizkie guztiei urtean egindakoagatik.

> JARDUN

### Andoni Egaña bertsolariak hitzaldia egingo du martitzen arratsaldean, kultura etxean

Jardunek antolatuta, Andoni Egaña bertsolari ezagunak *Ahozkotasunaz* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 18an, kultura etxean, 19:00etan. Ordubete inguruko iraupena izango du eta adin guztiko jendeari zuzenduta dago.

> GABONAK

### Serafin Esnaola zenaren omenez Gabonetako postalen lehiaketa deitu du Gure Ametsak

Gabonetako postalen III. lehiaketa deitu du San Antonioko Gure Ametsa elkarteak. 3 eta 12 urte bitarteko haurrek har dezakete parte. Orri laurdeneko kartulinatan Gabonen gaineko marrazkiak jasoko dituzte abenduaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Sari banaketa abenduaren 22an egingo dute Gure Ametsan.

SAGARPE PROIEKTU BERRIKO BAZKIDEEI:

DEIALDIA:
Datorren abenduaren 18an, martitzenean, batzarra izango izango da Sagarpen.

ORDUA:
Lehen deialdia 18:30ean izango da eta bigarrena 19:00etan.

TOKIA:
Sagarpe Elkartean, Bergarako Barrenkale kalean

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA



**AURKEZPENA** Anselmo Arrietak liburuak sinatu zituen martitzenean. E.M.

**GIZARTEA** > APAIZ BERGARARRAREN LAN BERRIA

# Anselmo Arrietak liburua aurkeztu zuen udaletxean

**E.M.** > BERGARA

Jende ugari batu zen martitzenean Anselmo Arrietaren liburuaren aurkezpenean. Apaiz bergarararrak *Ganar la paz en Euskal Herria y en España* lana aurkeztu zuen lagun artean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Juan Kruz Mendizabal Santa Marinako parrokoaren laguntza izan zuen Arrietak.

1928an Bergaran jaioa, aspaldian Eibarko San Andres parrokian ari da Arrieta. Aurretik Angiozarren, Errenterian eta Ekuadorren ibilitakoa da. Amerikatik etorri aurretik, 1999an, Peruk eta Ekuadorrek mugak zirela-eta 150 urtez mantentzen zuten auzia bukatu zenean, bere bizitzako unerik gozoenetakoa bizi izan zuela gogoratu zuen. Euskal Herrian bakea lortzeko itxaropena ez du galdu oraindik. Alderdi ezberdinek izan duten jokabidea aztertzen du liburuan, eta elkarrizketa posiblea dela defendatu. Bizi guztia bakearen alde borrokan daramala eta ez duela etsiko dio.



JON SANCHEZ

## Lasai-Toki, erretiratuekin

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Lasai-Toki elkarteak omenaldia egin zien herriko erretiratuei. Joan den zapatuan 150 lagun inguru elkartu ziren Ibaiondoko elkartean; Errioxako eta Nafarroako ardoaz lagunduta, salda, urdaiazpikoa, txorizo egosia, odolosteak eta okela gisatua dastatzeko aukera izan zuten bertaratuek.

**AZPIEGITURAK** > HOBEKUNTZAK BERGARAKO SAIHESBIDEAN

# Diputazioak GI-627 errepidea hobetuko du

Saihesbidean, Ondartzatik 'Oxigenotako' biribilgunera doan tartea berrituko dute

**E.M.** > BERGARA

Diputazioak 1,8 milioi inbertituko ditu Bergaran GI-627 errepidearen lau kilometrotan zoruaren egitura berritzeko. Hain zuzen, bi biribilgune lotzen ditu berrituko duten zatiak: Kanpanzarko errepidearen eta GI-627 errepidearen artekoa, batetik, eta GI-627 errepidearen eta AP-1 autobidearen Bergarako iparraldeko loturaren artekoa, bestetik. Bergarako kasuan Ondartzatik *Oxigenotako* biribilgunera doan tartea berrituko dute.

**BOST HILABETETAKO LANAK**

Lau bat kilometro horietan egitura berritzeaz gain, egokitu egingo dira bi zubiren eta azpiko bi pasabideren euste sistemak. Beste aldetik, zortzi bide tartetan hormigoizko arekak jarriko dituzte, 1,50 metroko zabalerakoak, guztira 2,8 kilometro osatzen dutela. Beste bide tarte batzuetan ere jarriko dituzte hormigoizko arekak.

Diputatuen Kontseiluak onartu du lehiaketara ateratzea GI-627 errepidearen zoruaren egitura 42,360 eta 46,100 kilometro puntuen artean zaharberritzeko lanak. Lehiaketako aurrekontua 1.824.720 euro da eta lanak bukatzeko epea bost hilabete dela aurreikusten dute.



**SAIHESBIDEA** Diputazioak 1,8 milioi euro bideratuko ditu GI-627 errepidean lau kilometroko tartea berritzeko. OXEL ARRIETA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

**MUSIKA** > KONTZERTUAK GAZTETXEAN

# Sexty Sexers eta On Benitoren kontzertua

## Bihar 23:00etan Nafarroako bi talderen kontzertua Bergarako gaztetxean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bihar, zapatua, 23:00etan, bi taldek kontzertu eskainiko dituzte Bergarako gaztetxean. Sexty Sexers eta On Benito nafarrak izango ditugu Bergaran.

Sexty Sexers duela sei urte Beran sortutako taldea da, eta bost lagunek osatzen dute taldea. Lehen disko luzea 2006. urtean kaleratu zuten, *Iluntze berri baten bila* izenekoa, punk-rock indartsua rock pisutsuarekin nahastuta. Bigarren diskoak *Urkamendi blues* du izena, eta aurtengo udaberrian argitaratu dute. Bertan, hardcore sendoa erakusten dute.

**ON BENITO**

On Benito, berriz, hiru taldekidek osatzen dute eta Joseba Irazokiren proiektu bat da.

Talde hori ere Beran sortutakoa da eta 50eko hamarkadako rock-and-rolla da euren musika estiloa.



**SEXTY SEXERS** Talde nafarra kontzertu batean. ARTXIBOA

> IKUSKIZUNAK

### 'Azur eta Asmar' filmaren emanaldia Agorrosinen

Agorrosingo ikus-entzunekoen aretoan zinema emanaldiak egiten dituzte. Asteburu honetan ere beste emanaldi bat egongo da: *Azur eta Asmar* izeneko haurrentzako animaziozko filma. Emanaldiak bihar, zapatua, eta domekan izango dira, 16:30ean eta 19:30ean. Sarrerak euro bat balio du.

Hain zuzen, bi mutikoren arteko adiskidetasun eta abenturetan oinarritzen da eta 99 minutu irauten du. 2006an egin zuten filma, Frantzian, eta atzean sei urteko lana dago. Frantzian film ikusiena izan da, gainera, 1.800.000 pertsona joan baitira hura ikustera.

> ERAKUSKETA

### Juan Gonzalez Cuestaren margo erakusketa Nahikarin

Abendu osoan Juan Gonzalez Cuesta margolari bergararrak erakusketa egingo du Bergarako Nahikari tabernan.

Gris tonuetan eta olioan margotutako 14 margolan egongo dira ikusgai. Juan Gonzalezek duela sei urte margotu zituen koadrook, eta 1910-1960 urte bitartean Bergarako kale, inguru eta etxebizitza ezberdinek izan dituzten aldaketak islatzen dituzte.

Juan Gonzalez Cuestak erakutsiko dituen margolanen artean, San Martin plaza, Ariznoa plaza 1910. urtean zegoen moduan eta Elorregi auzoko Domiñena baserria daude.



**ORFEOIA** Aitor Biainen zuzendaritzapean, kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian. BERGARAKO ORFEOIA

**MUSIKA** > ORFEOIA ETA HAUR ABESBATZAK

# Orfeoiaren Gabonetako kontzertua zapatuan

## Bestalde, haur abesbatzen Gabonetako kontzertua gaur, Mariaren Lagundian, 19:30ean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Gabonetako ekitaldien barruan, bihar, zapatua, Bergarako Orfeoiak kontzertua eskainiko du Mariaren Lagundia elizan, 20:00etan. Kontzertu horretan Gabero abesbatzak ere hartuko du parte. Kontzertuaren izena *Navidades del Mundo* izango da, bertan mundu guztiko eguberri kantuak abestuko baitira. Gabero abesbatzaren eta Orfeoiaren zuzendari lanetan Aitor Biain arituko da, eta piano-jole Eli Mendiaratz. Orfeoiak ondorengo zortzi lanak abestuko ditu: *Es ist ein Entsprungen* (M. Praetorious), *Suite de Navidad* (T. Aragues), *Christmas Lullaby* (J. Rutter), *Shepherd's Pipe Carol* (J. Rutter), *Carnaval Navideño* (H. Bittrich), *Pie Jesu* (K. Jenkins), Silent Night (J. Rutter) eta *White Christmas* (I. Berling). Gabero abesbatzak, berriz, zazpi lan abestuko ditu: *Pater Noster* (X. Sarasola), *Kyrie* (B. Chilcott), *Irish Blessing* (B. Chilcott), *Neskatxa-ederra* (David Azurzak moldatua), *Tshotsholoza* (H. Leck-ek moldatua) eta *Cubanita* (E. Ugalde). Azken lan horretan, bakarlari lanetan Aritz Oteiza arituko da.

**HAUR ABESBATZEN KONTZERTUA**

Bestalde, gaur, egubakoitza, haur abesbatzen Gabonetako kontzertua izango da Mariaren Lagundia elizan, 19:30ean. Bergarako Orfeoi Txikitxoak, Orfeoi Txikik, Gabero abesbatzak eta Bergarako Musika Eskolako koruak hartuko dute parte.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 · SS
BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903




# GABONAK BERGARAN

| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
|---|---|---|---|---|
| 17:00 – 21:00 Muniben **Gabonetako 1. Artisau feria**<br>18:00 Aroztegin **BEART margolan erakusketaren** inaugurazioa eta San Martin plazan **Gaztaina-erre jana**, Jardun Euskara Elkarteak antolatuta.<br>18:30 **Musika Eskolako Gabonetako kontzertua** | 10:30 – 14:00 eta 17:00 – 21:00 Muniben **Gabonetako 1. Artisau feria**<br>10:00 - 14:30 San Antonion **NAPAR FERIA**<br>22:30 **Udal Pilotalekuan Gabonetako kontzertua** | 10:30 – 14:00 eta 17:00 – 21:00 Muniben **Gabonetako 1. Artisau feria** | 10:30 – 14:00 eta 17:00 – 20:00 Muniben **Gabonetako 1. Artisau feria**<br>18:00 Azoka ondoan **Olentzerori ongi-etorria** | |

| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
|---|---|---|---|---|
| 16:00 – 19:30 Labegaraietan **GABONETAKO JOLAS PARKEA** (Berogailua egongo da. Prezioa: 3 euro)<br>19:00 Munibe plazako karpan **KONTU KONTARI helduentzako ipuin kontaketa** Koldo Amestoyren "Harriola Marriola" (dohainik) | 16:00 – 19:30 Labegaraietan **GABONETAKO JOLAS PARKEA** (Berogailua egongo da. Prezioa: 3 euro)<br>19:00 Munibe plazako karpan **KONTU KONTARI helduentzako ipuin kontaketa** Joxe Mari Carrereren "Ipuin konferentzia" (dohainik) | 16:00 – 19:30 Labegaraietan **GABONETAKO JOLAS PARKEA** (Berogailua egongo da. Prezioa: 3 euro)<br>19:00 Munibe plazako karpan **KONTU KONTARI helduentzako ipuin kontaketa** Doro Zobaranen "Buhamea" (dohainik) | GOIZEZ **Sahararen aldeko argazki erakusketa eta produktuen salmenta,** Bubisher elkartearen eskutik.<br>18:30 Munibeko karpan **KONTU KONTARI haurrentzako ipuin kontaketa** Katiuska hegalariaren "Loti ederra" (dohainik) | GOIZEZ **Sahararen aldeko argazki erakusketa eta produktuen salmenta,** Bubisher elkartearen eskutik.<br>18:30 Munibeko karpan **KONTU KONTARI haurrentzako ipuin kontaketa** Gorakada taldearen "Titirikontu-kontari"(dohainik) |

| 31 | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| | | Kultura etxeko erakusketa aretoan: **"Hondakinak, amesgaiztorik ez!" erakusketaren** irekiera | | 18:00 Aroztegin **Taila eta Buztinzale Zeramika Elkartearen erakusketaren** inaugurazioa<br>22:30ean Bergarako gaztetxean **Antton & Macguffins taldearen kontzertua**. Jardun Euskara Elkarteak antolatuta. |

| 5 | 6 |
|---|---|
| ERREGE BEZPERA EGUNA<br>17:30 **Bizarzuri**<br>18:00 San Martin plazan **Txokolatea** San Joxepe elkartearekin<br>19:30 **Errege Kabalgata** | |

*Bergarako Udalak*
*Gabon zoriontsuak opa dizkizue.*
*Ondo bukatu urte zaharra,*
*eta hobeto hasi berria!*

**BERGARAKO UDALA**
Kultura Saila

> IGERIKETA

### Gaur amaitzen da ikastaroan izena emateko eguna

Igeriketa eskolako ikastaroa egingo dute datorren urteko lehenengo hiruhilekoan, urtarriletik martxora arte. Eta, ikastaro horretan izena eman nahi duten neska-mutikoek gaur dute azken eguna.

Udaleko ordezkariek aditzera eman dutenez, ikastaroan lagun askok ematen badute izena zozketa bidez erabakiko dute nork hartuko duen esku ikastaroan. Informazio gehiago 943 77 70 95 telefono zenbakian.

> FUTBOLA

### Bergarak Gabonetako XVII. futbol txapelketa antolatu du

Abenduaren 28an, 29an eta 31n jokatuko dute gazte mailako Gabonetako XVII. futbol txapelketa. Lehenengo finalerdian (abenduak 28) Bergarak Eibarren kontra jokatuko du, 17:00etan. Hurrengo egunean Beasainek eta Realak jokatuko dute, ordu berean.

Eta, finalerdietan aurrera egin duten taldeek abenduaren 31n jokatuko dute finala (16:00). Partidu hori belarrezko zelaian jokatuko dute.

**FUTBOLA** > ERREGIONALA

# Bergarak beste bizilagun baten kontra jokatuko du bihar: oraingoan Soraluze (15:30)

Bergarak Soraluzeren kontra gura ditu batu goialdean jarraitzeko beharrezkoak dituen hiru puntuak



**LEHIATSUA** Mahoneroek azkenera arte ez zuten partidua galdutzat eman Antzuolan. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Manu Diazen mutilek ezin hobeto gainditu zuten joan den zapatuko porrota: kontrarioarekin tabernaz taberna txikiteoan, behar den moduan.

**AURREAN GURA DUTE SEGITU**

Edozein kiroletan eskertzekoak dira horrelako keinuak, baina Gabonetako oporraldia iritsi arte Bergarak serio egin nahi die aurre geratzen zaizkion kontrarioei. Hala, bihar hamalaugarren lekuan dagoen Soraluze izango da Agorrosinen: "Gauza bat daukagu aldeko, etxeko partiduetan oso maila polita erakusten ari garela. Hori bai, joan den astean Soraluzek sei gol egin zituen, eta atzean sartzen den talde batek ez ditu sei gol egiten; gol aukerak egiteko gaitasuna duen taldea dela erakutsi dute", adierazi du aste barruan Bergarako entrenatzaileak. Gutxik uste zuten Bergara aurraldean izango zela Gabonak iritsi aurretik, taldean egin zituzten aldaketak kontuan hartuta: "Sorpresa izan da, jokalariek erakutsi duten konpromisoaren seinale".

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Niu Tim-CM Errota-Gain | **8-2** |
| Irish Pub-Irubide | **10-1** |
| Belengua-Carboneros | **3-8** |
| Los Blus-Hamaika Jintxi | **10-1** |
| El Mapet-Komando Piperrak | **6-8** |
| Tiki-Taka.Deportivo Oriente | **8-4** |

**PARTIDUAK**

| Abenduak 2, domeka, barruan | | Epaileak |
|---|---|---|
| **09:30** | CM Errota-Gain-Belengua | **El Mapet** |
| **10:30** | Deportivo Orien.-El Mapet | **Belengua** |
| **16:00** | Niu Tim-Irish Pub. | **Irubide** |
| **17:00** | Irubide-Carboneros | **Irish Pub** |
| **18:00** | Hamaika Jintxi-Komando | **Carboneros** |
| **19:00** | Tiki-Taka-Los Blus | **K.Piperrak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 18 | 7 |
| **2.** | Irish Pub | 16 | 7 |
| **3.** | Carboneros | 15 | 7 |
| **4.** | Komando Piperrak | 15 | 7 |
| **5.** | Tiki-Taka | 13 | 7 |
| **6.** | Los Blus | 13 | 7 |
| **7.** | Niu Tim | 12 | 7 |
| **8.** | Belengua | 11 | 7 |
| **9.** | Irubide | 6 | 7 |
| **10.** | El Mapet | 3 | 7 |
| **11.** | Hamaika Jintxi | 1 | 7 |
| **12.** | Deportivo Oriente | -3 | 7 |

### Abenduaren 18a, azken eguna

Antolatzaileek gogorarazi moduan, oraindik hiru talde daude txapelketan jokatzearren ordaindu beharreko 200 euroak ordaindu ez dituztenak. Abenduaren 18a da ordaintzeko azken eguna.



GABONETAKO ESKAINTZAK

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

MIRARI JANTZI DENDAK
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

kanpotarrak bergaran

**Elvira Da Silva** > Brasildarra
Bergaran bizi da

# "Hasieran asko kostatu arren, ondo moldatu naiz Bergarara"

**JASONE ZABALA** > BERGARA

**Elvira 1998an etorri zen Euskal Herrira, Iruñera. Bergarara, aldiz, hiru urte geroago, 2001ean. Gure artean pozik dago eta Brasilera bueltatzekotan erretiroa hartzen duenean izango dela esan digu.**

Lagun baten bitartez etorri zen Elvira Bergarara. Bere mutillagun izango zen Javier Iruñean ezagutu arren, Bergarakoa da eta harekin Bergarara etorri zen bizi izatera 2001ean. Elvirak seme bat dauka, Wilton izenekoa, eta 22 urte ditu.

Elvirak esan digunaren arabera, Brasilgo klima eta jendearen alaitasuna igartzen ditu faltan: "Han klima beti da beroa eta hemen askotan egiten du hotz, eta oraindik ere ez naiz ohitu". Brasilen ez bezala, hemengo errepideetan segurtasuna handiagoa dela dio Elvirak.

Elvira orain pozik dago gure artean, baina hasieran, jendearen jarrerak min egiten zion: "Ez nuen ezer ezagutzen, lanik ere ez nuen hona etorri nintzenean, eta, noski, azal kolorea ere ezberdina edukitzeagatik jendeak gaizki begiratzen zidan, baina hori guztia dagoeneko aldatu da, eta pozik nago".

**"Inguruko herrietatik gehien gustatu zaidana Donostia izan da, eta batez ere Kontxako hondartza"**


Elvira Da Silva.

Janariari dagokionez, esan daiteke denetarik jaten duela Elvirak, eta hemengo jana asko gustatzen zaiola, nahiz eta hasieran "Brasilgo jana prestatzen nuen, ez baintzen ohitzen hemengo jan ohituretara".

**DONOSTIA, OSO POLITA**

Bergara ez ezik inguruak ere ezagutu ditu dagoeneko Elvirak, eta gehien gustatu zaiona Donostiako Kontxako hondartza izan da.

Brasilen Elvirak ama eta anaiak ditu eta asko igartzen ditu faltan. Ekonomikoki laguntzen die, eta alde horretatik lasai dago. Euskarari dagokionez hauxe dio: "Nahiko lan dut erdara ulertzen oraindik, baina euskarazko hitz batzuk ere esaten ditut".

argazki zaharra

## Aratusteak Bergaran duela 23 urte

Gauzak asko aldatu dira orain dela 23 urtetik hona, baina neska-mutiko txikien mozorrotzeko ilusioa oraindik ere hortxe dirau. Argazkia 1985. urtekoa da, Mariaren Lagundia eskolara sartu haurretik laurak txintxo jarrita ateratakoa. Aratuste-martitzena zen eta gaztetxoak pozik joaten ziren egun hartan eskolara; gaur egun ere hala izaten da. Ezkerretik eskumara hauek dira argazkian agertzen direnak: Jasone Zabala, Asier Martin, Ane Miren Zabala eta Igor Martin.

**Argazkia:** Ane Miren Zabala.
**Testua:** GOIENKARIA
**Urtea:** 1985. urtea.



bere ustez


Maite Plazaola

## Badator munstro suntsitzailea!

Urte asko pasa dira *euskal Y*-aren zurrumurrua entzun genuenetik. Igaro den denbora honetan, jende asko lanean aritu da makro eraikuntza hau gelditzeko ahaleginean era guztietako ekintzak antolatuz. Hala ere, agian urrun ikusten dugulako edo, jende gehienak pasiboki jokatu du, Euskal Herriari eta Bergarari eragingo dizkion kalte izugarriei jaramonik egin gabe.

Baina hasieran zurrumurruak ziruditenak egiazko bihurtuko dira, munstro hau eraikitzen hasiko diren eguna gertuago baitago. Esaterako, Angiozar auzoan jada laginak hartzen ikusi dituzte; beraz, edozein egunetan makinak sartzen has daitezke.

**"Beraz, goazen denok Arrasatera munstro suntsitzaile hau zapaltzera!"**

Horregatik, heldu da garaia orain arte lo egon garenok esnatzeko eta, beste askoren artean, osasun eta ekologia mailan kalte ugari eragingo digun tren honi aurkako jarrera aurkezteko eta elkarrekin geldiarazteko.

Honen harira, bihar, abenduak 15, AHTren aurkako manifestazioa egingo da Arrasaten, proiektu estrategiko honi ezetza emateko. Gainera, Bergaratik oinez joateko aukera ere izango da. Beraz, goazen denok Arrasatera, munstro suntsitzaile hori zapaltzera!

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
**Puntuak berreskuratzeko** aukera

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

ZELAIA
OÑATI
*1970ean sortua*



Sukalde eta bainuak
Santa Marina 3 • 943 71 62 81



Altzariak
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Atariak, leihoak eta zoruak
Patrue kale 5 • 943 78 04 04



Etxetresnak
Patrue kale 10 • 943 78 04 04




Berezao industrialdea • 943 78 20 08

ERREFORMA INTEGRALAK

Gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko.

www.zelaia.net

*Zorionak eta Urte berri on*



ERRETIRATUAK Maria Aldai, Juan Uribetxebarria, Asun Gastañaga, Jose Mari Gorroño, Agustin Uribetxebarria eta Kontxi Rubiano, 1990eko Aingeru Guarda egunean. URATS GAIN

**ERRETIRATUAK** > 25. URTEURRENA

# Bihar, Basotxo elkartearen 25. urteurreneko ospakizuna

Aurten 90 urte bete dituzten bazkideak omenduko dituzte ekitaldian

25 urtean izandako presidente guztiak gonbidatu dituzte plaka jasotze ekitaldira

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Bihar, abenduak 15, Basotxo erretiratuen elkarteak 25. urteurreneko ospakizuna egingo du. Irailean egin gura zien Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkarteak esker on ekitaldia, baina Basotxokoek eskatu zioten abendura atzeratzeko ekitaldi osatuagoa antolatzeko. Hala, egitarau dotorea antolatu dute.

**ESTATUTUAK 1982KO EKAINEAN**

Basotxo erretiratuen elkarteko estatutuak 1982ko ekainaren 4an sinatu zituzten. Elkartearen lehen datuak, baina, lehenagokoak dira: 1979koak, hain zuzen. Hamaika bat lagun elkartu ziren orduan –bazkide fitxak ere badituzte–, eta lanean hasi. Elkarteko kideek egindako batzarren lehen akta, ostera, 1981eko irailekoa da.

Eta elkartearen lehen egoitza Mitarte plazan egon zen. 1989an aldatu zuten lekuz eta Errekabarren kalera eraman, Urats Gain zahar etxe azpira, hain zuzen.

SASOI BATEKO KONTUAK

## Demetrio Iriarte lehen presidentea

Basotxoko estatutuak 1982an sinatu zituzten. Lehen presidentea Demetrio Iriarte txistularia izan zen eta alboan honako batzordekideak izan zituen: Juan Jose Galdos, Prudencio Ezkibel, Leonor Arantzabal, Calixto Eraña, Julian Uriarte, Salustiano Herrasti, Jose Mari Izagirre eta Francisco Alzola. Ia zortzi urte egin zituen Iriartek presidente, 1990eko urtarrilean dimititu zuen arte. Ondorengo presidenteak hauek izan dira: Ignacio Azkoitia, Esteban Gorroño, Eduardo Altube, Jesus Bengoa, Alvaro Zubillaga, Emiliano Altube, Pedro Mari Zubizarreta, Jose Ramon Rodriguez eta orain dagoen Martin Zaloña.

## Ospakizuna bihar, zapatua

- 11:00 Trikitilariak
- 11:30 Mus eta briska txapelketak
- 12:00 Patata tortilla txapelketa. Etxean eginda eroan behar dute.
- 13:00 Sari banaketa
- 17:00 Aurten 90 urte bete dituzten bazkideei omenaldia
- 17:30 Plaka jasotzea, bizi diren Basotxoko presidenteak bertan direla, eta txokolate beroa

DATUA

## 930

Hamaika bat erretiratu elkartu ziren 1979. urte inguruan, eta hiru urte geroago sortu zuten elkartea. 28 urte pasatu eta gero, 930 bazkide ditu Basotxok, eta bidaiak, berbaldiak, mendi irteerak eta ekitaldi asko antolatzen ditu.

**90 URTE BETETAKOEI OMENALDIA**

Basotxoko zuzendaritza batzordeak ohitura du Santa Luzia egunaren inguruan –hilaren 13an– urtean 90 urte bete dituzten bazkideak omentzea. Egun hori hautatu du Gipuzkoako elkarteak emango dion plaka jasotzeko. Debagoieneko erretiratuen arduradun Jose Riviereren eskutik jasoko du, eta Udaleko agintariak ere bertan izango dira. 25 urteko ibilbidea aintzakotzat hartu eta omentzea du helburu plakak, eta horregatik, urte horietan guztietan presidente izandakoak gonbidatu dituzte. 25 urtean hamar presidente izan ditu Basotxok; horietatik lau dagoeneko ez daude gure artean. Guztiak izango dituzte gogoan ekitaldian.

Ospakizuna goizean hasiko dute, mus, briska eta patata tortilla txapelketak eginda, eta trikitilariek girotuko dizkiete txapelketok. Eguerdi partean sariak emango dizkiete irabazleei, eta arratsaldean omenaldi ekitaldiok egingo dituzte: aurten 90 urte bete dituztenei lehenengo, eta elkarteari, berari, gero. Egun guztian, gainera, bainika erakustea izango dute.

Eta esan beharra dago elkarteak urte horietan guztietan antolatutako ekitaldi eta ospakizunetan ateratako argazkien bila dabilela zuzendaritza batzordea.



Kultura ekitaldia egingo du Hiruatxek eguaztenean, Ekuatore Gineako proiektuaren berri emateko

Bidezko merkataritza denda jarriko dute bihar, zapatua, 10:00etatik 14:30era, udaletxe zaharrean

**ELKARTASUNA** > EKUATORE GINEAKO KOOPERATIBA

# Ekitaldia, Hiruatxen proiektua azaltzeko



**PROIEKTUA** Mitemeleteko hainbat gizon proiektuaren gainean lanean; tartean Alberto Trojaola aretxabaletarra. HIRUATX

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Hirugarren Munduari laguntzea helburu duen Hiruatx elkartea Ekuatore Gineako Mitemelete herrian dabil azken proiektua garatzen. Orain dela urte bi jarri zuen abian, eta ordutik hona aurrerapen handiak egin dituzte. Herritarrei horren guztiaren berri emateko kultura ekitaldia antolatu du. Eguaztenean, hilak 19, egingo dute, Kurtzebarri eskolan.

**OILOAK HAZTEN**

Oiloak hazi eta saltzeko kooperatiba sortu dute. Dagoeneko, arrautzak erruten dituzten 2.000 oilo dituzte eta otsailean beste 8.000 gehituko zaizkie. Aipatutako oiloendako pentsua ekoizten dabiltza, gainera, 1.200 kilo orduan; eta helburua da kooperatiba bertakoek kudeatzea.

Hurrengo pausoa pentsua egiteko beharrezkoak dituzten artoa, juka eta soja ekoiztea da; 2008an 400.000 kilo dute aurreikusita. Horrekin, familiak elkarlanean jarri eta diru sarrera duinak lortu gura du Hiruatxek. Laster, gainera, Mitemeleteko eskola berritu eta altzariz hornituko dute aretxabaletar batek emandako dirulaguntzari esker. Hiruatxeko kideek diote oraindik badaudela lanak egiteko, baina lehentasunak garapen giza-ekonomikoa lortzea eta autogestioa dira, 70.000 euroko aurrekontuarekin.

**EKITALDIA EGUAZTENEAN**

Horren guztiaren berri eman eta laguntza lortzeko ekitaldia antolatu dute. Kepa Errasti aktoreak aurkeztuko du, eta proiektuaren berri emateaz gain Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako Almengo neska-mutikoek antzezlanak egingo dituzte.

Bihar goizean, ostera, bidezko merkataritza denda jarriko du udaletxe zaharrean.

> KONTZERTUA

### Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du bihar, 20:30ean

Kontzertua eskainiko du, urtero legez, Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak. Bihar, zapatua, izango da, 20:30ean parrokian. Azaroan Mexikon ibili ostean eskainiko du kontzertua orkestrak, Euskal Etxearen 100. urteurrenera gonbidatu zuten-eta.

> PARROKIA

### Ez dute mezarik esango astelehen eta martitzenean

Astelehenean eta martitzenean ez dute mezarik esango. Arrazoia da elkarteko adiskidetze sakramentua ospatuko dutela lehenengo Eskoriatzan, eta martitzenean, Aretxabaletan; 19:00etan izango da, parrokian.

> KONTZERTUA

### Gabon kontzertua Musika Eskolako ikasleen eskutik

Leizarra Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute guraso, lagun eta herritar guztiendako. Martitzenean, hilak 18, izango da, 18:30ean, parrokian.

Musika Eskolako txikienek, 4 eta 6 urte artekoek, Gabon kantuak eskainiko dituzte, eta ondoren, musika tresna ezberdinekin osatutako taldetxoek hainbat kantu joko dituzte.

**PALA TXAPELKETA** > FINALA

# Aitor eta Alex, Gari eta Urtziren aurka

**M.A.** > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako Jotzeko Prest! pala txapelketaren finala jokatuko dute gaur, 19:00etan. Aitor Altzola eta Alex Azkargorta aretxabaletarrek Urtzi Amiano arrasatearraren eta Gari Ibartzabal oñatiarraren aurka jokatuko dute. Partidua hasi arte egongo da porra egiteko aukera, eta bukatutakoan zozketa egingo dute asmatzaileen artean.

Giro bikaina sortuko da Iturrigorri pilotalekuan –animazioa egongo da partiduan–, eta ostean txikiteoa egingo dute. Txapelketa bukatzeko afaltzera joango dira Muru Alde elkartera 60 bat lagun, Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariak lagun hartuta.



**JOKALARIAK** Finalean izango diren Aitor Altzola eta Alex Azkargorta. LORAMENDI EE

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

RaijinTattoo
MANTENDU DEBAGOIENA EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!
Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintatoo

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Zenbaki
Aholkulariak
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

**ERABERRITZE LANAK** > SAN LORENTZO ETA ERREKALDE

# San Lorentzo eta Errekalde eraberritzeko 725 mila euro

Hirigintza arloan 3 milioi euro eta erdi pasatxo inbertituko ditu Udalak

San Lorentzo eta Errekalde auzoen eraberritze lanetarako 725 mila euro



**SAN LORENTZO** Auzoan hainbat gune daude konpontzeko, zorua esaterako. GOIENKARIA

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Joan den hileko 29ko osoko bilkuran onartu zuten aurrekontua Oñatiko Udalean. Aurten, hirigintza alorrean inbertsio handiak egingo ditu Udalak; izan ere, 3.776.882 euro izango ditu lanok burutzeko.

Diru kopuru handiena kiroldegiko obrak amaitzeko eta likidazioa egiteko bideratuko dute: hain zuzen ere, milioi bat euro. Bestetik, beste diru kantitate handi bat bideratuko dute Urrutxuko zabortegia izandako lurrak garbitzeko eta lur horiek jasandako kalteak konpontzeko. Aurreikusten denaren arabera, martxoan hasiko dira lanok, eta, Udalaz gain, Foru Aldundiak beste 1.3000.000 euro ipiniko ditu.

**SAN LORENTZON, 952 MILA EURO**

Hirigintzara bideratutako diru kopuruaren barruan, San Lorentzo auzoa eraberritzeko lanen kostua ere badago. Izan ere, badira auzo horretan konpondu beharra duten hainbat gune; besteak beste, espaloiak, auzo osoan dauden eskailerak, garajeetarako sarrerak... Azken finean, urbanizazio alorrean auzo horrek dituen gabeziak eta hutsuneak konpontzeko bideratuko dute dirua. Hain zuzen ere, auzotarrak aspalditik kexu dira auzoan hainbat azpiegitura-gune zaharkituta eta egoera txarrean daudela ikusita. Bada, San Lorentzo eraberritzeko, 500 mila euroko aurrekontua du Udalak 2008ari begira,eta datozen urteetan, beste 450 mila euro inguru bideratuko ditu. Horrez gain, San Lorentzoko kirol-gunea egiteko ehun mila euro bideratuko dituzte. Diru hori, baina, kirol arloari dagokio, eta ez hirigintza atalari.

**ERREKALDEN PROIEKTUA EGITEKE**

Errekalde auzoko eraberritze lanetarako 225 mila euro zuzenduko ditu Udalak. Han ere badira azpiegitura alorrean dauden hainbat akats, eta horiek konpondu gura ditu Udalak. Auzotarrekin landuko dute proiektua.

**MENDI IBILALDIA**

## AHTren kontrako ibilaldia egingo dute

Abenduaren 15ean, zapatuan, egingo dute 'AHTren gainetik mendi ibilaldia'

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Oñatiko Gazte Asanbladak antolatu du mendi ibilaldia. Herriko Plazatik abiatuko da mendi martxa, 13:30ean, eta Arrasatera abiatuko dira parte-hartzaileak. Izan ere, Arrasaten 17:00etan manifestazio nazionala egingo dute, Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta.

**MANIFESTAZIO NAZIONALA**

Besteak beste, Oñatiko mendi ibilbidean parte hartzen dutenek Abiadura Handiko Trenak eragingo dituen txikizioak eta ondorio sozioekonomiko larriak salatu nahi dituzte. Hala, zapatuan 17:00etan Arrasaten Abiadura Handiko Trenaren aurka egingo den manifestazio nazionalarekin bat egingo dute. Manifestazioaren leloa *AHT Gelditu! Inposaketarik ez!* izango da. Hain zuzen, Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlanak zapatuko manifestazio nazionalean parte hartzeko dei egin du.

**KULTURA ETA HEZKUNTZA** > UMEENDAKO EMANALDIAK

## Herriko ume eta gaztetxo guztiendako emanaldiak izango dira aste bukaeran

Herri Eskolako guraso taldeak pailazoen emanaldia antolatu du eta Elkar Hezik antzezlana, gaztetxoendako

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Urtero bezala, aurten ere Errekalde Herri Eskolako guraso taldeak Gabon aurreko ikuskizuna antolatu du. Aurten, Korri eta Xalto pailazoen *Show berria prestatzen* ikuskizuna izango da herriko ume eta gaztetxoendako. Sarrera doan izango da. Abenduaren 15ean, zapatuan, 17:00etan eskainiko dute pailazoek ikuskizuna institutuko areto nagusian.

Emanaldiaren ostean, gaztaina erreak eta merienda izango dituzte bertaratzen diren gaztetxo eta umeek. Hala, guraso taldeak pailazoen emanaldira joateko gonbidapena egiten die herriko ume guztiei.

**'ROBIN HOOD, MITOA'**

*Robin Hood, mitoa* antzezlana izango da ikusgai zapatuan, abenduaren 15ean. Gorakada taldearen ikuskizuna 17:30ean Santa Ana aretoan izango da ikusgai. Elkar Hezik abenduko kultura egitarauaren barruan antolatu du antzezlan hori. Aktorez eta txotxongiloz osatutako ikuskizuna da *Robin Hood, mitoa*. Bertan, Robin Hood pertsonaiaren abenturak eta nondik norakoak kontatuko dira. Baita haren abenturetan lagun zituenen kontuak ere.



**KORRI ETA XALTO PAILAZOAK** Ikuskizuna zapatuan izango da. GOIENKARIA

**ALOÑA MENDI** > ANTOLATUTAKO EKINTZAK

## Argazki lehiaketako lanak ikusgai urtarrilaren 5a arte

Gaur egingo dute kultura etxean 'Mendia eta natura' argazki lehiaketako sari banaketa

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Astelehenean eman zuten Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako *Mendia eta natura* argazki lehiaketako epaia, eta gaur egingo dute sari banaketa kultura etxean, 19:00etan. Bi sailetan banatu dute lehiaketa –mendia eta natura bat eta bestea salaketa–, eta, hala, gai bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte; horrekin batera, urtarrilaren 5a arte ikusgai egongo den erakusketa zabalduko dute, hori ere kultura etxean; argazki lehiaketan sarituak izan diren lanak ipiniko dituzte.

Bestalde, Aloña Mendiko mendi sailak webgunea zabaldu du, eta bertan jasoko dituzte mendi sailak antolatutako mendi irteerak, argazkiak eta abar. Helbidea honako hau da: *www.aloña-mendi.com.*



**GASHERBRUM-II** Karakorumen.

**GASHERBRUM-II ESPEDIZIOA**

Bestetik, Pakistango Gasherbrum-II (8.035) mendia igotzeko asmoz Debagoienetik eta Urolatik joan zen gazte talde batek bizitakoaren gaineko ikusentzunezkoa ere antolatu du; kultura etxean, 19:30ean. G-IIko espedizioari buruzko emanaldia da, aurtengo mendi astean bertan behera gelditu zena.



**LIBURUAREN EGILEAK** Argazkian Esteban Arrieta, Arantza Untzueta, Pedro Lasagabaster, Atsegin Uzuriaga eta Mari Karmen Arrieta. IKER BARANDIARAN

DATUA

**1.000**

**AURPEGI BAINO GEHIAGO**

Liburuan eskoriatzarren 1.000 aurpegi inguru agertzen dira. Horietatik 800 bat identifikatuta dituzte eta aurkibidean izenez izen aurki daitezke guztiak.

ESALDIA

**"Liburuan joan den mendeko Eskoriatza jasota dago irudi adierazgarrien bidez; betiko geldituko den testigantza da, ezinbestekoa"**

**Pedro Lasagabaster** > Alkatea

**ARGITALPENA** > 'ESKORIATZA IRUDITAN' LIBURUA KALERATU DUTE

# Udalerriaren gaineko mende baten historia argazkitan

Joan den mendeko irudiak batu dituzte Udaleko Kultura eta Euskara batzordeek egindako lanean

1.300 argazkiz osatutako bildumatik 100 adierazgarrienak aukeratu dituzte

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Asteon aurkeztu dute *Eskoriatza iruditan* izeneko liburua. Eta liburuarekin batera argazkiz osatutako DVDa dator opari. Lanaren ardura nagusia Udaleko Kultura teknikari Arantza Untzuetak eta Euskara teknikari Mari Karmen Arrietak izan dute.

Aurkezpenean, bi egile horiez gain, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek eta Kutxako ordezkari Atsegin Uzuriagak esku hartu zuten. Udalak argitaratu du liburua, eta Kutxak diruz lagundu du.

**URTE ASKOKO LANA**

Arantza Untzuetak azaldu zuen orain dela 18 bat urte herriko argazkilari elkarte batek argazkiak batzeari ekin ziola. Gerora, elkartea desagertu zenean, bilduma Udalari eman zion. Era berean, Udalak umeei zuzendutako lehiaketa antolatu zuen argazki gehiago batzeko.

Gerora, Udalak beka bat deitu zuen argazki horiek katalogatu eta digitalizatzeko. Leire Parra arrasatearrak hartu zuen zeregin hori, eta lan handia egin zuen.

Horren ostean, Udalak ekin zion argazki gehiago batzeari eta ordura arte jasotako informazioa osatzeari. Are gehiago, bilduma aurtengo San Pedro jaietan *eskoriatza.net* webgunean sartu dute, eta kultura etxean argazki guztiak proiektatu zituzten. Horren ondorioz, herritar askok jo zuten udaletxera argazkiak eramatera eta argazkien gaineko zehaztasunak ematera. Informazio hori guztia oso baliagarria izan da egileendako.

**ARGAZKIAK AZALPENEKIN**

Udaleko ordezkariek jakinarazi zuten Internet ez duela jende guztiak erabiltzen. Horregatik, aukeraketa eginez, liburu bat kaleratzea pentsatu zuten: "Ez da berdina Interneten argazkiak hotzean ikustea edo liburu baten bakoitzaren azalpenarekin aberastuta", azaldu zuen Arantza Untzuetak.

Are gehiago, liburuak 1.300 argazkiz osatutako DVDa ere badakar opari; hain zuzen, irudiak bata bestearen atzetik ikusteko aukera ematen duena.

Mari Karmen Arrietak azpimarratu zuen saiatu direla lana zorrotz egiten eta argazki bakoitzaren gaineko ahalik eta dokumentazio gehien batzen: "Beti ez da posible izan ehuneko ehunean, baina pentsatu dugu hobe dela akats edo gabezia batzuekin lan bat jendaurrean jartzea, betiko, zero akatsen bila, gordeta izatea baino".

**"MENDE BATEN HISTORIA"**

Argazki zaharrenak XIX. mende bukaerakoak dira eta handik aurrera beste asko daude. Liburuan, guztira, ehun bat argazki batu dituzte: "Daukagun bildumatik aukeraketa egin dugu. Saiatu gara herria eta herritarrak ondoen deskribatzen eta ordezkatzen dituzten argazkiak liburuan sartzen", azaldu zuen Mari Karmen Arrietak.

Are gehiago, Pedro Lasagabaster alkateak liburua deskribatzeko orduan azpimarratu zuen *Eskoriatza iruditan* lanak "mende baten historia" jasotzen duela.

**IRUDIAK BERBEKIN OSATUTA**

Liburuaren protagonistak Eskoriatza eta eskoriatzarrak dira, eta hori irudikatzeko argazkiak erabili dituzte. Horrekin batera, argazki bakoitzaren gaineko azalpenak sartu dituzte; eta baita beste argitalpenen batzuetan Eskoriatzaren gainean agertutako idatziak ere. Besteak beste, Jose Aranburuzabala *Trankilen* liburukoak eta *Eskoriatzarrak berbetan* proiektuan jasotako edadetuen testigantzak ere.

Liburuan ez dira falta, zelan ez, udalerriko ezinbesteko irudi diren Aitzorrotz eta Axtrokiko ontziak, besteak beste.

**IZEN GUZTIAK AURKIBIDEAN**

Aipatutako liburuan mila aurpegi inguru agertzen dira, eta horietatik, egileek 800 bat identifikatuta dituzte. Horiek guztiak liburuaren aurkibidean agertzen dira. Hala, oso erraza da norberaren, senitartekoen edo lagunen irudiak zuzenean aurkitzea.

Liburua hainbat ataletan banatu dute, eta Eskoriatzaren eta eskoriatzarraren iragana eta historia ezagutzeko aukera aproposa ematen du. Esaterako, ikazkinek eta inudeek zer-nolako lana egiten zuten eta abar.

**HERRITAR ASKOREN LAGUNTZA**

Liburuaren egileek azpimarratu gura izan zuten herritarren laguntza ezinbestekoa izan dela: "Eurei esker dokumentatu ahal izan gara, eta uneoro argazki gehiago eta gehiago ekartzen dizkigute. Egunotan batutako irudi eta aldaketak webgunean berritzen joango gara uneoro".

## Hilaren 21ean jarriko dute salgai liburua

Azken orduko inprenta arazo baten ondorioz, liburua hilaren 21ean jarriko dute salgai herriko honako puntuetan, eta ez lehenago: Dorleta liburu dendan, tabako dendan eta Ibarraundi museoan.

Liburuaren 700 ale kaleratuko ditu Udalak, Kutxak lagunduta, eta 20 eurotan salduko dute ale bakoitza. Guztira, Eskoriatzaren eta eskoriatzarren gaineko 100 bat argazki batu dituzte liburuan, honako ataletan banatuta: *Eskoriatzako bazterrak; Familiak, lagunak, eskoriatzarrak; Jaiak, musika eta dantza; Eskoletako erretratuak; Lanbideak; Gertaera erlijiosoak; Kirola;* eta *Beste batzuk.*

Lan mardul horretako testu guztiak ez daude bi hizkuntzatan, baina bai euskara eta baita gaztelera ere, biak, batzen ditu: hau da, hainbat idatzi euskaraz daude eta beste batzuk, aldiz, gazteleraz. Liburuak 1.300 bat argazkiz osatutako DVDa dakar opari.




*Eskoriatza iruditan*-en azala. GOIENKARIA



**HATZABE TRIBUAREKIN** Lucero, Tanzania ekialdean Hatzabe tribuarekin; ehizatutako eperra jan zuten. GOIENKARIA

**BIDAIA** > AINITZE LUCEROK TANZANIA, KENYA ETA UGANDARA BIDAIA EGIN DU

# Afrika beltzarekin maiteminduta itzuli da Ainitze Lucero gaztea

Ainitze Lucero eskoriatzarrak Tanzania, Kenya eta Ugandara bidaia egin du azaroan; Ugandara berriro joateko asmoa duela jakinarazi digu

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Ainitze Lucero eskoriatzarra Afrika beltzean izan da azaroan. 26 egunean Uganda, Kenya eta Tanzania bisitatu ditu, eta hunkituta etorri da handik.

Lucerok aspalditik zeukan Afrikara joateko ametsa: "Amak Afrikaren gaineko dokumental guztiak ikusten zituen telebistan, eta neuk ere bai. Hala, niretako amets bihurtu zen hara joatea", azaldu zigun Lucerok.

**UGANDARA ITZULTZEKO ASMOA**

Luceroren asmoa zen Tanzania ezagutzea, hango oihanak eta beste, baina kontratatu zuen bidaian Kenya eta Uganda ere sartuta zeuden.

Antolatutako bidaia kontratatu zuen eskoriatzarrak: "Halako bidaia bat egiten nuen lehenengo aldia zen eta badaezpadaedo hala egitea pentsatu nuen", argitu zigun Lucerok.

Bidaia-lagun jatorrak izan zituen Afrikan: "Gehienak espainiarrak ziren, eta baziren lau kataluniar ere. Ni nintzen gazteena, baina oso giro ona izan genuen taldean; asko gozatu genuen bidaian guztiok".

Tanzania asko gustatu zitzaion. Hain zuzen ere, herrialde hartako bi parke nagusiak bisitatu zituen: Serengeti eta Ngorongoro: "Abere ugari ikusi genituen gertutik, eta itzela izan zen: lehoiak, elefanteak, errinozeroak, hipopotamoak... Halako baten, gainera, hipopotamo bat lasterka metro batera pasatu zitzaigun. Oso arriskutsuak dira...".

Abereek erakarrita joan zen arren, Ugandak maiteminduta utzi zuen: "Ugandaren gainean ez neukan inolako erreferentziarik, eta berdin zidan hara joan edo ez. Baina ustekabe handia izan zen: Ugandako jendeak zur eta lur utzi ninduen. Haien jakiteko gogoa, hain irekiak izatea, beti laguntzeko prest...".

**UGANDARA ITZULTZEKO ASMOA**

Lucerok oso argi dauka Ugandara itzuliko dela, eta are gehiago, bere kontu joango dela: "Nire ustetan, bakarrik bidaiatzea oso esperientzia aberasgarria da. Zuk zeuk daukazun hizkuntza gaitasun urriarekin jendearekin eta egoeren aurrean moldatzen ikasi behar duzu. Nik, adibidez, Ugandan ingelesa, mimoa eta swahilia erabili nituen".

**MUSIKA** > GOVERNORSEN KONTZERTUA

## Governors taldea Inkernuren laugarren urteurrenean

Talde arrasatearrak 'Itxaron beharra ez da itxaropena' diskoa aurkeztuko du Inkernun

**I.B.** > ESKORIATZA
Inkernu tabernak lau urte bete ditu abenduan. Hori ospatzeko, ez dute ekitaldi berezirik antolatu beste hilabete batzuekin alderatuta. Hala ere, ahalegin berezia egin dute musika kontzertu entzutetsua egiteko.

Hala, gaur, egubakoitza, Governors talde arrasatearra izango da tabernako agertokian, 22:30ean. Oihuka diskoetxearekin kaleratu berri duten *Itxaron beharra ez da itxaropena* diskoa aurkeztuko du talde horrek Eskoriatzan.

**ESKARMENTU HANDIA**

Governors taldearen bultzatzaile nagusia Juan Sangre arrasatearra da. Hura izan da Brutal Melody, Ekon eta Fjord talde arrakastatsuen konposatzaile nagusia.

**MELODIA HANDIKO ROCKA**

Governors taldea aipatutako Juan Sangrek (abeslaria), Heloyk (bateria jotzailea), Beñatek (baxu jotzailea) eta Aitorrek (gitarra jotzailea) osatzen dute.

Rock indartsua egiten dute, ahots melodia handiarekin, Fjorden ildoari jarraituta; eta euskaraz abesten dute.

**GABONETAN, THE 5 TWISTERS**

Inkernuko arduradunek jakinarazi dute hilaren 25ean The 5 Twisters taldea izango dutela tabernako agertokian kontzertua egiten.



**TALDE INDARTSUA** Argazkian, Governors taldea. GOVERNORS

> AZPIEGITURAK

### Batzar Nagusietako EB-Berdeek Zarimuzko istripuaren gaineko azalpenak eskatu dituzte

Gipuzkoako Batzar Nagusietan Ezker Batuak-Berdeak taldeko ordezkari Arantza Gonzalezek eskatu du Aldundiko Errepide eta Azpiegituren arduradun Eneko Goyak autobideko lanetan Zarimutzen gertatutako istripuaren gainean azalpenak ematea.

EB-Berdeak taldeak kezka handia du joan den egubakoitzean Zarimutzen, Eibar-Gasteiz autobidearen lanetan gertatutako istripuaren gainean. Ez zen zauriturik izan, baina 15 metroko altuera eta 30 metroko oinarria daukan horma jausi zen. Gonzalezen esanetan, batzarkideek istripu horren "zergatiak, arazoari konponbidea emateko eginbeharrak eta konponketaren iraupenaren" gaineko informazioa jasotzeko "eskubide osoa" dute.



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01
MONDRAGON

**UDALA** > ABENDUKO OSOKO BILKURA

# Zinegotzi eta alderdiendako diru kopuruen gaineko adostasunik ez

## Bozketan berdinketa gertatu zen eta alkateak erabaki zuen mahai gainean lagatzea gaia

## Gobernu batzordearen proposamenak diru kopurua murriztea aurrez ikusten du

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Abenduko osoko bilkuran, besteak beste, udal talde eta zinegotziek jasotzen dituzten dirulaguntzen gaia landu zuten. Ogasun batzordeak aurkeztutako proposamena ez zuten onartu, bozketan berdinketa gertatu zelako. EAEko zinegotziek aldeko botoa eman zioten proposamenari, Paco Morcillo (PSE-EE) abstenitu egin zen eta gainerakoek aurkako botoa eman zuten. Alkateak erabaki zuen kalitatezko botoa erabili beharrean gaia mahai gainean lagatzea.

**KOPURUA MURRIZTEA**

Ogasun batzordearen proposamenean, zinegotziei eta udal taldeei emandako diru kopurua murriztu egiten da. Gaur egun, gastua 23.262 euro da, urtean. Proposamena onartzekotan, 20.520 euro izango litzateke. Batetik, proposatzen da zinegotzi bakoitzak hilero 75 euro jasotzea eta ez 90 euro, orain bezala. Bestalde, batzordeetako arduradunek jasoko lukete 105 euro, eta ez 90 euro orain bezala. Azkenik, eta aldaketa handiena, izango litzateke honakoa: udal taldeek ordezkari kopuruaren araberako dirukopurua jasotzea. Gaur egun, guztiek jasotzen dute kopuru bera: urtean 1.540 euro. Proposamena onartzekotan honako kopuruak jasoko lituzkete: EAEk, 2.945 euro; EAJk, 1.767; Zutik-EB-Aralar udal taldeak, 1.178 euro; eta PSE-EEk, 589 euro.

Zutik-EB-Aralar udal taldeko zinegotziek aurkako botoa eman zioten. Honela berba egin du Pilar Etxanizek: "Proposamena landu gabe zegoen eta zinegotziok hiru egun lehenago jaso genuen proposamena; ez dugu izan astirik behar bezala aztertzeko eta alternatibak aurkezteko". Edukiari dagokionez ere, ez daude ados: "Ados gaude diru kopuru osoa murriztearekin, baina, ez banaketarekin; EAE irabazten irteten da eta gainerakook galtzen". Pedro Iturbe alkateak erantzun zien euren udal taldeko kide batek Ogasun batzordean parte hartzen duela.

Joxi Beltran EAJko zinegotziak honela azaldu du euren desadostasuna: "Alderdiek ordezkaritza kopuruaren araberako kopurua jasotzearekin ados gaude, baina ez batzordeburuei kopurua igotzearekin; helburua baldin bada kopuru osoa jaistea, denoi berdin eragin beharko liguke neurri horrek".

**bere ustez**



Kontxi Laskurain

## Herriari bizitasuna eman nahian

Antzuolan beti egon dira *ekintzaileak* merkataritzan eta industrian. Honen adibide, 1767. urte inguruan oihalgintzan izan zuen arrakasta; orduan Peñafloridako Kondeak Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko zalduntxoei Antzuolako marragaz janzteko eskatu zien.

1942. urte inguruan –Antzuolak 1.528 biztanle zituela– 60 merkatari, taberna eta fabrika zeuden, eta horien artean famatua zen Tellerianeko kurtiderixia: gerra zibilean, bertan lanean zebiltzan neskak kartutxeretan euren helbidea sartzen ei zuten eta frentean zeuden mutilek kartak bidaltzen ei zizkieten.

**"Denda eta taberna asko itxi dituzte, baina zabaltzen ere hasi direla ikustea poztekoa da"**

Azken urteetan denda eta tabernak asko gutxitu badira ere, poztekoa da gaur egun zabaltzen ere hasi direla ikustea: pelukeria berria inauguratu dute, mertzeria berria zabaltzekotan dira eta gaurko mertzeria natur-denda bihurtzekotan da...

Herria mugitzen hasi dela eta, Antzuolako Merkatarien Taldea sortu eta *El Niño*-rako loteria atera dugu. Gure aurreko *ekintzaileak* baino umilagoak gara ospean eta kopuruan, baina herriari zerbitzua ematen jarraitzeko ilusioa badaukagu; horregatik, hor doa gure gonbita: "Ondo pasau eta herrian gastau".

**ALARDEA** > EUSKO IKASKUNTZAREN IKERKETA

# Alardearen ikerketaren gaineko emaitzak prest

## Urtarrilean aurkeztuko dituzte Mairuaren Alardearen gaineko emaitzak, Gabonak ondoren

**A.I.** > ANTZUOLA

Antzuolako Udalaren eta Mairuaren Alardearen Elkartearen ekimenez, Eusko Ikaskuntzak alardearen gaineko azterketa egin du; Xabier Kerexeta eta Margaret Bullen izan dira azterketaren arduradunak. Batetik, Mairuaren Alardearen azterketa historikoa egin dute. Bestetik, azterketa soziokulturala.

Azterketa historikoari dagokionez, Xabier Kerexeta historiagilea arduratu da, batez ere. Aztertu dute alardeak izan duen garapena historian zehar, baita zein oinarri historiko duen ere.

Bestalde, azterketa soziokulturala egin dute. Herriko arlo guztietako jendearekin elkarrizketa sakonak egin zituzten, batetik. Bestetik, herriko jaietan, herritarrei inkestak egiten ibili ziren.

Azterketa horien emaitzak oraingo astean aurkeztu dituzte Eusko Ikaskuntzako kideek, Udaleko eta Mairuaren Alardearen Elkarteko ordezkarien aurrean. Urtarrilean egingo dute jendaurreko aurkezpena. Oraindik ez dute egunik zehaztu. Herritarrek esandakoa eta alderdi historikoa oinarri hartuta, Eusko Ikaskuntzak bere proposamena aurkeztu du; hainbat aldaketa txiki proposatzen dituzte, batez ere mairuaren irudia duintzeko.

> ERRETIRATUAK

### Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko karta partidak jokatuko dituzte datorren astean

Astelehena eta eguena bitartean, erretiratuen Gipuzkoako karta txapelketarako sailkatzeko partidak jokatuko dituzte. Astelehenean, abenduak 17, puntto partidak jokatuko dituzte; martitzenean, briska; eguaztenean, tute; eta eguenean, mus partidak. Erretiratuen lokalean izango dira guztiak, 17:00etan.

> UMEAK

### Txotxongilo taldeak 'Erreka Mari' antzezlana eskainiko du bihar, zapatua, umeendako

Hogeita bost urte igaro eta gero, Txotxongilo taldeak *Erreka Mari* antzezlana berreskuratu du eta bihar, zapatua, Antzuolako umeek ikusteko aukera izango dute. Euskal mitologiaren mundura gerturatuko ditu umeak ikuskizun horrek. Saioa izango da bihar, zapatua, 18:00etan, Udal Liburutegian.

> MOTOR TALDEA

### Motor Eguneko afarirako izena emateko aukera dago Arin jatetxean datorren eguenera arte

Abenduaren 22an aurkeztuko dute jendaurrean Antzuolako Motor Taldea. Egun horretarako antolatu dituzte erakusketa, ibilaldi bat eta afaria, besteak beste. Afarian parte hartzeko izena eman behar da hilaren 20a baino lehen Arin jatetxean.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**GABONAK** > HAINBAT EKINTZA DAUDE IRAGARRITA

# Bihar, zapatua, bigarren eskuko gauzen azoka egingo dute plazan, 11:00etan hasita

Herriko 40 bat neska-mutikok gaur arratsaldean emango diote hasiera Gabonetako pilota txapelketari

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Gabonak hemen ditugu, eta berrerabilpena bultzatzeko bigarren eskuko gauzen azoka egingo du bihar Udalak. Herritarrek eramandako materialarekin egingo dute. Batutako dirua Ciudad Juarezko emakumeekin lan egiten duen elkartearendako izango da.

Gaur, berriz, Gabonetako pilota txapelketaren lehenengo saioa egingo dute frontoian. 40 neska-mutikok eman dute izena eta arratsaldez egingo dute pilotan.

**BATUKA ERAKUSTALDIA**

Martitzenean, hilaren 18an, batuka erakustaldia egingo dute gaz-te-batuka ikastaroko parte-hartzaileek. Ordu erdiko saioa egingo dute, 18:30ean hasita, Bolatokiko gimnasioan. Gazteek asmatutako koreografiak eskainiko dituzte.

**OLENTZERO ETA JOKOAK**

Gabon egunean, Olentzeroren bila joateko irteera antolatu du Guraso Elkarteak. 10:00etan irtengo dira Intxortara. 17:30ean txokolate-jana egingo dute eta 18:30ean etorriko da Olentzero. Musika Eskolako umeek, gainera, kantu sorta eskainiko du. Hilaren 28rako, berriz, *Altxorraren bila* jokoa prestatu dute. Bi joko egingo dira. 10 urtetik gorako umeek aurrez izena eman behar dute udaletxean.

**GARBITZE LANAK** > HITZORDUA BIHAR, ZAPATUA, 09:00ETAN

# Deia, Beizu-Azulako bidea auzolanean garbitzeko

**L.Z.** > ELGETA

Hilaren 1ean Beizu eta Azula baserrietako bide-bazterrak garbitzeko lanetan aritu ziren bidearen erabiltzaile batzuk auzolanean. Bidearen hasieratik Azula eta Beizu baserrietako bidegurutzerainoko zatia garbitu zuten. Eta gelditzen den zatia garbitzeko biharko, zapatua, egin dute hitzordua, 09:00etan.

Udalak, gainera, jakinarazi du ordenantzako 23. artikulua aplikatuko duela aurrerantzean. Honela dio artikulu horrek: "Norbaitek auzolanean ezingo balu parte hartu, bera ordezkatuko lukeen bat jarri beharko luke, edo bestela orduko 10 euro ordaindu".

**HOBI SEPTIKOAK GARBITZEA**

Eskaerak jaso dituela-eta, hobi septikoak garbitzeko gestioak abiarazi nahi ditu Udalak. Lan horien kostua interesatuen artean banatuko da eta aurrekontua eskatu ahal izateko ezinbestekoa da zenbat hobi septiko garbitu behar diren jakitea. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena abendu amaierarako.

> ARRANDEGIA

### Arrandegia martxan jartzea kolokan, arraina nork ekarri ez dagoelako

Abenduaren 11n zabaldu nahi zuen Elgetako arrandegia Puri Piñeiro eibartarrak. Ez da, baina, posible izango: "Lotuta neukan arraina Merkabilbaotik nork ekarri, baina atzera egin du pertsona horrek". Saiakera gehiago egin ditu, baina ez du lan hori egingo dionik lortzen. "Ez dakit arrandegia zabaltzea lortuko dudan".

> AUTOKARABANA

### Arrasateko AHTren aurkako manifestaziora joateko deia egin dute

AHT Gelditu Elkarlanak manifestazio nazionala deitu du hilaren 15erako, zapatua, Arrasaten. Elgetako hainbat taldek deialdia egin dute manifestazio horretan parte hartzeko. Hala, Elgetako Herriko Plazatik irtengo den autokarabanan parte hartzera deitu dute. 16:15erako egin dute hitzordua. Manifestazioa 17:00etan da.

> KONTZERTUA

### Lau taldek kontzertua egingo dute zapatuan, 22:00etan, gaztetxean

Zaldibarko lau taldek egingo dute kontzertua bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean: Santos Dolidos, Disorders, Noisex eta Street Girls taldeek, hain zuzen ere.

*Herri bat, gaztetxe bat* lelopean egingo dute kontzertua eta rock eta metal doinuak entzuteko aukera emango dute. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

> ERRETIRATUEN BATZARRA

### Urteroko batzarra eta merienda egingo dituzte zapatuan

Elgetako erretiratuek urteroko batzarrerako dei egin dute. Zapatuan, hilaren 15ean, egingo dute batzarra, 17:00etan hasita.

Batzarraren osterako, gainera, merienda iragarri dute. Bazkide guztiak daude batzar horretan parte hartzera deituak. Oskarbi elkartean egin dute hitzordua.

> BOLETA TXAPELKETA

### Jabier Osoro, oraingoz, lehenengo sailkatua bost txirlo botata

Bihar, zapatua, jokatuko dute Elgetako bolatokian Gabonetako boleta txapelketako bigarren jardunaldia. 23:00etan hasiko da tiraldia.

Oraingoz, Jabier Osorok hartu du aurre sailkapenean. Bost txirlo bota zituen abenduaren 1ean egindako lehenengo jardunaldian.




Kantariko saioak telebistan

**Martitzenetan,**
20:15ean
Errepikapena: eguaztenetan, 13:47ean

**Eguenetan,**
20:15ean
Errepikapena: eguaztenetan, 13:47ean

Telebistan noiz agertuko zaren jakiteko irakurri Asteleheneko Goienkaria.
Asteleheneko Goienkaria etxean jasotzeko deitu
902 36 38 51 telefonora.

BABESLEA
gaztetxoen elkartea club juvenil

ANTOLATZAILEA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK
2tan Karaokea · ingou · Aranzadi ikastola · Elkar Hezi · Arizmendi ikastola · goieskola · Txantxiku ikastola

**UDALA** > HIRIGINTZA

# Babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzea da Udalaren helburua

Udalak 2008ko martxoan aurkeztuko du HIrigintza batzordeak landutako plan orokorra

Erdoitza eta Bolintxo artean industrialdea egitea da Hirigintza batzordearen asmoetako bat

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Aramaioko udalbatza hirigintza plan orokor berria lantzen ari da. Azken plan orokorra orain dela 10 urte inguru egin zen. Horren ondorio dira Iturri Zuriko urbanizazioa eta Pedro Ignacio de Barrutia kalean egiten ari diren babes ofizialeko etxebizitzak. Azken horiek 2009an bukatzea aurreikusten da; 40 etxebizitza dira guztira.

Plan orokor berria aurreko agintaldiko udalbatzak hasi zuen, eta asmoa zen aurtengo azaroko osoko bilkuran onartu eta Arabako Diputazioan aurkeztea. Udalbatza berriak, baina, ez zituen begi onez ikusten bertako zenbait proiektu. Hori horrela, beste plan orokor bat lantzea erabaki zuten eta Diputazioari plana aurkezteko epea luzatzeko eskatu diote. Hirigintza batzordeak espero du datorren urteko martxorako euren proiektuak Diputazioan aurkeztu ahal izatea. Dena dela, hori egin aurretik, Hirigintza batzordeak herritarrei aurkeztuko die plana; urtarrilean auzoetako bizilagunei eta otsailean Ibarrakoei. Plan orokorra nahiko aurreratuta dagoela adierazi dute Hirigintza batzordetik. Martin Arriolabengoa batzorde horretako burua da eta azaldu du egin nahi dituzten proiektuen bideragarritasuna aztertzen dabiltzala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Espritur enpresa kontratatu dute.

**INDUSTRIALDEA**
Erdoitza eta Bolintxo arteko lurretan industrialdea eraikitzea da hirigintza planean jasotzen den proiektuetako bat. Arriolabengoak adierazi du Udalak ezin duela bere gain hartu industrialde hori eraikitzeak dakarren gastua. Hori horrela, bi aukera daudela azaldu digu : "Aukera bat da enpresa txikiak erakartzea, eta bestea, industrialdeak eraiki eta kudeatzeaz arduratzen den enpresaren bat kontratatzea". Espritus bera edo Alava Desarrollo enpresa dira horretarako aukeretako bi.


**INDUSTRIALDEA** Bolintxo eta Erdoitza tartean industrialdea eraiki nahi dute. ARRITXU BARRUSO

**IBARGOIAN ETXEBIZITZAK**
Ibargoian etxebizitza berriak eraikiko dituzte, bertako zirkulazio arazoari irtenbidea emateko. Espazio gehiago lortu eta aparkalekuak egitea da asmoa. Etxebizitza gehienak babes ofizialekoak izango dira. Herriko Plaza, bestetik, oinezkoentzat bakarrik izatea da asmoa. Hori egiteko, baina, Matxinkaleko zirkulazioa beste alde batetik bideratu beharko dute.

Hirigintza plan orokor horretan, bestetik, lur zati bat utziko dute etorkizunean zaharren egoitza eraikitzeko, eta beste bat suhiltzaileen parkea egiteko. Dena dela, zehazteke dago oraindik zer lur zati izango diren horiek.

Hirigintza batzordetik azpimarratu dute plan orokorrean babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak eraikitzea izan dela lehentasunetariko bat.

**HIRIGINTZA** > HILTEGIA

## Garai bateko hiltegia birgaitzeko proiektua hurrengo osoko bilkuran aurkeztuko dute

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA
Aramaioko eraikin esanguratsuenetako bat da garai batean herriko hiltegia izan zena. Egoera kaskarrean dago egun eta eraikina birgaitzeko proiektua nahiko aurreratuta dago jadanik. Arabako Foru Aldundiaren Arabarri enpresa ari da birgaitze proiektu hori egiten. Arabarri enpresak herrietako erdiguneak zaharberritzen ditu. Abenduari dagokion osoko bilkuran aurkeztuko da Arabarrikoek egindako proiektua, eta onartuz gero Foru Planean aurkeztuko dute Diputaziotik dirulaguntzak jaso ahal izateko.

Birgaitze lanen aurrekontua 135.000 euro da. Horietatik 60.000 Arabarrik jarriko ditu eta gainontzeko dirua Diputazioko Foru Planetik jasotzea espero du Udalak.

Eraikinaren fatxada mantentzea da asmoa. Izan ere, eraikin hori da Ibarrako garai bateko etxeen ezaugarriak mantentzen dituen bakarra. Hau da, eskailerak kanpoaldean dauzka, eta balkoian komuna. Lehenengo solairuan, hiltegiak lurzoruan zituen errailak ere mantendu egingo dituzte. Horretarako, tarima flotatzaile bat jarriko dute, kristalezkoa izango dena. Lehenengo solairua erakusketak egiteko erabiliko da eta bigarren eta hirugarren solairuaren erabilera zehazteke dago oraindik. Baina baliteke udaletxean teknikariek lan egiteko erabiltzea.


**HILTEGIA** Birgaitze lanetan fatxada mantenduko dute. ARRITXU BARRUSO

**UDALA** > AURREKONTUA

## Herritarrekin aztertu nahi dute udal aurrekontua

Zapatuan, 2008ko aurrekontuaren inguruko informazioa emango du Udalak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Udalbatza berria 2008ko udal aurrekontua lotzen ari da azken asteotan. Eguaztenean bilera egin zuen Ogasun batzordeak, aurrekontuari azkeneko ukitua emateko. Hori egin ostean herritarrekin aztertu gura dituzte hartutako erabakiak. Horretarako, herritarrei deialdia egin die Udalak, zapatuan goizeko hamarretan. Bertan, orain arte aurrekontua nola banatu duten azalduko dute Udaleko bi ordezkarik. Herritarrek horren inguruko iritzia eman ahal izango dute. Udalak gura duena da aurrekontua osoko bilkuran aurkeztu aurretik herritarrei iritzia emateko aukera eskaintzea.

> ZINEMA

### Domekako 'Kiriku eta Sorgina' filmak Afrikako ume baten istorioa kontatuko die txikitxoei

Astero moduan Aramaioko gaztetxoek zinemarekin hitzordua daukate domekan, kultura etxean, arratsaldeko bostetan. *Kiriku eta Sorgina* filma izango dute ikusgai aste honetan. Kiriku Afrikako herrixka bateko haurra da. Sorgin maltzur batek bere herrixkako gizonezko guztiak suntsitu ditu, bat izan ezik. Baliteke, beraz, Kiriku izatea euren azkeneko itxaropena.

**GURASO ELKARTEA** > GABON EKITALDIAK

# Olentzero eta zuhaitza jarriko dituzte umeek eta gurasoek elizpean, domekan

Jaiotza jarri izan dute orain arte, baina aurten, horren ordez, Olentzero eta zuhaitza

Aitziber Gorosabel eta Nerea Maruri hautatu dituzte Gureleko zuzendaritzako kide

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak batzarra egin zuen hilaren 3an zuzendaritza batzordea berritzeko asmoarekin. Bost lagun bakarrik agertu ziren, baina gaiek aurrera egin zuten elkartutakoen oniritziarekin. Gurutze Orbegozo presidenteak eta Ana Milan diruzainak batzordea utzi zuten, eta haien ordez beste bi guraso hautatu zituzten: Aitziber Gorosabel eta Nerea Maruri. Haiekin batera jarraituko dute lanean, batzordean, Eguzkiñe Alberdik eta Ainara Zubillagak. Karguak aurrerago banatzekotan geratu ziren.



**GABONAK** Azken urteotan jaiotza jarri izan dute herria apaintzeko; aurten, Olentzero eta zuhaitza jarriko dituzte. GOIENKARIA

**HITZORDUA, DOMEKAN, 11:30EAN**

Batzar hartan bertan Gabon ekitaldiak antolatzen hasi ziren. Aurreko urteetan jaiotza jarri izan dute Gureleko kideek elizpean, baina aurten, Olentzero, inguruan ume batzuk eta zuhaitza jartzea erabaki zuten. Domekan, hilak 16, elkartuko dira ume eta gurasoak elizpeari Gabon itxura emateko; 11:30ean dute hitzordua. Eta lanean jardun ostean, txistorra mokadutxoa jasoko dute saritzat guztiek, Toki Eder elkartean.

> AZPIEGITURAK

## Gasaren lanak egiteko hiru enpresa aurkeztu dira

Gasaren hodiak sartzeko bigarren faseko lanak lehenbailehen hasi gura ditu Udalak. Hala, eguaztenean, hilak 12, itxi zuen lanok egiteko enpresei egindako deialdia. Hiru aurkeztu dira, eta egindako eskaintzak aztertu beharko ditu Udalak datozen egunotan, egokiena hautatzeko. Asmoa da hilabete bukaeran osoko bilkura egitea, enpresa izendatzeko.

> INTERNET

## Ikastaroak aukeran KZgunean, gaur eta hilaren 28an

Gaur, hilak 14, eta 28an, Pilar kalean dagoen KZgunean izango da Aitor Madrid dinamizatzailea. 16:00etatik 18:00etara bitartean norberak aukeratutako ikastaroa egin ahal izango dute gatzagarrek. Eskainiko dituen ikastaro batzuk zerbitzuen gainekoak dira; beste batzuk aisialdirekin zerikusia dutenak; eta administrazioarekin harremanetan jartzeko zein aukera dauden azaltzeko ere gertu egongo da Madrid.

PROMOCIONES ARAMAIXO

11 etxebizitza berri Aramaioko erdigunean





- Aramaio, zerbitzu guztiak dituen herria.
- Eraikuntza-fase oso aurreratua.
- Erabilgarriak diren 166 m²-tik gorako etxebizitzak, 89 m²-ko beheko solairua bi-hiru ibilgailurentzako garajearekin.
- 480.000 €-tik aurrera.
- Lursaila eta 24m²-ko terraza.
- Polo Garaia berrikuntza gunetik 8 minutura.



Informazio gehiago:
630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65
Nardeaga kalea 26

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA

# Cafes Aitonaren kontra bigarren itzuliko lehena

Lehenengo itzulia amaituta, jardunaldi bateko atsedenaldia izan eta gero bueltan da Mondragon Unibertsitatea; Merinoren mutilek Cafes Aitona izango dute aurrean

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak oso ondo egin beharko ditu gauzak lehenengo itzulian egindako lan ona hobetzeko (zortzi partidu irabazi eta bakarra galdu dute). Gainera, ligako kontrario gogorrenen kontra jokatu dutenean etxetik kanpora egin dute, eta Valsay Ardoi talde nafarra bakarrik izan da talde morea mendean hartzeko gauza. Orain, talde horiek Iturripetik pasa beharko dute, eta berez, Arrasatekoak hor dira benetan indartsu.

**CAFES AITONA**

Lehenengo itzulia hasteko, Mondragon Unibertsitateak laugarren postuan dagoen Cafes Aitona taldearen bisita izango du bihar (18:00etan Iturripen).

Liga hasieran, Arrasateko taldeak 75-87 hartu zuen mendean Cafes Aitona, eta donostiarrak errebantxa bila gerturatuko dira Arrasatera, nahiz eta kontrarioek dagoeneko badakiten Iturripeko kantxan puntuak garesti saltzen dituztela.

**BALORAZIOA, ONA**

Bigarren itzulia hastear, MUko entrenatzaile Iñaki Merinok denboraldi erdiaren balorazioa egin du, noski, ona. Eta ez bakarrik taldeak zortzi partidu irabazi dituelako, baita ere, harrobiko jokalariak kantxaratu dituenean horiek neurria eman dutelako.

Etorkizunera begira, entrenatzaile gasteiztarrak dio hurrengo entrenamenduan baino ez dutela pentsatu behar, hurrengo norgehiagokan. Bada, hurrengoa, bihar arratsaldean.



**GAZTEAK ONDO** Merinok azpimarratu du gazteek neurria eman dutela. J.A.

> XAKEA

## Asier Etxagibel berriro Gipuzkoako txapeldun

Arrasateko San Andres Xake Taldeko Asier Etxagibelek berriro ere jantzi du Gipuzkoako txapelketako txapela. Etxagibelek infantil mailan esturatu zuen lehenengo saria, eta kadete mailan dagoeneko birritan errepikatu du lorpena. Hain zuzen ere, 15 urteko xakelariak txapelketan jokatu zituen sei partidetatik bost irabazi eta bakarra galdu zuen.

> PATINAJEA

## Gabonetarako patinaje ikastaroa antolatu dute

Aretxabaletako kirol zerbitzuek patinaje ikastaroa antolatu dute abendurako eta urtarrilerako. Abenduan, 26an, 27an, 28an eta 29an egingo dute ikastaroa, eta urtarrilean, 2an, 3an, 4an eta 5ean. Guztira zortzi saio egingo dituzte, eta ikastaroa 4 urtetik gorako haurrendako antolatu dute.

Ikastaroan haurrak bi taldetan banatuko dituzte, hastapenekoak eta hobekuntzakoak. Informazio gehiago 943 71 26 28 zenbakian.



**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Ford Mugarrik liderraren bisita izango du domekan

Ford Mugarri Arrasatek Askartza Leioa hartuko du domeka goizean Iturripen (11:30); Bergarak, berriz, Portugalete taldearen kantxan jokatuko du bihar arratsaldean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Euskadiko txapelketan dagoeneko hamabi jardunaldi jokatu dituzte –talde gehienek, nahiz eta batzuek atzeratutako partidu bat duten–, eta hamabi jardunaldi horietan Askartza Leioa taldea azaldu da indartsuen. Bizkaitarrek norgehiagoka bakarra galdu dute, eta Barakaldo eta Egia izan dira Leioakoek jarritako erritmoari eutsi dioten bakarrak: "Talde horren partidu bakarra ikusi dut aurten, baina nahikoa izan zen ligako talde sendoena dela ikusteko. Defentsan ez dira beste munduko ezer, baina Asobal ligako bi jokalari dituzte, eta partidu batean erasoan 40 jokaldi egiten badituzte, 36 jokalditan gola egiten dute", adierazi du Arrasateko taldeko entrenatzaileetako batek, Fertxuk.



**DEFENTSAN** Irudian, Portugaleteko jokalariak Arrasatekoei defentsan eusten. J.A.

### EZUSTEA EMATEA

Aurrekari horrekin, Fertxuren esanetan domekan taldeak ez du ezer galtzeko, eta asko dute irabazteko: "Kanpoan gaitzagoa izango litzateke, baina etxean egun on horietako bat izanez gero, zeinek daki. Ezustekoa emateko asmoz kantxaratuko gara. Alde horretatik, aste barruan defentsako lana egin dugu batez ere".

### BERGARAK, PORTUGALETEN

Joan den astean eskuratutako puntua ez zen Bergarakoendako nahikoa izan, eta haiek ere Portugalete ezustean harrapatzeko asmoz dabiltza. Oraingo astebururan amaituko dute lehenengo itzulia, eta aurreneko balorazioa egiteko ordua iritsiko da.

> ERRUGBIA

## Domeka eguerdian jokatuko dute seniorrek

Senior mailako taldeak etxean jokatuko du oraingo asteburuko jardunaldia, Mojategin (domeka, 12:00). Arrasatekoek Mungiaren bisita izango dute. Emakumezkoen taldeak, berriz, Durangora egingo du bidaia zapatu arratsaldean (13:30). Eta infantilek 10:30ean jokatuko dute, Irunen. Horrekin batera, multikiroleko saioa egingo dute zapatu goizean (10:00).

MENDIA

## Bihar itxiko ditu ateak Pol-Poleko azokak

Astelehenean ireki zituen ateak Pol-Pol mendi elkarteak urtero egiten duen bigarren eskuko mendiko eta eskiko azokak, eta bihar arte iraungo du.

Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era arte egongo da azoka hori irekita, eta biharko ordutegia zabalagoa izango da: 18:00etan irekiko dituzte mendi elkarteko ateak, eta 20:00etan itxiko dute azoka. Oraindik, beraz, aukera dago eski denboraldiari begira erosketa onak egiteko.

MULTIOPTICAS
www.multiopticasgipuzkoa.com
MULTIOPTICAS-en IDEIA GABONETAN OPARI EGITEKO




OPARIA KONBINATU:
Zure betaurreko graduatuak* erosita, eguzkiko betaurrekoak opari egin ditzakezu erdi prezioan.
*montura + erreflexuaren kontrako kristal organikoak.
Berritasun eta marka guztiak
-50% azken moda
*eskaintza baliagarria 2008ko urtarrilaren 7 arte

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J. Carlos Guerra 1 | Ibargarai 16 | C/ Nueva 15 - GROS | Bidebarrieta 2 | Koldo Mitxelena, 7 | Mendibil M. G. | J.M. Barandiaran Enp. | San Frantzisko 23 |
| Tel. 943 79 29 95 | Tel. 943 76 15 75 | Tel. 943 32 66 49 | Tel. 943 20 05 22 | Tel. 943 51 78 11 | Tel. 943 63 99 01 | Tel. 943 88 99 88 | Tel. 943 69 84 70 |
| ARRASATE | BERGARA | DONOSTIA | EIBAR | ERRENTERIA | IRUN | ORDIZIA | TOLOSA |

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Kontrario zuzenena atzean utzi ala ez

Ibarreko hiru taldeek sailkapenean ondoan dituzten taldeen kontra jokatu beharko dute asteburuan; kontrario zuzena atzean utzi ala ez egongo da jokoan



IDIGORAS Joan den asteko golegileetako bat, Hernanikoekin lehian. J.A.

**X.U.** > BERGARA

Sailkapenari begiratuta, ezin lehia estuagoak jokatuko dituzte asteburuan Aloña Mendik (29), Aretxabaletak (22) eta Mondrak (18). Aurrez, oñatiarrek dute asteburuko hitzordua gaindizteko zailtasun handiena, Josu Zubiak zuzentzen duen taldeak Trintxerperen (25) zelaian jokatuko du-eta (zapatua, 16:00). Hala, norgehiagoka horretan, egun Trintxerpek betetzen duen hirugarren postura salto egiteko asmoz zelairatuko dira Oñatikoak, eta, kuriosoa bada ere, talde horrek aurten galdu dituen hiru partidutatik bi etxean galdu ditu.

**UDA-K ETA MONDRAK ETXEAN**

Aretxabaletak joan den astean Ordizian izandako egun makala utzi gura du atzean, eta Berioren kontura egin gura dute hori (domeka, 16:30). Donostia aldeko taldea Arenazaren mutilak baino postu bat gorako dago, baina biek ala biek dituzte 22na puntu; ezin parekatuago, hortaz. Partidua irabazten duenak –irabazlerik balego– hirugarren posturaino egin dezake salto, goialdean estu-estu daude-eta gauzak.

Azkenik, Mondra joan den astean liderraren etxetik ekarritako puntu ona biribiltzen ahaleginduko da zapatuan (16:30). Gordobilen mutilek EHU taldea izango dute aurrean, boladaka jokatzen duen taldea, baina arrasatearrek baino puntu bat gutxiago baino ez duena (17).

Gabonetako atsedenaldia hartzeko bi jardunaldi baino ez dira geratzen, eta oraindik jokatzeke dauden sei puntuek goitik behera baldintza dezakete urte amaiera.



ARIZMENDI IKASTOLA

## Emakumezkoen II. futbol txapelketa abenduaren 28an eta 29an

Iazko Gabonetako emakumezkoen futbol txapelketa biribila izan bazen, aurtengoak txapelketa hobea izateko osagaiak ditu, Reala, Eibar eta Debagoieneko selekzioarekin batera Athleticeko neskek ere hartuko duteeta parte. Hala, dagoeneko aukeratu dituzte ibarra ordezkatuko duten 18 jokalariak. Mondratik: Sokoa, Etxabe, Rakel, Alaine, Lopez eta Maitane. BTLS taldetik: Mireia, Miren, Shere, Oihana, Olatz eta Ainhoa. Eta Arizmenditik: Duke, Iga, Lide, Garcia, Rico eta Vidriales. Horrekin batera, hainbat ordezko jokalari aukeratu dituzte, hutsuneren bat bete behar badute. Antolatzaileek astelehenean aurkeztuko dutela txapelketa.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Granada74-Reala
Domeka. 17:00. Motril.

**Kadeteen Euskadiko liga**
Sestao River-Aretxabaleta
Zapatua. 10:30. Galindo.

**Preferente maila**
Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Pasai Antxo.

Mondra-EHU
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Bergara-Soraluze
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

Mutriku-Antzuola
Zapatua. 15:30. San Miguel.

**Bigarren erregionala**
Elgeta-Anaitasuna
Zapatua. 15:30. Eibar.

Aretxabaleta-Zestoa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Mondra-BTLS
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Sanse-Aretxabaleta
Domeka. 15:30. Donostia.

Mariño-Bergara
Zapatua. 17:30. Irun.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jeitsiera**
Aloña Mendi-Hernani
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

Euskalduna-Mondra
Zapatua. 18:00. Andoain.

**Lehen mailako gazteak**
Eibartarrak-Bergara
Domeka. 17:00. Unbe.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Hondarribia
Domeka. 12:00. Ipintza.

Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Aita Mari.

**Lehen mailako kadeteak**
Arizmendi-Soraluze
Zapatua. 12:30. Almen.

Bergara-Eibartarrak
Domeka. 10:00. Ipintza.

Arrasate-Aretxabaleta
Zapatua. 10:00. Mojategi.

**Kadete Txiki**
Arrasate-Mundarro
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak**
Aretx.Arizmendi-Bergara
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak, kopa eta jeitsiera**
Herrerako Sport.-Arrasate
Zapatua. 12:00. Donostia.

**Lehen mailako infantilak**
Aloña Mendi-Eibartarrak
Zapatua. 11:15. Ibarra.

**Infantil txikien kopa**
Baskonia-Arrasate
Zapatua. 12:00. Martutene.

Aretx.Arizmendi-Kostkas
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoen igora fasea**
Baskonia-BTLS
Domeka. 17:30. Martutene.

**Emakumezkoen kopa**
Mutriku-ArizmendiB
Domeka.15:30. San Miguel.

Arizmendi-Zestoa
Zapatua. 15:30. Almen.

Urola-Bergara
Zapatua. 16:00. Argixao.

**Emakumezkoen F8 Kadeteak**
Bergara-Ordizia
Domeka. 18:00. Ipintza.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak**
Arizmendi-Intxaurdi
Zapatua. 11:00. Almen.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa**
Aloña Mendi-Beti Ona
Domeka. 11:00. Ibarra.

**Alebinak**
Bergara-Eibar
Domeka. 10:00. Mojategi.

Arrasate-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Mojategi.

Elgoibar-Aretxabaleta
Domeka. 10:00. Mojategi.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**
Sasikoa-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Durango.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Denak Pizzak
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
Zaldibi-UDA Izotz
Gaur. 21:30. Zaldibia.

**Gazte maila**
Aloña Mendi (atsedena).

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
MU-Cafes Aitona
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Eskoriatza-BeraBera Gros
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

Aloña Mendi-GBC Easo
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**Infantil maila**
Arrasate Insti-Antoniano
Zapatua. 10:30. Musakola.

Arizmendi-Salleko Zarautz
Zapatua. 10:30. Musakola.

LEK-CDB Acero
Zapatua. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa**
Ford Mugarri-Askartza
Domeka. 11:30. Iturripe.

Portugalete-Bergara
Zapatua. 18:15. Portugalet.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoen Txap.**
Verkol Aloña-Askartza
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Lehen maila territoriala**
Donibane-Arrasate
Zapatua. 18:00. Pasaia.

**Bigarren maila territoriala**
Irungo Gaztiak-Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Irun.

Groseko Cocinas-Bergara
Domeka. 11:00. Donostia.

**Gazte maila, gizonezkoak**
BKL-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Beasain.

Arrasate-Amenabar
Domeka. 10:00. Ordizia.

**Gazte maila, emakumezk.**
Verkol Aloña-Usurbil
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Elgoibar-Citroen Arrasate
Zapatua. 20:00. Elgoibar.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Urnietako-Bergara
Domeka. 11:30. Urnieta.

Berezao Aloña-Pulpo
Domeka. 11:45. Zubikoa.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Verkol Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Jauja-Bergara
Gaur. 19:00. Mutriku.

### ERRUGBIA

**Seniorrak**
Arrasate-Mungia
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Emakumezkoak**
Durango-Arrasate
Zapatua. 13:30. Durango.

**Infantilak**
Gipuzkoako txapelketan:
Domekan. 10:30. Irun.

**Multikirola**
LH3 eta LH4ko neska-mutikoak.
Zapatua. 10:00. Mojategi.

### PILOTA

**Gipuzkoako Txapelketa**
Gaur. 20:00. Bergarako udal pilotalekuan:
Bergara2-Añorga2
Bergara-Lizardi Igeldo
Bergara-Aurrera Saiaz

Gaur. 20:00. Aretxabaletako pilotalekuan:
Aretxabaleta1-Txapagain
Aretxabaleta-Ilunpe

Gaur. 20:30. Antzuolako pilotalekuan:
Olalde-Zumaia

Zapatua. 16:30. Bergarako udal pilotalekuan:
Goierri2-Bergara1
Bergara3-Bergara4
Lagunak-Oiarpe3
Azkoitiko1-Zarautz



**Baskoniaren etxean jokatu du BTLS taldeak**
Bergarako neskek Baskoniaren zelaian gura dute errepikatu joan den astean Elgoibarri emandako errepasoa.




**>'HITZEN LAPURRA'** Haurrentzako bertso txotxongiloak > 45



**> ANDONI EGAÑA** Ahozkotasunari buruzko hitzaldia egingo du Bergaran > 51

**> AMAIA ALBERDI** Sormena du lanbide arrasatear horrek; plastika irakaslea da lanbidez eta aisialdian ere sortuz gozatzen du. Diziplina asko lantzen ditu > 50





Pier Paul Berzaitz musikaria Amaia antzokian izango da gaur, 22:00etan.

**Pier Paul Berzaitz** > Musikaria

# "Zuberoa gerturatuko dugu gaur Amaia antzokira"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

**Pier Paul Berzaitz musikariak (Muskildi, 1952) 30 urtetik gorako esperientzia du musikan. Guk taldean jardun zuen; egun, bakarlari moduan dabil. Pastoralak idatzi eta egin ere egin ditu. Gaur, egubakoitza, Arrasateko Amaia antzokian izango da, 22:00etan.**

**Muskildiarra zara jaiotzez, baina bi bizileku dituzu.**

Bai; Maule parean dagoen Muskildin (Zuberoa) jaio nintzen, orain 55 urte; asteko hainbat egunean han izatez naiz, baina baita Pauen ere. Paueko unibertsitatean ekonomia eskolak ematen ditut; hau da, komertzioa, nekazaritza, marketina eta horrelakoak.

**Musikan eskarmentu handia duzu.**

Mauleko musika eskolan jaso nituen lehen eskolak, eta 18 urte nituen geroztik jardun dut euskal musikagintzan. Paueko unibertsitateko ikasle nintzela, unibertsitateko campusean, 68ko maiatzeko grebako ekitaldietan eman nuen lehen kontzertua. Musikari askok parte hartzen zuten ekitaldi haietan, baina beste bospaei euskaldunekin osatu genuen taldea zen euskaraz abesten zuen bakarra. Xabier Lete eta Benito Lertxundiren kantuak abesten genituen, besteak beste. Gitarra ere jotzen nuen orduan.

**Gitarra ez da, baina, jotzen dakizun tresna bakarra.**

Ez; gitarra nire kontura ikasi nuen arren, Mauleko musika eskolan klarinetea eta pianoa ikasi nituen.

**Gazte garaiekin jarraituz, Guk taldeko kide izan zinen.**

Baionako seminarioan zeuden bi lagunek seminarioa utzi zutenean, haiengana hurbildu nintzen eta euskarekiko genuen militantziak bultzatuta sortu genuen taldea. Hamar urtean izan ginen elkarrekin. Garai gogorrak ziren eta bizi genuen egoerari buruz kantatzen genuen: euskara, lan eskasia zela-eta Parisera zeuden migrazioak...

**Zu ere Parisera joan zinen.**

Bai, eta orduan moztu zen Guk taldearen ibilbidea. Ikasketekin jarraitzeko helburuarekin joan nintzen. Han lau urtean bizi izan nintzen.

**Baina Parisen ere euskaraz kantatzen jarraitu zenuen.**

Han beste formatu baten kantatzen nuen. Pianista baten laguntzarekin jazz doinuak kantatzen

(43. orrialdetik dator)

nituen areto txiki eta intimistetan. Poesia irakurtzen nuela ere gogoratzen dut.

**Paristik bueltan ekin zenion bakarlari ibilbideari.**

Ez diot sekula kantatzeari utzi; hori horrela, 1987an *Han eta hor* diskoa argitaratu nuen. Geroago, Carlos Jimenez Ordiziako pianista ezagutu nuen eta beste bi disko kaleratu nituen harekin: *Baratze bat* (2000) eta *Lili baten kantoria* (2005). Azkeneko bi horiek askoz pertsonalagoak dira.

**Laugarrenik izango da?**

Bai, datorren urterako kaleratzeko asmoa dut, Oihenarten amodiozko hamazazpi poema musikaturekin. Biola batekin lagundutako disko gozoa izatea nahiko nuke.

**Beste musika arlo batera jotzen badugu, pastoraletan ere ibilbide emankorra duzu.**

1985a ezkero sei pastoral idatzi ditut. Lehenengoa *Oihenart* poetan oinarritutakoa izan zen eta 1991n *Harrizpe* idatzi nuen, Napoleonen garaiko militar euskaldun baten istorioa kontatzen duena. Haiek biak Muskildin, nire herrian egin zirenez, idazteaz gain taula gainean ere izan nintzen; 1997an, Benito Lertxundik kantatzen duen *Artharratze jauregin* izan zen. Arrasaten ere erakutsi genuen; 2000n, *Eskiula* etorri zen, Madalena Jauregiberri euskaltzainari buruzkoa; 2003an, *Ramuntxo*; eta azkena, 2005ean, *Bereterretze,* XV. mendeko kantorearen 20 poema.

**Arrasate ezagutzen duzu, beraz.**

Monterronen izan ginen, asko gustatu zitzaidan lekua.

**Beste era bateko ikuskizun erraldoiak ere idatzi eta prestatu dituzu; *Elkanoren semea* izan zen lehenengoa.**

Antzerkia, musika eta dantza uztartzen zituen komedia bat da. Bost alditan egin genuen: Pauen, Donibane Garazin, Donostian, Iruñean eta Donibane Loizunen. Lan horretan ezagutu nuen Carlos Jimenez piano-jolea; harrezkero elkarrekin egiten dugu lan. 100 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten. Ikuskizuna idazteaz gain, kantatu ere egiten nuen. Hurrengoa *Euskal izpiritua* izan zen.

**Baina ez da egin duzun bakarra.**

Ez, beste bi izan dira gero: *Euskal izpiritua*, Zuberoako dantzariekin egin genuen dantza ikuskizuna hirutan antzeztu genuen; eta *Zamaltzain*, Zuberoako eta Aragoiko dantzariek parte hartzen zutena, lauzpabost alditan egin genuena.

**Besterik izango da?**

Bai, laster estreinatuko dugu hurrengoa. Orreaga eta Ibañetaren guduari buruzkoa da eta Baionako zezen plazan egin gura dugu. Parte hartzen duten 100 aktore eta dantzariak dagoeneko hasi dira entseatzen. Hego Euskal Herrira ere ekarri nahiko genuke, baina oso leku handia behar da, besteak beste hamar zaldi eta 100 ardi ere badaudelako.

**"18 urte nituenetik ez diot sekula kantatzeari utzi eta beti abestu izan dut euskaraz; Parisen bizi nintzenean ere bai"**

**"1985a ezkero sei pastoral idatzi ditut; horietako bitan, taularen gainean ere parte hartu nuen"**

**"Abestea afizioa dut; horrez gain, Paueko unibertsitateko ekonomia irakaslea naiz "**

**"Ez nuke nahi musikaz bakarrik bizi; nahiago dut beharra baino zaletasuna izatea"**



**Gaurko emanaldiari dagokionez, zelakoa izango da?**

Ordu eta erdi inguruan, hogei bat kantu abestuko ditut. Hiru diskotako kantuak abestuko ditut, eta, horrez gain, Zuberoako lau kantu zahar ere sartu ditut errepertorioan. Kontzertuaren erdian joango dira lau kanta horiek; hori horrela, Zuberoako giroa hurbilduko dugu Arrasateko Amaia antzokira. Horrez gain, Itxaro Borda eta Jean Dant poetak idatzitako hitzak ere abestuko ditut.

**Ez zara, baina, taularen gainean bakarrik izango.**

Ez, horixe! Nirekin batera sei musikari izango dira: Carlos Jimenez piano-jolea, Igor Goikoetxea perkusio-jolea, Txema Garzes baxu-jolea, Xanet Arrozena gitarra-jolea, Francisco Herrero biolin-jolea eta Juana Etxegoien txirula eta flautarekin.

**Sarritan etortzen zara Hego Euskal Herrira kantuan?**

Bai, baina gehienbat Donostia aldean izaten gara, Lasarte eta Andoainen, besteak beste. Guk taldearen garaian, Goierri inguruan sarritan izaten ginen.

**Goierri aipatuta, sarritan izaten zara Ordizian.**

Bai, oso maite dut Ordizia, Carlos Jimenezekin entseatzera hara joaten naiz-eta.

**Horrez gain, Xabier Leterengana ere askotan etortzen zara.**

Bai, aspaldiko laguna dut; 30 urtean bai, behintzat. Askotan izaten gara elkarrekin.

**Baduzu, bestela, beste kantariekin harremanik?**

Hegoaldeko batzuekin bai, Xabier Lete eta Imanol zenarekin ere hartu-eman handia nuen. Gertutasun kontuagatik, Iparraldekoekin errazagoa da.

**Eta orokorrean badago?**

Ez, oso zaila da, oso errealitate ezberdina bizi dugu-eta. Hemen, Iparraldean, oso kontzertu gutxi egiten dira; Hegoaldean, berriz, produkzioa handiagoa da. Hartzaileari dagokionez ere, egoera ezberdina da, jendeari asko kostatzen zaio kontzertu aretoetara joatea.

**Laburbilduz, beraz, egoeraren ze azterketa egingo zenuke?**

Iparraldean, behintzat, musikatik bizi izatea posible ez dela esango nuke. Euskal Herriko merkatua txikia da. Dena dela, ni baikorra naiz, eta bakoitzak egiten duen lanean sinistu behar duela uste dut. Nik horretan jartzen dut lanerako gogoa. Milaka lan egiten ez badira ere, egiten direnak onak badira, zer hobeto, ezta?



**SANTAMASAK** > 'HITZEN LAPURRAK' IKUSKIZUNA

# 'Hitzen lapurrak', formatu bereziko lana

Ikuskizun berezia da 'Hitzen lapurrak': bertsotxongilo ikuskizun moduan kalifikatua, bertsoa eta txotxongiloak uztartzen ditu

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Formatu bitxi edo, behintzat, berezian aurkezten du Oiartzungo Lanku enpresak *Hitzen lapurrak* deritzon ikuskizuna. 4-5 urtetik 8 urte bitartera arteko haurrei zuzendutako ikuskizuna da, bertsotxongilo moduan defini daitekeena; izan ere, bertsoak eta txotxongiloak uztartzen dira ikuskizunean. Hiru ordu laurdenen bueltan, hitzarekin ibiliko dira jolasean txontxongiloak, antzezleak eta baita ikusleak ere.

Bada, bihar, zapatua, *Hitzen lapurrak* Arrasaten ikusteko aukera egongo da. Santamasetako egitarauaren barruan antolatu dute ikuskizuna.




**'HITZEN LAPURRAK'** Ikuskizunean bertsoak eta txotxongiloak dira nagusi. GOIENKARIA

**HITZAK PROTAGONISTA**

Hitzak dira progonista Ander eta Amaia txontxongiloen eta Libe eta Ximon antzezleen istorian. Hitza abiapuntutzat hartuta hainbat kopla eta bertso osatuko dituzte. Istorioa polita da, umeentzat berezia eta egokia.

**MAGIA IKUSKIZUNA** > LENNART GREEN

## Munduko mago onenetariko bat Espaloian izango da

Lennart Green mago suediarra egongo da bihar Espaloian, 22:30ean

**MIREN ARREGI** > ELGETA

Magia gustuko dutenentzat eta hain gustuko ez dutenentzat ere, ikuslea aho zabalik uzteko moduko ikuskizun bat izango da bihar Elghetako Espaloia antzokian. Suediako Lennart Green magoa gurean izango da magiarako duen abilezia erakusten.

Lennart Green munduko txapelduna da kartomagian, eta gainontzeko magoek diotenez, munduko manipulatzaile onenetarikoa ere bada. Ez da ez, ohore makala Green ibarrean ikusi ahal izatea. Bihar, zapatua, 22:30ean izango da aukera.

**MUSIKA BARROKOA** > HAENDELEN 'MESIAS' LANA

## Haendelen 'Mesias' lana, oñatiarren partaidetzarekin

Oñatiko Ganbara abesbatzak maisulan hori abesteko aukera izango du

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Abenduaren 19an eta 20an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian Kataluniako La Caixa fundazioak antolatutako Haendelen *Mesias* lana abestuko dute Oñatiko Ganbara abesbatzakoek, Gipuzkoako beste hainbat abesbatzarekin batera. Gainera, La Risonanza orkestrarekin eta Italiako zuzendari Fabio Bonizzoni-rekin mundu guztitik etorritako solistaonenek ere hartuko dute parte konpositore ingelesaren maisulan ezaguna aurkezteko.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**
**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81
**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35
**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es
**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81
**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**
**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50
**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es
**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com
**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83
**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**
**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**
**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**
**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**
**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**
**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Martoko 92 $m^2$. Prezio ona.
- Osintxu 80 $m^2$. Berritua.
- Ibargarai. 40 $m^2$. Berria.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua.
- Martoko 52 $m^2$. Berritua.
- Iraburu 84 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubieta 60 $m^2$. Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 $m^2$. Berritua.
- Martoko 53 $m^2$. Igogailuarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 $m^2$. Prezio ona.
- Aiherra 123 $m^2$. Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 $m^2$. Berritua.
- Salbador 90 $m^2$. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82$m^2$, ondo
- Artzamendi, 80 $m^2$, oso ondo
- Zabalotegi, 80 $m^2$, ondo
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua
- Ibarra, 130 $m^2$, aukera ona
- Zubieta 70 $m^2$, ondo
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin
- Aranerreka, 87$m^2$, ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70$m^2$, oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81$m^2$, oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83$m^2$, berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**
Tatuaje denda batek marrazten dakien pertsona behar du.
626 66 12 92

**BERGARA**
Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51

**ARRASATE**
Taberna batek zerbitzaria behar du.
605 70 49 57

**DEBAGOIENA**
Etxe agentzia talde batek komertzialak behar ditu. Interesatuak bidali CV helbide honetara: **guipuzcoa@grupodomingo.com** edo deitu **676 44 88 13** telefonora.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserria, lursailarekin. 240.404 euro. 943 76 65 03 edo 943 76 62 98.

**Arrasate.** Etxea salgai Zigarrolan. 48 m2. Beheko solairua, berrituta. 196.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 665 73 25 74.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Anboto kalean. 78 metro koadro erabilgarri, hiru logela, komun bat, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. Guztiz eraberritua. Deitu ezazu telefono honetara: 652 70 82 46.

**Arrasate.** Otaloran, duplexa salgai. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 88 metro koadro. Orain dela hiru urte berritutako sukaldearekin, eta goitik behera jantzita. 55 milioi pezeta. 699 74 54 09.

**Arrasate** erdialdean logela bateko apartamentua errentan ematen da. Dena berritua. Berogailuarekin. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 08 19 10.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berrituta. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin eta ganbara handiarekin. 210.350 euro. 686 42 73 01.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalde kalean. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria. 665 30 42 26 edo 627 34 91 77.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m2, guztiz jantzia. Hiru gela, egongela, bi bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. Telefonoa: 665 71 48 30.

**Bergara.** Etxea salgai Koldo Eleizalden. 97 m2. Hiru logela, bi bainugela. Terraza eguzkitsua eta garajea. 655 71 03 23.

**Bergara.** Herri erdian etxea salgai. Oso aukera ona. Telefonoa: 685 72 40 30.

**Bergara.** Sei urteko duplexa (etxebizitza+ganbara): 123 m2, sukalde hornitua, igogailua, gas naturala. Estudio, bulego edo antzeko bat ipintzeko egokia. Garajea aukeran. Deitu ezazu telefono honetara: 699 49 14 14.

**Bergara.** Simon Arrieta plazan etxebizitza salgai. Herriko erdigunean. 57 m2. Bi logela, trastelekua eta igogailua. Telefonoa: 649 63 11 74.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Telefonoa: 653 70 84 04.

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza salgai. 56 metro koadro. Sotoarekin. Guztiz jantzita. Deitu ezazu telefono honetara: 678 53 40 43.

**Elgeta.** Lau urteko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela-jangela, garaje-trastelekua. Deitu ezazu telefono honetara: 239.000 euro. 655 45 07 26.

**Errioxa.** Alesanco herrian etxebizitza salgai. Etxabea da (baxua). Bi logela, bainugela, garajea, trastelekua, terraza, igerilekua. 24 m2. Prezioa: 126.200 euro, BEZa barne. Ibon. Deitu ezazu telefono honetara: 678 35 96 08.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai. 82 metro karratu. Lau logela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Eguzkitsua. Garajea aukeran. 210.000 euro. Telefonoa: 645 97 45 64.

**Osintxu.** Duplexa. 42 metro koadro. 2 gela, egongela, bainugela, sukaldea. 98.000 euro. 665 71 48 30.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Aozaratzan, 67 metro koadro, jantzita, 2 logela, ganbara. Deitu ezazu telefono honetara: 943 78 26 54 edo 943 78 30 56.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 676 39 36 93.

**Oñati.** Apartamentua salgai Arantzazu kalean. Etxabea da (baxua). Bi logela, sukalde-egongela eta bainugela. Guztiz berritua, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Oñati.** Apartamentua salgai. Arantzazu kalean. Kalegoieneko plaza berrian. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua. Egoera onean. 605 77 46 79.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen diharduten etxebizitzan. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea eta trastelekua dauzka. 670 85 85 41.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. 79 m2. Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta ganbara. 41 miloi, negoziagarriak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

**Oñatin** etxebizitza salgai, San Lorentzo auzoan, 90 metro koadro, 3 logela, sukaldea, bi komun, estudio bat, dena jantzita, bi balkoi, garajea eta ganbara. 54.000.000 pta. Deitu ezazu telefono honetara: 943 71 60 56 edo 606 96 16 13.

**Soraluze.** Apartamentua salgai erdialdean. 40 m2. Bikote eta pertsona bakarrarendako egokia. Guztiz berritua, estreinatzeko. Prezio interesgarria. 696 50 22 01 edo Deitu ezazu telefono honetara: 943 75 21 08.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaioko** plazan etxebizitza errentan ematen da. Lau logela eta bi komun. 945 44 53 60.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela ditu. Unibertsitatetik gertu dago. 634 40 37 03.

**Arrasate.** Gesalibar auzoan etxebizitza daukat alokagai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna ditu. 696 82 05 65 edo 943 79 80 70.

**Arrasate.** Hiru logela. Deitu ezazu telefono honetara:943 77 13 02.

**Arrasate.** Jantzita dago. Unibertsitatetik oso gertu, Uribe auzoan. 658 70 91 54.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Hartzen duena neska bada, hobe. Telefonoa: 943 79 82 43.

**Eskoriatza.** Etxe berria errentan ematen da herri erdian. Hiru logela. Deitu ezazu telefono honetara: 655 70 46 90.

**Eskoriatza.** Guztiz jantzita. Deitu ezazu telefono honetara: 943 71 46 27.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** 2 edo 3 gelako etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 662 26 85 84.

**Debagoiena.** Etxea hartuko nuke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 691 41 69 52.

**Eskoriatzan** edo Aretxabaletan bi neskak etxebizitza errentan hartuko lukete. 650 89 76 64 edo 636 03 63 09.

**Logela** bat hartuko nuke Bergaran edo Arrasaten, langileekin. 30 urteko neska bat naiz. 655 73 23 34.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Deitu ezazue telefono honetara: 636 05 36 18.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. Deitu ezazue telefono honetara: 652 73 46 19.

**Bergara.** Boluko auzoan gela bat errentan ematen da. Deitu ezazue telefono honetara: 670 85 86 68.

**Bergaran,** Arrasaten edo Gasteizen gela bat alokatuko nuke. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. 655 73 23 34.

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbeia kalean etxea osatzeko. Berokuntza zentrala. Espaziotsua. 350 euro hilero, dena barne. 652 72 18 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Aukera aparta, 15.000 euro. 947 08 00 16.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai Zubiaurren. Deitu ezazu telefono honetara: 606 65 97 82.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Usaetxen garaje plaza errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 605 74 52 02.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Trastelekua** salgai Zurraderon (Bergara), motorra gordetzeko egokia. Neurriak: 5,80x1,80. Prezioa: 8.000 euro. Deitu 18:00etatik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara: 678 43 31 07.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 m2 dituen lokala errentan ematen dut. Deitu ezazu telefono honetara: 645 00 80 55.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Marrazkigintzako ikastaroa emateko pertsona bat behar da. Deitu ezazu telefono honetara: 635 70 20 74.

**Arrasate.** Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia handia dauka. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 78 43 edo 665 74 51 22.

**Bergara.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta adineko pertsona bat zaintzeko. Goizez eta arratsaldez. Deitu ezazu telefono honetara: 635 75 57 77.

**Debagoiena.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Urtarriletik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 50 63.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume batek zaharrak gauez edo umeak zainduko lituzke. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 84 97.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska gertu arratsaldeetan lan egiteko. Zerbitzari lanetan eskarmentua. Maria. Deitu ezazu telefono honetara: 629 23 93 87.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanak, ostalaritzan lan eginda, nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientzia zerbitzari lanetan. Sandra. Deitu ezazu telefono honetara: 680 60 18 24.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile lanetan eskarmentua. Garbiketa lanetarako eta umeak zein nagusiak egunez zaintzeko prest. Ana.Deitu ezazu telefono honetara: 625 17 98 03.

**Arrasate-Bergara.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko, garbiketak lanak egiteko edo ile apaintzaile laguntzaile jarduteko. Deitu ezazu telefono honetara: 619 65 56 75.

**Arrasate.** Emakumea gertu adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. 636 91 91 81.

**Arrasate.** Emakumea gertu egunean bi orduz garbiketak egiteko. Rosi. Deitu ezazu telefono honetara: 943 77 16 01.

**Arrasate.** Emakumea prest dago nagusiak gauez zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko taberna edota elkarteetan. Esperientziaduna. Deitu ezazu telefono honetara: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest arratsaldez haurrak zaintzeko. Haur Hezkuntzako ikasketak egiten dihardut. Deitu ezazu telefono honetara: 620 42 38 48.

**Baso lanak.** Gizonezko bat era guztietako baso lanak egiteko prest. Inausketak, basoa garbitu... 659 05 97 21.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Telefonoa: 646 76 53 64.

**Bergara.** Emakume batek umeak edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Etxean bertan bizi izateko gertu dago. Telefonoa: 659 37 41 95.

**Bergara.** Garbiketa lanak egingo nituzke, elkarte, taberna edo dendatan. Deitu ezazu telefono honetara:650 00 58 48.

**Bergara.** Mutil bat gertu dago garbitasun lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldeko laguntzaile edo zerbitzari izateko. Deitu ezazu telefono honetara: 627 65 02 71.

**Bergara.** Mutil bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 620 76 36 22.

**Bergara.** Mutila gertu pertsona nagusiak zaintzeko, arotz lanetan laguntzeko, igeltsero lanetarako... Deitu ezazu telefono honetara: 685 42 72 80.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbiketa lanak edo okindegian lan egiteko gertu. Telefonoa: 638 62 23 47.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldez etxeak garbitzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 04 18 edo 676 87 64 08.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 639 02 00 81.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gazte bat gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Deitu ezazu telefono honetara: 638 23 26 29.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari, garbitzaile, nagusien zainketan edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Telefonoa: 627 65 02 71.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Arratsaldez edo gauez. Deitu ezazu telefono honetara:685 70 76 25.

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu garbitzaile, nagusi edo haurren zainketan edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Telefonoa: 659 37 41 95.

**Debagoiena.** Sasien garbiketa lanak edo basoen garbiketa lanak egiten dira. 658 73 79 02.

**Oñati.** Neska gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 635 70 07 92.

**Txakurrak** paseatzeko gertu, Arrasaten edo Bergaran. Deitu ezazu telefono honetara: 696 38 10 07.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Antzuola.** Irakasle bat behar dugu ingeleseko eskolak jasotzeko. Batxilergoko 1. eta 2. mailak. Bi ikaslerentzako. 943 76 64 10 edo 943 78 70 55.

**Aretxabaleta.** Irakasle baten bila nabil, DBHko hirugarren mailan diharduen 14-15 urteko gazte bati eskola partikularrak emateko. Batez ere matematika. Astean bi egunean, egun bakoitzean ordubete. Telefonoa: 943 79 84 97.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Gitarra elektrikoa** eta akustikoa ikasteko eskolak ematen dira. Ibon. 635 72 19 69.

**Goi mailako ingeniari** industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. 1990ekoa, egoera onean. 8.000 euro. 686 86 01 62.

**Citroen C4** Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 13.000 euro. 627 93 55 74.

**Ford Fiesta** autoa salgai. 1.4 GHIA modeloa. 135.000 kilometro ditu. Leihoak automatikoki igotzen dira, ateak automatikoki ixten dira eta beti garajean egon da. 1.000 euro. Xabier. 647 51 52 54.

**Harley Davidson** motorra salgai. 1.340 cm3. 2000koa. 34.000 km. Egoera oso onean. Pneumatiko zabalak. 20.500 euro, negoziagarriak. 677 83 47 29.

**Harley Davidson** motorra saltzen dut. 883 cm3. 6.000 euro. 686 86 01 62.

**Nissan Almera** Sport 2.2 DI, 16 balbula. 7.300 euro. Telefonoa: 646 03 39 45.

**Opel Kadett** GSI autoa salgai. Egoera onean. Arratsaldez deitu. 658 72 11 49.

**Opel Vivaro** Combi 2.5 Cdti, 140 ZP. 2006koa. Bost plazakoa da. Prestatutakoa: mahaia, ohea, urarendako edukiontzia, bigarren bateria. 35.000 km. Bermearekin. 649 17 67 74.

**Renault Clio** RL 1.1, SS-AL. Gurpil berriak, 58.000 km, 500 euro. 665 72 66 58.

**Seat Alhambra** monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. 50.000 km eta 2004koa. 20.000 euro. 653 71 04 56.

**Seat Arosa** 1.0 autoa salgai. 50 ZP. 1999koa. 85.000 km. 2.200 euro. Egoera oso onean. Telefonoa: 655 71 75 27.

**Seat Ibiza.** 1.9 diesela. 1999. urtekoa. Zuria. Hiru atekoa. Erremolkea eramateko bola dauka. 2.500 euro, negoziagarriak. 677 83 47 29.

**Seat Toledo** turbodiesela. 1.000 euro. 639 96 29 51.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker** ingeles bat saltzen da, emea. Urtebete egitera doa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dago. 300 euro. Telefonoa: 696 11 01 94.

### 703. EMAN

**Txakur** txiki bat oparitzen da, emea eta kanela kolorekoa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dauzka. Deitu ezazu telefono honetara: 696 11 01 94.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Alazena** errustikoa saltzen dut, egoera onean dago. Deitu ezazu telefono honetara: 943 08 24 19 edo 645 00 53 32.

**Archos telebista** salgai. Oso prezio ona. Deitu ezazu telefono honetara: 666 53 95 39 edo 607 79 10 00.

**DJ mahaia** salgai. 2 CD erreproduktore, nahasketa mahaia eta maleta. 18:00etatik aurrera deitu. Deitu ezazu telefono honetara: 943 53 25 46.

**Eskiak** eta botak 130 eurogatik saltzen ditut, egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 620 42 38 48.

**Gitarra** elektroakustikoa salgai. Yamaha AE 500 modeloa. 649 66 49 56.

**Ipod Classic** salgai. 30 GB. 100 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 666 53 95 39.

**Kanapedun** ohea salgai, koltxoi eta guzti. 150 cm. Berria dago, ia erabili gabe. 500€ euro. Deitu ezazu telefono honetara: 626 17 51 08.

**Mendi bizikleta.** Mondraker Foxy. Suspentsio bikoitza. Fox aurrean eta Manitou atzean. Shimano deore frenoak. LX eta XT. 685 71 63 75.

**Ohea** eta gau-mahaia salgai daukat. 90 cm .Oso merke. Deitu ezazu telefono honetara: 635 75 09 47.

**Olympus e-330.** Gorputza gehi Zuiko Digital 14-45 eta 40-150 objektiboak. Bi filtro, GB bateko xD txartela, Case Logic garraio-poltsa eta hiru cr123a pila erabiltzeko bateria opari. 500 euro. 667 95 73 16.

**Ostalaritzako** makineria, mahai, aulki eta halakoak saltzen ditut, negozioa itxi dudalako. 649 84 67 09.

**Solariuma salgai.** 100 euro. 666 53 95 39.

**Telebista** jartzeko kristalezko mahaia salgai, egongelarako. DVDa jartzeko apal eta guzti. 699 70 41 49.

### 802. EROSI

**Txanponak** eta bankuko billeteak erosten ditut. Telefonoa: 688 61 85 02.

**Zero Sette** Castelfidardo trikitia erosiko genuke. Deitu ezazu telefono honetara:943 76 02 92.

### 803. EMAN

**Gurpil-aulkia,** nagusien takataka, egurrezko somierra eta koltxoia debalde ematen dira. Deitu ezazu telefono honetara: 636 34 18 47.

### 804. HARTU

**Bergara.** Ortua jartzeko baso lurra erosiko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 699 85 49 58.

### 806. GALDU

**Urrezko belarritakoa** galdu nuen domekan Bergaran, Bolutik Labegaraietako bidean. Telefonoa: 678 61 50 45.

**Eskumuturreko** bateko txapa galdu nuen. Inskripzio bat du: “Ander. 10-07-07”. 687 43 17 14.

### 808. BESTELAKOAK

**Rock talde** batek baxu-jotzailea behar du. Tendentziak: Sonic Youth, Fugazi... Arturo. Telefonoa: 628 09 56 51.

## hildakoak

- **Maria Dolore Elgarresta Zubeldia.** Bergaran, azaroaren 26an. 82 urte.
- **Manuela Granado Valor.** Arrasaten, azaroaren 26an. 90 urte.
- **Jesus Elkoro Aranbarri.** Bergaran, azaroaren 28an. 67 urte.
- **Pascual Vitoria Vitoria.** Arrasaten, azaroaren 28an. 79 urte.
- **Tomas Madinabeitia Medrano.** Eskoriatzan, azaroaren 28an.
- **Jesus Maria Txintxurreta Anduaga.** Oñatin, abenduaren 4an. 64 urte.
- **Pio Axpe Elejalde.** Aramaion, abenduaren 7an. 67 urte.
- **Pedro Uribetxebarria Eraña.** Arrasaten, abenduaren 7an. 77 urte.
- **Jose Luis Mendizabal Lizarralde.** Elgetan, abenduaren 8an. 66 urte.
- **Migel Orueta Lizarralde.** Oñatin, abenduaren 5ean. 84 urte.
- **Basilio Gonzalez Hidalgo.** Arrasaten, abenduaren 8an. 88 urte.

URTEURRENA

## Iban Guridi Zaloña

*Beti nirekin*

Monika.
Oñatin, 2007ko abenduaren 14an.

URTEURRENA

## Iban Guridi Zaloña



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, abenduaren 15ean,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felisa Arana Ezpeleta



Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 16an,
11:30ean, Aretxabaletako
Andre Mari Jasokundearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Alazne Gartzia Errasti

2006ko abenduaren 15ean hil zen, 10 urte zituela.

*Zu barik,
gogorra da bizitza zu barik.
Ez da pasatzen asterik, egunik, unerik
zurekin gogoratzen ez garenik.
Gure pentsamenduetan zaude murgildurik,
bihotzetan itsatsirik,
gure barrenean, bizirik.
Maite zaitugu, Alazne.*

Zabolako zure familia.
Zabolan, 2007ko abenduaren 14an.

URTEURRENA

## Alazne Gartzia Errasti

2006ko abenduaren 15ean hil zen, 10 urte zituela.

*Gurekin zaude,
nahiz ta soilik bihotzean,
laster elkartuko gara
leku alaiago batean.*

Aittitte Joxan, amama Kontxita eta osaba Alberto.
Arrasaten, 2007ko abenduaren 14an.

ESKER ONA

## Maria Lete Aldai

Eujenio Markuletaren alarguna

Oñatin hil zen 2007ko abenduaren 3an, 89 urte zituela.



Bere seme-alaba eta ilobek
bihotzez eskertzen dizuegu samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eta hileta elizkizunetara
etorri zineten guztioi.

Basazabal baserria
Oñatin, 2007ko abenduaren 14an.

ESKELA

## Jose Luis Mendizabal Lizarralde

Elgetan hil zen 2007ko abenduaren 8an, 66 urte zituela.

*Betiko izango zaitugu gogoan.*



13 kinto lagun.
Elgetan, 2007ko abenduaren 14an.

ESKER ONA

## Jose Luis Mendizabal Lizarralde

Elgetan hil zen 2007ko abenduaren 8an, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Elgetan, 2007ko abenduaren 14an.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero 45.000 irakurle.**



ESKER ONA

## Joxe Lizarralde Eskibel

'Joxe Arrandai'

2007ko abenduaren 1ean hil zen, 84 urte zituela.

Etxekook eskerrak eman nahi dizkizuegu une
triste hauetan zuen berotasuna
eskaini diguzuen guztioi.



Antzuolan, 2007ko abenduaren 14an.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Hegazti harraparia
Dozena bat
Latz
Mirakuluak
Gipuzkoako herria
Amaierak
* Irudiko fruitua
51
Guri, balu
Musika nota
Gurpilik gabeko gurdiak
Lerroak
Lotsagabe
Errepikatuz, gorotza
Lotan
Gizakoi
Ez eme
Sarrera
Bizkaiko herria
Zilarra
Modu atzizkia
Gatz hobiak
Zeureak
Kimuaren hasiera

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 8 | | 7 | 9 | | |
| | | 6 | | | | 5 | | |
| | 5 | | | | | | 2 | |
| | | 2 | 9 | | 3 | 1 | | |
| | 3 | | | | | | 6 | |
| | | 5 | 7 | | 1 | 8 | | |
| | 1 | | | | | | 5 | |
| | | 4 | | | | 6 | | |
| | | 9 | 4 | | 6 | | | |

## hieroglifoa

Nork erosi du baserria ?



51
**AK**

## hizki salda

Arabako 5 herriren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | E | T | U | A | K | R | A |
| U | A | N | I | A | Z | T | R | E |
| R | E | Z | A | A | A | O | R | A |
| B | T | A | I | T | N | O | B | N |
| I | I | D | Y | E | E | E | O | A |
| N | N | K | L | A | T | E | X | R |
| A | O | G | E | N | I | S | E | U |
| X | S | M | T | O | T | O | A | D |
| O | I | T | U | G | E | L | O | G |

## soluzioak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | E | T | U | A | K | R | A |
| U | A | N | I | A | Z | T | R | E |
| R | E | Z | A | A | A | O | R | A |
| B | T | A | I | T | N | O | B | N |
| I | I | D | Y | E | E | E | O | A |
| N | N | K | L | A | T | E | X | R |
| A | O | G | E | N | I | S | E | U |
| X | S | M | T | O | T | O | A | D |
| O | I | T | U | G | E | L | O | G |

**Jeroglifikoa:** Familiak.
Fa+Mi+LI+AK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 2 | 1 | 8 | 5 | 7 | 9 | 4 | 6 |
| 4 | 9 | 6 | 3 | 1 | 2 | 5 | 8 | 7 |
| 7 | 5 | 8 | 6 | 9 | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 8 | 4 | 2 | 9 | 6 | 3 | 1 | 7 | 5 |
| 1 | 3 | 7 | 5 | 4 | 8 | 2 | 6 | 9 |
| 9 | 6 | 5 | 7 | 2 | 1 | 8 | 3 | 4 |
| 6 | 1 | 3 | 2 | 7 | 9 | 4 | 5 | 8 |
| 2 | 7 | 4 | 1 | 8 | 5 | 6 | 9 | 3 |
| 5 | 8 | 9 | 4 | 3 | 6 | 7 | 1 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | Z | ■ | Z | ■ | A |
| | | | H | A | M | A | B | I |
| | | | ■ | P | I | K | U | A |
| ■ | B | ■ | L | E | R | A | K | ■ |
| L | A | ■ | I | L | A | R | A | K |
| ■ | L | O | ■ | A | R | ■ | E | A |
| G | I | Z | A | T | I | A | R | ■ |
| ■ | G | A | T | Z | A | G | A | K |
| Z | U | R | E | A | K | ■ | K | I |



## bono fotoa



**Zein da 1525ean eraiki zuten eliza honen izena? Eta eskualdeko ze herritan dago?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ........................................
........................................
IZEN-DEITURAK........................................
TELEFONOA........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Cune**
**Errioxako erreserbako ardo beltza**
**9,45 €**
**2 eramanda, bakoitzak 7,09 €**
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Arrasateko **IÑAKI ABASOLO**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Aurreko Galderaren erantzun zuzena: San Juan Bataiatzailea.**


Sustapen honek 2007ko azaroaren 15etik abenduaren 24ra balio du
©Disney
Bazen behin amets bat.
Gabonetan zure ametsak egia bihurtu ditzakezu
eta beste batzuenak egia bihurtzen lagundu
15. urteurrena ospatuz,
Disneyland Resort Paris 15
Jostailuak07
%10eko deskontua*
EROSKI red VISA
*Publizitate-liburuxka honetako kirol- nahiz eskola-artikuluak eta haurrentzako filmak barne
EROSKI zurekin

Amaia Alberdi > Irakaslea eta sortzailea

# "Artea eguneroko gauza txikietan ere aurki daiteke, ez koadroetan bakarrik"

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren eta hura inguratzen duen zurrunbilotik ateragenuen Amaia Alberdi, Durangon bizi den arrasatearra, tarte batean berari buruz berbetan jarduteko: lanaz, aisialdiaz, arteaz, sormenaz... Azokan egin genuen hitzordua, eta, jende artetik aparte, bere proiektuen, azokan egindako erosketen eta lanaren berri eman zigun.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Irakaslea da Amaia Alberdi. Plastikako eskolak ematen ditu eta lanean ez ezik aisialdian ere sormena lantzea du gustuko. Sormena arlo guztietan; izan ere, sormena erreminta ona da, bere esanetan, eguneroko arazoei aurre egiteko.**



**Zein da Amaia Alberdi?**

Arrasatear bat, Leioara, unibertsitatera joan zena Arte Ederrak ikastera eta orain herrira bisitan baino bueltatzen ez dena. Bizkaian barrena ibili naiz ordutik hona eta orain ere hala nabil. Gaur egun Durangon bizi naiz, mugitzen naizen lekuen erdialdean; lanean, berriz, Amurrion nabil irakasle.

**Irakasle lanetan zabiltza. Zer irakasten duzu?**

Plastikako irakaslea naiz Amurrioko ikastolan. Aurrez ere Ikastolen Elkartean jardun dut aisialdiko ekintzak antolatzen, betiere hezkuntza munduan bueltaka jardun dut.

**Arte Ederretako ikasketak egin zenituen. Zer dela eta?**

Sormenarekiko interesa izan dut beti eta beharbada horregatik, baina ez dut gogoan aukeraketa zergatik egin nuen. Nire bizitza artistikoa ez dut sekula finkatuta izan, hemendik eta handik denetarik probatu izan dut: argazkilaritza, pintura, grabatua... Sormena dut gustuko alor guztietan: dantza, antzerkia, musika, arte plastikoa...

**Artearen barruan hainbat diziplina landu dituzu. Zein duzu gustukoen?**

Irudiarekin identifikatzen naiz; irudiaren zentzurik zabalenean, noski. Irudiaren gizartean bizi gara eta irudiak lotzen nau ni ere. Zinema ere gustuko dut, baina sekula ez dut bideokamera batekin lan egin.

**Egindako lanen artean dago Durangoko emakume batzuekin eratutako argazki erakusketa. Nola sortu zen ideia?**

Aldarrikapena izan zen erakusketaren abiapuntua; emakumearen presentziaren aldarrikapena. Izan ere, gizartean oro har eta artean, zer esanik ez, emakumearen irudia baztertuta egon izan da; emakumea beti izan da modeloa artean. Durangon herriko argazkilarien erakusketa bat egin zen eta neska bakarra zegoen argazkilarien artean. Neska horrek bere buruari erronka ipini zion emakume argazkilariak aurkitzeko. Hortaz, Durangon emakume argazkilariak elkartu gintuen, erakusketa proposamena egin zion Durangoko Arte eta Historia Museoari eta iaz, Liburu eta Disko Azokaren bueltan ipini genuen erretratuen erakusketa. Gero, Markinako kultura etxean, Gernikako gaztetxean eta Baionako Elkarren ipini dugu ikusgai. Nik *Maskarak* izenburupean aurpegi estalien gaineko erretratuak egin nituen. Niretzat abiapuntua izan da beste gauza batzuetan hasteko. Izan ere, daukagun bizitza zoro honetan ez dugu nahi dugun horretarako astirik izaten, eta hau aitzakia izan da lanean jarraitzeko.

**Beste proiekturik baduzu esku artean?**

Koaderno batean zirriborro batzuk baino ez ditut. Nora eramango nauten ez dakit, baina argazkilaritza edo ilustrazioaren bidetik forma hartuko duela uste dut; hala ere, datorren urtera begirako proiektua da.

**Lanak utzitako aisialdi tartean zer egitea duzu gustuko?**

Sormenarekin eta kulturarekin lotutako edozer gauza egitea gustatzen zait eta inguruko lagunek egiten dituzten gauzak partekatzea. Mendira joatea ere gogoko dut eta gizarte mugimenduetan ere hartzen dut parte. Sormena, nork bere buruarendako ez ezik, erreminta ona da eguneroko arazoei aurre egiteko. Sormena lantzea denon esku dago irtenbide berriak aurkitzeko.

**Bidaiazalea ere bazara, ezta?**

Hala naiz, bai. Lau kontinente zapaldu ditut eta Australiara joatea falta zait. Bidaiatzetik gustukoen dudana da beste bizimodu batzuk ezagutzea, eta ahal dudanean tarte bat egiten dut horretarako, gauza berriak ikusteko. Gainera, saiatzen naiz hango jendearekin harremana izaten eta arteari ere lekua egiten; erakusketak direla, gauza bitxiak egiten dituen jendea dela... Jakingurak eramaten nau beste herrialdeetara. Izan ere, sormena eta artea ez dago beti koadroetan; eguneroko gauza txikietan ere aurki genezake.

**Lan arloan oraingo bidetik jarraituko duzu?**

Beti ibili izan naiz hezkuntzan, betiere sormenarekin uztartuz, eta bide berrien bila inguru honetan jarraitzeko asmoa dut.







JOSETXO ARANZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak. **Mania bat?** Koloreekin ibiltzen naiz sukaldean. **Margotzeko kolore bat?** Laranja, kolore bizia da. **Eta janzteko?** Berdea, inguratzen gaituena delako, naturaren kolorea. **Durangoko azokan erosi duzun liburua?** Paul Austerren *Brooklyngo erokeriak*, itzulpena. **Disko bat?** Audience taldearen *Trying wings on roots*. **Beste erosketarik?** *Ama Lur* filmaren liburu-DVDa. **Bidaiatzeko toki bat?** Finlandia eta Senegal. **Amets bat?** Askatasuna, baina ez saltzen diguten hori.



**ADITUA** Ahozkotasuna bertsolari gisan landu du asko Andoni Egañak. GOIENKARIA

**EUSKARA** > HITZALDIA

# Ahozko hizkuntzaren gainean berba egingo du Andoni Egañak

'Ahozkotasunaz' delako hitzaldia egingo du Andoni Egañak martitzenean, Bergaran; haren ustez, "adierazkortasuna galdu dugu", eta hori azalduko du

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Euskaraz gero eta jende gehiagok eta gero eta gehiago egiten dugu; baina zelan egiten dugu? Beharbada, nahi adina ondo edo egoerara moldatuta ez dugula egiten kontuan hartuta, hitzaldia antolatu du datorren martitzenerako, hilak 18, Bergarako Jardun euskara elkarteak. Bergarako kultura etxean izango da, 19:00etan, eta Andoni Egaña filologo eta bertsolari ezagunak egingo du. Izenburuak euskaraz berba egiteko moduari egiten dio aipamena: *Ahozkotasunaz*.

**"HIZKERA POBRETZEN ARI DA"**

Andoni Egañaren beraren hitzetan, "pertsonen arteko komunikazioa ahozko adierazpideen bitartez gauzatzen da gehienean. Azken boladan, ordea, adierazkortasuna galdu dugu. Ez gara gai esan nahi dugun hura hartzailearengana eraginik izateko moduan esateko. Badirudi, gainera, ez zaigula askorik axola esan-indarraren galera. Ahozkotasunaren bigarren aroan bizi gara. Telebista, irrati, telefono, telefono-mezu… gero eta beharrezkoagoa da ahozko hizkera ondo menderatzea eta, paradoxikoki, oraintxe ari zaigu gehien pobretzen".

Ahozko hizkuntzaren pobretze horren inguruan ardura duten eta euskaraz hobeto egin nahi duten guztiondako da egoki hitzaldia; adin guztietakoendako modukoa da; oro har, "euskaraz bizi den edozeinendako", Jarduneko antolatzaileen esanetan.

**KONTZIENTZIATZEA**

Jarduneko arduradunen esanetan, "orain arte, oraingo ikasturtean, oso bestelako gaien inguruko berbaldiak antolatu izan ditugu; bada, pentsatu genuen gu, euskara elkarte moduan, arduratzen garela ez bakarrik euskara zabaltzeaz, baizik eta ondo egiteaz, eta horren gainean kontzientziatzeaz; horregatik antolatu dugu honako hitzaldia. Gainera, iruditu zitzaigun Andoni Egaña bezalako pertsonaia ezagun batek hitzaldia egiteak erakargarritasun handia izango zuela".

## teknologia berriak

> MP4 IRAKURGAILUA

### UPOP, soinuak entzunarazten dituen aparailua ukimen bidezko pantaila eta teklatuarekin

UPOP enpresaren aparailuak 4,8 hazbeteko ukimen bidezko pantaila du. 16 milioi kolore eskaintzen ditu 800x400 pixeleko TFT pantailan. Diskoaren edukiera 20 edo 60 GB da.

Prestakuntzei dagokienez: audio eta bideo formatu ezberdinak irakurtzeko eta grabatzeko gai da, agenda, web arakatzaile, wi-fi eta ofimatika (Word, Excel eta PowerPoint) dokumentuak edita ditzake.

Oraindik ez dute aditzera eman kaleratze data.



Teklatua edo pantaila erabiltzeko lapitz bat erabiltzen da.

> MARKU DIGITALA

### Genius DPF-241, argazkiak ikusteko marko digitala egutegi eta erloju iratzargailuarekin

Genius enpresaren marko digitalak lehiakideetatik nabarmentzen dituen bi funtzio ditu: egutegi eta erloju iratzargailua ere bada.

Barneratutako flash memorian 30 irudi sartzen dira. Mini-USB 2.0 konexioa erabiltzen du argazkiak markora pasatzeko eta dakarren softwarearekin markoaren beharretara egokitzeko.

Konexioa, berriz, AAA pilen bitartez edo aparailua USB bidez ordenagailura konektatuta egiten da.

Salneurria: zehaztu gabe.



Marko digitala, egutegia, erlojua eta iratzargailua ere bada.

> KAMERA

### Panasonic GP-PD107, ondo aparkatzeko autoaren atzeko aldean jartzeko kamera angeluhandia

Autoetako atzeko kamerak zabaltzen ari dira, baina oraindik gama handiko autoetan bakarrik.

Panasonic GP-PD107 kamera norberak instala dezake autoan. Bi aparailuk osatzen dute: atzeko partean jartzen den bideokamera eta autoaren barruan jartzeko pantaila. Hain zuzen ere, 3,5 hazbeteko eta 320x240 pixeleko LCD pantaila du. Kamerak, berriz, lente angeluhandia du, autoko atzeko partean gertatzen den guztia ikusteko.

Salneurria: 250 euro.





Bi aparailu ditu: autoaren atzekaldean jartzeko kamera eta auto barrurako pantaila.


## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak
/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jracing
/joseba
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



## berriak

> MUSIKANTOI

### 'Musikantoi' saioan euskal heavyaren gainekoak ikusgai

*Musikantoi* saio berezia eskainiko dute datorren astean; izan ere, euskal heavya izango da protagonista. Bertan ikusi ahal izango dira, besteak beste, Su Ta Gar, Ehun Kilo, Latzen, Mendeku Itxua eta Elbereth taldeen bideoklipak eta grabazioak. Horiez guztiaz gain, euskal heavyan erreferente izan diren beste talde batzuk ikusi eta entzuteko aukera ere izango da, eguenean, 22:15ean.

> KANTARI

### Huhezi fakultateko aretoan grabatutako bi saio datorren astean

Datorren martitzenean eta eguenean, Eskoriatzako Huhezi fakultatean grabatutako bi saio eskainiko ditu Goiena Telebistak. Lehena Aretxabaletako haurrekin egin zuten eta bigarrena Eskoriatzakoekin. Datorren martitzenean, beraz, 20:15ean, Aretxabaletako haurrak izango dira telebistan eta eguenean Eskoriatzakoen txanda izango da. Gogoratu, bada, *Berriak* saioaren ostean.

> ARRASATE IRRATIA

### Gabonetako eta Santamasetako kontuak irratian

Gabon eta Santamas jaien bezpera izango da datorren astea. Hori horrela, Arrasate Irratia ere jai giroan murgilduko da. Santamasen gaineko xehetasun guztiak helaraziko dituzte astean zehar hainbat elkarrizketa eginda. Horrez gainera,irratikoak Olentzero irratira ekartzen ahaleginduko dira, opari kontua zelan doan hari galdetzeko. Astearen amaiera aldera izango da hori.

> ARRASATE IRRATIA

### Gospel kontzertura joateko sarrerak zozketatuko dituzte

Datorren astean Arrasate Irratian gospel kontzertura joateko sarrerak zozketatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko honako galderari erantzun behar zaio: Zer da *txikoplitxoka* berba? Pista moduan: berba hori googlean sartzeak lagunduko luke. Zozketa egingo dute abenduaren 21ean. Eta parte hartzeko bi bide daude: 943 71 17 31 telefonoa erabilita deitzea edo *irratia@goiena.com* helbidea erabilita mezua bidaltzea.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Asier Serrano idazle eta musikaria gaur 'Ilunpean'-en

Lorelei taldeko kide izan zen Asier Serrano, eta gerora, bere talde propioa sortu zuen



**ASIER SERRANO** GOIENKARIArako egindako argazkian. IKER BARANDIARAN

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Eibartarra da Asier Serrano, eta Eibarren bertan bizi da. Idazlea eta musikaria da, nahiz eta lan Haur Hezkuntzako irakasle moduan egiten duen. Lorelei talde ezagunaren parte izan zen Serrano, eta gerora, bere talde propioa eratu zuen. Idazle den aldetik, aipatu behar da aurten bi liburu argitaratu dituela: bata poesia liburua eta bestea eleberria. Serranok letrak ere idazten ditu beste musikari batzuendako; besteak beste, Garirendako eta EH Sukarra taldearendako. Haren gainean gehiago jakiteko, piztu GOITB, gaur, 22:15ean.

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:47

# Gaizka Larrañaga eskoriatzarraren bihotza hartu zuen Mary Dimaggiok

**GOIENKARIA** > ARRASATE

2003ko abuztuaren 13an, Atlantikoaren bi aldeetan, bi familiaren bizitzak guztiz aldatu ziren. Egun hartan, Renoko unibertsitatean ikasten ziharduen Gaizka Larrañaga gaztea errepide istripuan hil zen. Eskoriatzarra zen hura, eta familiak haren organo guztiak emateko erabakia hartu zuen. Bada, Gaizkaren bihotza Mary Dimaggio 63 urteko emakume kaliforniarrarentzat izan zen. 1980. urtean minbizia izan zuen Maryk eta jasotako tratamenduak oso ahul utzi zuen haren bihotza. Maryk jakin zuen ipinitako bihotza nondik zetorren eta orduz geroztik haren gogoa Gaizkaren familiarekin biltzea izan da.

Domekan heldu zen Mary Dimaggio Eskoriatzara hainbat lagunekin batera, eta egunotan, Gaizka Larrañagaren gurasoak, arrebak eta familia osoa ezagutzeko aukera izan du, baita Gaizkaren eguneroko bizimodua nolakoa zen ere.

Julen Iriondok gai hunkigarri hori jorratuko du datorren asteleheneko erreportajean.

## telebegi

**Leire Kortabarria**

### Propagandarik ez, mesedez!

Kazetaritza ikasten nenbilela, zenbat aldiz esango zidaten informazioa eta iritzia garbi banantzeko! Kazetari baten lehenengo zeregina, zioten gure irakasleek, informatzea da; ez modu objektiboan, gu ez gara-eta objektuak, subjektuak baizik, baina bai ahalik eta modu zintzoenean, datuak eta gertakariak oreka batekin aurkeztuz, manipulatzeko asmorik gabe. Horrez gain, iritzia eman behar badugu, informaziotik banandu-ta eman behar da, irakurle edo ikus-entzuleari ondo adierazita hori iritzia dela.

Bada, telebistako albistegietan, arau horiek gero eta gehiago apurtzen dira. Eta hori ez dut batere gustuko, ez etikoki, ez estetikoki. Izan ere, funtsean, nik informazioa nahi dut; informazioa boterea da, eta gertatzen dabilenaz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta aukera handiagoa izango dugu fundamentuzko iritzi bat sortzeko eta gertakari horien inguruan ahal dudan neurrian ekiteko. Iritzi jantzi bat behar badut, badakit nora jo: iritzi tarteetara; informazioa iritziarekin nahasten denean, ez da informazioa, propaganda baizik.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
*Ilunpean* saioa, *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak berri* saioan eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Herrietako kronikak
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko:
943 71 17 31 *irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 14**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15**Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45**Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15**Ur eta lur. **16:45**Albisteak. **17:15**Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15**Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 15**
**08:00**Emisio hasiera **08:05**Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00**Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00**Eltze beroa **13:30**Erreportajea. **14:00**Berbaire. **15:00**Kantari. **17:00**Marrazki bizidunak. **19:00**Hitz bitan. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Animalia. **21:00**Berbaire **22:00**Erreportajea **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00**Emisio amaiera.

**Domeka, 16**
**08:00**Emisio hasiera. **08:05**Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire. **13:00**Ikusten. **13:30**Jazmina. **14:00**Animalia . **14:30**Eltze beroa. **15:00**Musikantoi. **15:30**Erreportajea. **14:00**Ilunpean. **16:30**Marrazki bizidunak. **19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00**Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:00** Gertutik. **23:00**Teknopolis. **23:30**Ilunpean **00:00** Musikantoi. **00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 17**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire. **16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Hitz bitan. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** Gertutik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmailatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmailatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 18**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmailatik. **14:45**Berriak. **15:15**Gertutik. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 19**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gertutik. **18:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15**Zaharrak berri. **20:45**Berriak. **21:15**Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Zu kazetari. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 20**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Marazki bizidunak. **14:15**Zu kazetari. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animalia. **16:17**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15**Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. **18:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15**Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15**Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera


Ni Gipuzkoa naiz.
Guztiok gara Gipuzkoa.
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko
pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.
2007/2011 Kudeaketa Plana
GIPUZKOA
zurekin, aurrera

# Abenduak 14-21

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Magia saioa



ELGETA

**> Lennart Green magoak emanaldia egingo du Espaloia kafe antzokian**

Suediarra munduko txapelduna da kartomagian eta munduko manipulatzaile onenetariko moduan definitzen dute gainontzeko magoek; Renne Lavand-ekin batera gorenean dago. Bihar, zapatua, egingo du saioa, 22:30ean.

## Haurrendako jaia



BERGARA

**> Minbizia duten eta ez duten umeen arteko harremana bultzatzeko jaia**

Aspanovasek, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak, antolatu du jaia. 16:30etik 19:30era bitartean egongo dira haurrendako tailerrak, Eriz magoaren saioa, jokoak, eta merienda, Udal Pilotalekuan.

## Azoka



ARRASATE

**> Erabilitako jostailuak trukatzeko azoka antolatu du Txatxilipurdik**

Okendoko ludotekan egingo dute bihar, zapatua eta etzi, domeka, 12:00-14:00 eta 17:00-19:00 ordutegian. Ekimen horrekin, berrerabilpenaren balioa eta kontsumismoaren gehiegikeriaren kontzientzia piztu nahi dute haurrengan.

## Musika

ARRASATE

**> Pier Paul Berzaitz abeslariak emanaldia egingo du**

Zuberoako gaur egungo kantu egile eta abeslari esanguratsuenetakoa da Pier Paul Berzaitz. Ohiko kantagintzan oinarrituta, musikaren ikuspegi berri eta aurrerakoia erakusten du. Santamas Komisiñuek antolatu du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Amaia antzokian.

ESKORIATZA

**> Arrasateko Governors taldeak kontzertua egingo du**

Inkernu tabernaren IV. urtemugan egingo du kontzertua taldeak. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Inkernu tabernan.

ARRASATE

**> Bi talderen kontzertua 3.60 aretoan**

Vic du Monte's Persona Non grata eta Positiva taldeek egingo dute kontzertua, aretoaren 3. urtemugan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA

**> Herriko abesbatza gazteenek emanaldia egingo dute**

Bergarako Orfeoi Txikiak, Gabero abesbatzak eta Bergarako Musika Eskolako abesbatzak egingo dute emanaldi hori.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Mariaren Lagundiko elizan.

ARRASATE

**> Sex Museum taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan**

Sex Museum taldeak *United* azkeneko lana aurkeztuko du. Zenttric eta 5 Twisters taldeek ere joko dute aretoaren 3. urtemugaren harira.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

ELGETA

**> Kontzertua 'Herri bat, gaztetxe bat' lelopean**

Santos Dolidos, Disorders, Street Girls eta Noisex taldeek egingo dute kontzertua.

Bihar, zapatua, 22:00etan, gaztetxean.

ARRASATE

**> La Banda del Abuelo taldeak kontzertua egingo du**

Emanaldi berean Haiziaren Seme Txirikaua taldea ere arituko da.

Bihar, zapatua, 18:30ean, Biona tabernan.

ARETXABALETA

**> Akordeoi kontzertua entzuteko aukera izango da**

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak egingo du emanaldia, Gabonen atarian.

Bihar, zapatua, 20:30ean, herriko parrokian.

BERGARA

**> Sexty Sexers eta On Benito taldeen kontzertua**

Berako taldeek egingo duten kontzertua Txapa Irratiak antolatu du.

Bihar, zapatua, 23:00etan, gaztetxean.

BERGARA

**> Nazioarteko disko jartzaileak izango dira Jam aretoan**

Besteak beste, arituko dira Hello?Repeat, Esperanza, Bruno Prosanto, Daze Maxim, Jam Krueger eta Dario Zenker.

Bihar, zapatua, 00:00etan.

BERGARA

**> Bergarako Orfeoiak emanaldia egingo du**

Bergarako Orfeoiko kideek Mariaren Lagundiko elizan egingo dute kontzertua.

Bihar, zapatua, 20:00etan.

GASTEIZ

**> Oñatiko bi taldek kontzertua egingo dute Helldoradon**

Latzen eta Golpe de Estado taldeek egingo dute emanaldi hori.

Bihar, zapatua, 22:00etan.

OÑATI

**> Gabonetako kontzertu berezia egingo dute**

Herriko hainbat taldek hartuko dute parte Gabonetako kontzertuan: Musika Bandak, Ganbara abesbatzak, Ganbara Txiki abesbatzak, Oñati abesbatzak, parrokiako koruak eta Txantxiku ikastolako abesbatzak, hain justu ere.

Etzi, domeka, 19:00etan, Mikel Deunaren parrokian.

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Poesia irakurketa saioa antolatu du Udal Bibliotekak gaurko, egubakoitza

Rikardo Arregik aurkeztuta, lau poetak egingo dute saioa: Gerardo Markuletak (argazkian), Anjel Errok, Eli Tolaretxipik eta Karmelo C. Iribarrenek. Lehenengo biek euskaraz egingo dute irakurketa eta beste biek, berriz, gazteleraz. Bakoitzak 15 bat minutuko saioa egingo du –ordubete inguru iraungo du emanaldiak– . Ekimenaren helburua da poesia ahalik eta jende gehienari hurbiltzea.

19:00etan, Kulturateko aretoan.



ARETXABALETA

**> Leizarra Musika Eskolako ikasleen emanaldia**

Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute. Hainbat talde instrumental entzuteko aukera egongo da.

Hilaren 18an, martitzena, 18:30ean, parrokian.

## Antzerkia

ARETXABALETA

**> 'Sueños silenciosos' delako dantza ikuskizuna**

Jakineko pausoak eta inprobisazioa uztartzen ditu emanaldiak. Doan izango da.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, udaletxe zaharreko ganbaran.

ARRASATE

**> Haurrendako bertso-txotxongilo ikuskizuna**

*Hitzen lapurra* delako ikuskizuna antolatu du Santamas Komisiñuek. Hitzak dira protagonista Ander eta Amaia txotxongiloen eta Libe eta Ximon aktoreen istoriotxoan.

Bihar, zapatua, 17:00etan, Amaia antzokian.

OÑATI

**> 'Robin eta Hood' izeneko antzezlana ikusteko aukera**

Elkar Hezik antolatu du Gorakada antzerki taldearen emanaldi hori.

Bihar, zapatua, 17:00etan, Santa Ana antzokian.

BERGARA

**> Quico Cadaval ipuin kontalariaren emanaldia**

Galizian, Ribeira herrikoa da Cadabal eta oso gazte ekin zion ipuinak kontatzeari. Betaurrekoak, garagardo botila eta memoria lagun dituela, ahaztu ezin diren ipuinak kontatzen ditu.

Hilaren 20an, eguena, 22:30ean, Pol-Polen.

## Hitzaldiak

OÑATI

**> Gasherbrun-II mendira egindako espedizioa berbagai**

Duela urtebete inguru Debagoieneko eta Urola aldeko hainbat gaztek Pakistango mendira egindako espedizioaren ikus-entzunezkoa ikusteko aukera.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, kultura etxean.

BERGARA

**> Andoni Egañak 'Ahozkotasunaz' delako hitzaldia egingo du**

Jardun elkarteak antolatu du ekitaldia.

Hilaren 18an, martitzena, 19:00etan, kultura etxean.

ESKORIATZA

**> Giza gorputzaren magiaren gaineko hitzaldia, kultura etxean**

*Giza gorputzaren magia: nerbio-sistema* delako hitzaldia egingo du M. Jose Pagaldaik.
Hilaren 19an, eguaztena, 18:30ean.

BERGARA
**> Hitzaldia Askapenaren 20. urtemuga dela eta**
20 urteotan egindako ekintzak eta gaur egungo helburuak azalduko dituzte Askapenakoo bi kidek.
Hilaren 20an, eguena, 22:00etan, Pol-Pol tabernan.

# Erakusketak

ARRASATE
**> Valentin Aranaren margo erakusketa**
Artistak Harresi aretoan jarri ditu ikusgai margolanak.
Hilaren 23ra arte.

OÑATI
**> Aloña Mendik argazki erakusketa antolatu du**
*Natura eta mendia* delako argazki erakusketa antolatu du. Ordutegia da 18:30-20:30.
Hilaren 14tik urtarrilaren 5era arte.

ESKORIATZA
**> 'Eskoriatzako mendi buzoiak iruditan'**
Horixe da Juan Luis Zubizarretaren argazki erakusketaren izenburua.
Abenduan egongo da ikusgai, Inkernun.

# Lehiaketak

ARRASATE
**> Erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak, Gabonen atarian**
Abenduaren 14a aurretik udaletxeko Kultura Zerbitzuan izena eman duten herriko denda guztiek hartu ahal izango dute parte. Kontuan izango dituzte, besteak beste, irudimena, orijinaltasuna eta mezu publizitarioaren baliogarritasuna. Erakusleihoetan dendako ohiko produktuek azaldu beharko dute. Sari ematea abenduaren 21ean egingo dute.
Hilaren 15etik 31ra egon beharko dira prestatuta erakusleihoak.

BERGARA
**> Aratusteetarako egitarauaren azala egiteko deialdia**
Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte. Kartelak kolore eta teknika librean egin daitezke eta aurkeztu beharko dira 40x60 cm-ko oinarrian. Eta ondorengo derrigorrezko testua eroan beharko dute: *Aratusteak 2008, Bergara*.
Lanak aurkezteko mugaeguna da urtarrilaren 4a, kultura etxean.

ARETXABALETA
**> Literatura lehiaketa deitu du Loramendi elkarteak**
Hainbat sailetan har daiteke parte: ipuina, komikia, bertso-paperak, grabazioa eta amodiozko gutuna. Parte hartzekoko ezinbestekoa da Aretxabaletan bizi edo ikastea. Bestalde, lehiaketa da DBHko 1. eta 2. zikloetako ikasleendako.
Hilaren 19a da aurkezteko mugaeguna.

BERGARA
**> Amodiozko gutunen 16. lehiaketa deitu du Jardunek**
Ohikoa den moduan, lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lehiaketan, 1993an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orrian, eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Bestalde, SMS bidezko mezuen lehiaketa ere deitu dute. Argibide gehiagorako deitu Jardunera (943 76 36 61) edo jo *www.jardun.net* webgunera. Beti bezala, sari banaketa ekitaldia San Valentin egunean, otsailaren 14an egingo dute, kultura etxean.
Gutunak aurkezteko mugaeguna da urtarrilaren 6a.

BERGARA
**> Erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak, Gabonen atarian**
Herriko denda guztiak hartuko dira aintzat, aurrez izena eman barik. Erakusleihoek egon beharko dute prestatuta abenduaren 12tik urtarrilaren 7ra bitartean.
Erabakia abenduaren 19an emango dute aditzera.

# Ospakizunak

ARETXABALETA
**> Basotxo elkartearen 25. urtemuga ospatuko dute**
Egun osoan barrena izango dira ekitaldiak. Omenaldi ekitaldia izango da 17:00etan. Han egongo dira Basotxoko ordezkariak.
Bihar, zapatua.

# Bestelakoak

BERGARA
**> Fisc gobernuz kanpoko erakundeak postua jarriko du**
Bidezko merkataritzako postua jarriko du. Askotariko produktuak erosi ahal izango dira Hirugarren Munduari laguntzeko.
Bihar, zapatua, 10:00etatik 14:00etara, San Martin plazan.

BERGARA
**> Hainbat sari banatuko dituzte kultura etxean**
Hiru sari emango dituzte: erakusleiho lehiaketako sariak –Udalak emango ditu, 15:30ean–, balkoien apainketako sariak –Bedelkar dendarien elkarteak emango ditu, 15:30ean– eta Olentzero marrazki lehiaketakoak –Jardun elkarteak emango ditu, 19:00etan–.
Hilaren 19an, eguaztena.

ESKORIATZA
**> Erretiratuendako txistorra jana antolatu dute**
Olazar erretiratuen elkarteak antolatu du. Txistorra jan eta gero, opariak zozkatuko dituzte.
Hilaren 20an, eguena, 17:30ean, erretiratuen elkartean.

# Zinema




## El atardecer ***

**Zuzendaria:** Lajos Koltai.
**Aktoreak:** Claire Danes, Toni Collette Vanessa Redgrave.
AEB. 2007.
117 min.

*El atardecer*-ek belaunaldi desberdinetako aktore onen lana ikusteko aukera ematen digu: Vannesa Redgravek, Meryl Streepek edo Glenn Closek urte pila daramate zinema munduan euren talentua erakusten; Toni Colette, Natasha Richarson (Vanessa Redgraveren alaba) eta oraindik gazteagoak diren Clairen Danes, Mamie Gummer (Meryl Streepen alaba) eta Patrick Wilson ez dira atzean geldituzen, eta denon artean oso talde distiratsua osatzen dute. Filmean pertsonaia ugari agertzen dira, batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa badute ere, denak ondo landuta daude eta pisua dute istorio nagusiaren barruan.

*El atardecer* bi garai desberdinetan kokatzen da: orainean hil zorian dagoen andre bat daukagu eta bere bi alaben istorioa; eta iraganean andre horrek gaztea zenean bizi izan zituen gertakizun batzuen oroimena. Bi istorioak saltoka agertzen joango dira. Batzuetan halako egitura erabiltzea arriskutsua izan daiteke, baina kasu honetan istorioaren jarraipen dramatikoa ondo lotuta dago, bi istorioak ondo bateratzen dira eta biekin istorio bakar bat osatzen da.

*El atardecer*-en ardatz nagusietako bat da honako baieztapena: bizitzako momentu erabakigarrienetan oso zaila da bide egokia aukeratzea. Gizakien ilusio eta ametsak askotan bizitzagatik edo gizakiaren alde arrazionalagatik astinduak izaten dira, bihotza eta buruaren arteko norgehiagoka bat sortzen da eta jakin izan behar dugu noren alde apustu egin. Lajos Koltaik leuntasunez eta dotoreziaz tratatzen ditu gaia eta pertsonaiak, eta lortutako emaitza ikustea merezi duen drama sentimental eder bat da.

**Antonio Zabala**

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**
**Kiriku eta sorgina**
Domeka: 17:00.

### ESKORIATZA
**IBARRAUNDI MUSEOA**
**Shin Chan**
Domeka: 17:30.

### BERGARA
**AGORROSIN**
**Azur&Asmar (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 16:30 eta 19:30.

### ELGETA
**ESPALOIA**
**Los caballeros de la mesa cuadrada**
Eguaztena: 21:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**
**Leones por corderos**
Zapatua: 19:30.
**Irabazle eta galtzaile**
Domeka: 17:00.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**
**La Torre de Suso**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
**Los Totemwarkers**
Zapatua eta domeka: 17:00.
**Los Climas**
Eguena: 20:00.

### EIBAR
**UNZAGA**
**El triunfo de un sueño**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**
**La brujula dorada**
17:30, 20:00, 22:30.
**Bee Movie**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:45, 18:30, 20:15.
**Mallorca's song**
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 22:30.
**Fred Claus**
17:30, 20:00, 22:30.
**1408**
17:30, 20:00, 22:30.
**Irina Palm**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:30, 20:30, 22:30.
**Donkey Xote**
16:45.
**Encantada, la historia de Giselle**
16:45, 18:30.
**Rec**
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**
**Deseo, peligro**
18:00, 21:30.
**14 kilometros**
17:00, 22:30.
**El atardecer**
20:00.
**Diario de una niñera**
17:00.
**Blade Runner**
19:45, 22:30.
**August Rush**
17:00, 19:45, 22:30.
**Once**
17:30, 20:00, 22:30.
**August Rush (El triunfo de un sueño)**
17:30, 20:00, 22:30.
**Mr. Brooks**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**
**Mr Magorium y su tienda magica**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
**1408**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
**August Rush (El triunfo de un sueño)**
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
**La brujula dorada**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
**Bee Movie**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
**Encantada**
12:15, 15:55, 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.
**Mr Brooks**
12:15, 15:30, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.
**Rec**
12:15, 15:30, 17:10, 17:50, 18:50, 20:30, 22:10, 22:30, 00:05.
**Diario de una niñera**
12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.
**El orfanato**
12:15, 15:45, 17:55, 20:50, 22:15, 00:25.
**Donkey Xote**
12:15, 16:30, 18:30.
**Hitman**
20:40, 22:40, 00:40.
**Tierra**
12:15, 15:45, 17:45.
**Beowulf**
19:45, 22:00, 00:15.
**Las 13 rosas**
12:15, 15:50, 18:10.
**Promesas del Este**
20:35, 22:35, 00:35.
**Ratatouille**
12:15, 16:05, 18:15.
**Leones por corderos**
20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**
**Mr Magorium y su tienda magica**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.
**Fred Claus**
17:00, 19:30, 22:00, 00:45.
**1408**
15:50, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
**El triunfo de un sueño**
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
**Deseo, peligro**
16:10, 19:20, 22:30.
**La brujula dorada**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.
**Mr Brooks**
20:05, 22:35, 01:00.
**Donkey Xote**
16:15, 18:15.
**Arma fatal**
22:45.
**Bee Movie**
16:00, 18:20, 20:20, 22:25.
**Hitman**
16:00, 18:20, 20:20, 22:25.
**The Nanny diaries**
16:00, 18:15, 20:30.
**Rec**
20:15, 22:15, 00:30.
**Beowulf**
17:00.
**Encantada: La historia de Giselle**
15:50, 18:10.
**El orfanato**
20:00, 22:15, 00:30.
**Habitacion sin salida**
20:30, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Adios pequeña, adios**
AEB, 2007. Zuzendaria: Ben Affleck. Aktoreak: Casey Affleck, Michelle Monaghan.
114 min.
Patric Kenzie eta Angie Gennaro detektibeak bahitutako lau urteko haur baten bila dabiltza, Boston hirian. Ikerketaren ondorioz, beren harremana, printzipioak eta bizia arriskuan jarriko dituzte.

**El caso Wells** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Andrew Lau. Aktoreak: Richard Gere, Claire Danes, Ray Wise.
101 min.
Errol Babbagek Gobernuarentzat lan egiten du, eta sexu delituak egin dituztenei gertutik jarraitzen die. 17 urteko neska gazte bat desagertu egin da, eta hori ikertu beharko du.

**El sueño de Casandra** ****
EB, 2007. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Ewan McGregor, Colin Farrell, Tom Wilkinson.
108 min.
Ian eta Terry anaiek bigarren eskuko belaontzi bat erosi dute. Biak aktore gazte batekin maiteminduko dira. Bestalde, Howard osaba azalduko da eta legea haustera behartuko ditu. Horrek eragina izango du haiengan.

**El orfanato** ***
Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Antonio Bayona. Aktoreak: Belen Rueda, Fernando Cayo.
100 min.
Laura hazi zen umezurtz etxera itzuliko da, haur ezinduendako egoitza bat irekitzeko asmoz. Haren semea fantasiazko jokoetan sartuko da. Baina Laura ez da eroso sentituko, zerbaitek bere familia mehatxatzen duela pentsatuko baitu.

**Las trece rosas** *
Espainia, 2007. Zuzendaria: Emilio Martinez-Lazaro. Aktoreak: Pilar Lopez de Ayala, Veronica Sanchez, Marta Etura, Nadia de Santiago.
122 min.
1939. urteko apirilaren 1ean, tropa frankistak Madrilen sartuko dira. Errepresio luze eta gogorra pairatu beharko dute Errepublikaren aldekoek. 13 emakumek borrokan jarraituko dute, eta Francok haiek fusilatzeko aginduko du.

**Saw IV**
AEB, 2007. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman. Aktoreak: Tobin Bell, Lyriq Bent.
108 min.
Kerry detektibearen hilketaren ostean, FBIko Strahn eta Perez agenteak ikertzen hasiko dira, Hoffman detektibearekin batera. Gauzak korapilatu egingo dira Rigg komandantea bahitzen dutenean.

**Stardust** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Matthew Vaughn. Aktoreak: Claire Danes, Charlie Cox, Robert de Niro.
130 min.
Erresuma Batuko herrixka batek lurralde magiko batekin egiten du muga, baina inor ez da bertara sartzen. Gazte batek bere maiteari esango dio eroritako izar bat berreskuratuko duela, eta han sartuko da.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-12-14

# 'Loramendi' omendu dute

**BEDOÑA AUZOKO JAIAK** Santa Eulalia jaiak aprobetxatuz, Juan Arana Ezpeleta, *Loramendi* poeta, gogoratu dute Bedoñan

**EHUN URTE JAIO ZELA** Mendibitzu baserrian jaio zen, 1907an, eta horregatik ekitaldi "xume eta txukuna" egin diote

**LUZIO ANAIA** Omenaldi horretan 'Loramendi'-ren anaia Luzio egon da, bizirik dirauen anaia bakarra

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Juan Arana Ezpeleta *Loramendi* poeta gogoan izan dute Arrasateko Bedoña auzoan. Hango Mendibitzu baserrian jaio zen, 1907an. Jaiotzaren 100. urteurrena dela-eta, eta auzoko Santa Eulalia jaiak aprobetxatuz, omenaldi "xume baina txukuna" egin zioten joan zen domekan. Gasteizen bizi bada ere, *Loramendi*-ren anaia Luzio egon zen ekitaldian. Bizirik dirauen anaia bakarra da Luzio.

Bedoña auzoko alkate Mariasun Garaik azaldu duenez, poetaren 100 urteak gogoratzeko ekitaldi "xumea" egitea bururatu zitzaien afari batean: "*Loramendi*-ri ez zaio ezer egiten. Guri ekimen txukuna egitea bururatu zitzaigun", esan du.

Omenaldia meza amaitu ostean hasi zen, *Loramendi*-ren oroigarri dagoen lekuan. Bedoña auzoko alkate Mariasun Garaik eman dio hasiera ekimen horri, poetaren biografiaren gaineko datu esanguratsuenak ezagutzera emanda. Auzoko zein kanpoko jende mordoa bilduta zegoen orduko oroigarriaren ondoan.

Jarraian, Mendibitzu baserriko ondorengoen bi ilobek *Loramendi*-ren poema bana irakurri zuten jende multzoaren aurrean. Ohikoa den moduan, aurreskua ere dantzatu zuten, ekitaldi horri kolorea emateko. Lore Gazteak taldekoak arduratu ziren dantzatzeaz.

**LORE SORTA ETA OPARIA**

Luzio anaiak lore sorta ederra jaso zuen horren ondoren, eta baita oparitxoa ere. Hain zuzen ere, Jose Mari Velez de Mendizabalek Juan Arana Ezpeletari buruz idatzitako biografia. Horrez gain, "auzoak *Loramendi* ez du ahazten" ere helarazi zioten bizilagunek.

Jarraian, Luziok hartu zuen hitza eta esker ona azaldu zion auzo alkateari eta baita han bildu ziren guztiei. Txalo zaparrada jaso zuen erantzun moduan, eta ekitaldia amaitu zen. Auzoko jaiez gozatzen jarraitu zuten ondoren.


**AURRESKUA** Dantzariek ere omenaldian parte hartu zuten, aurreskua dantzatuta. GOIENKARIA

## ahobero

### "Hauteskundeak irabaztea oso erraza da"

**Iñaki Badiola** > Enpresaria

Realeko hauteskundeetara aurkeztu den hautagai bakarra da Iñaki Badiola enpresaria, oraingoz. Realean Txina aldeko dirua sartu gura duena da, hain zuzen ere. Aste honetan esan du "hauteskundeak irabaztea oso erraza dela eta zailena urtarrilaren 4tik aurrera etorriko dela". Prozesu osoa amaitu baino lehen ez luke kukurrukurik egin behar Iñaki Badiolak.

## iturri onetik

### Asobal ligako Arrate eta Cai Aragon taldeek partidua jokatuko dute Oñatin

Datorren urtarrilaren 19an, zapatuan, eskubaloi partidua jokatuko da Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Asobal ligan aste bukaera horretan jai dutela aprobetxatuz, Arrate eta Cai Aragon taldeak lehiatuko dira han. Aloñamendi eskubaloi taldeak bigarrenez antolatu du horrelako ekimen bat. Lagun arteko norgehiagoka ikusi ahal izango dute Zubikoara hurbiltzen direnek.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Egunkaria banatzen

Pare bat orduz egunkari banatzaile bihurtu nintzen, Durangoko Azokan. *Egunkaria* kasuan auzipetuek laguntza eskatu zuten, bi orriko ale xume bat banatuz elkartasuna sustatzeko. Eroso sentitu nintzen enkargua betetzen eta esker onez hartzen zuen jendeak alea.

Une erabakigarrian dago gaia. Auzi nagusian fiskalak kasua artxibatzeko eskaria egin du, eta *herri akusazioz* jantzitako fatxak bakarrik geldítu dira. Botinen kasuan ez da nahikoa izan epaiketari eusteko, ikusi egin behar gurean. Bitartean, bigarren auzi bat abiatu da, hau ekonomikoa. Lehena itxiko balitz, bigarrena 'teknikoa' litzateke, agian Tolosako epaitegian bertan aztertu beharrekoa. Gauzak horrela, posible da oraindik egoerari buelta ematea. Zeuk ere lagundu.

## ai, ene!



### Irratia duen txigorgailua aurki daiteke merkatuan

Ogi txigortuak prestatu eta irratia makina berean entzuteko aukera dago orain. Irudikoa Kenwoodena da eta 26 euro balio du.

http://tinyurl.com/yvvkyp


*Eramana dotoretasuna zure etxera*
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51